ttipi-ttapa

ERAIKUNTZA gehigarria

ERAIKUNTZA GEHIGARRIA / 28

ONDIKOL

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO EGUNA

Azaroaren 25aren bueltan, hainbat mobilizazio eginen dituzte egunotan eskualdean. Horren harira, eskualdeko talde feministegana jo du Ttipi-Ttapak eta guztiek nabarmendu dute lanean segitzeko beharra. / 8

Feriak Lesakan eta Goizuetan

Lesakan Bortzirietako feriak azaroaren 24an izanen dira eta Goizuetako Feria Eguna azaroaren 26an / 15-66

SINADURAK

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA *LUZE* / **3**

AITOR AROTZENA ALBIZU / **3**

MAITANE MARITORENA AZKARATE / **4**

MIKEL RODRIGUEZ LANDA / **4**

ZOZKETA / 88



'Sorginkeriarena gurean' liburua aurkeztu du Juainas Paulek / 27

ONDIKOL

Elizondoko Konpartsak 75. urteurrena ospatuko du hilaren 26an / 70

'Ertzak leuntzen' dokumentala estreinatuko dute Leitzan / 65

Dena prest azaroaren 20an Erdizi buruzko galdeketa egiteko / 74

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

euskaltzaleen topagunea

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua

2030

EUSKARÁLDIA

euskaraldia.eus

BERA

LESAKA

Agenda 2022

AZAROA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

BERAKOUDALA · berako kultur batzordea

LESAKAKO UDALA

LEHIAKETA
LESAKAKO BITXIKERIAK

Informazioa: www.betigazte.net
Antolatzailea: Beti Gazte

LESAKA

18 ORTZIRALEA | KONTZERTUA EZEZEZ

22:00 Kataku herri ostatua

BERA

19 LARUNBATA | ANTZERKIA PRESAS

"EL BARDO" ANTZERKI KONPAINIA

19:00 Kultur Etxean
Sarrera 6€

BERA

23 ASTEAZKENA | KONTZERTUA LESAKAKO MUSIKA ESKOLA

18:00 Harriondoa Kultur Etxea

LESAKA

FERIAK
LESAKAKO FERIAK
AZAROAK 23-24

LESAKA

SANTA ZEZILIA
LESAKAKO MUSIKA TALDEAK
AZAROAK 25-26

LESAKA

26 LARUNBATA | SOLASALDIA ERASO MATXISTEI LOTUTAKO EGOERAK ULERTZEN
PSYLAN PSIKOLOGIA ZENTROA

11:30 Beralandetan
Izen-ematea: berdintasuna@bortziriakberd.eus
722 69 30 78
Antolatzaileak: Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua eta Bortzirietako mugimendu feminista

BERA

27 IGANDEA | ANTZERKIA HONDAMENDIA
Artedrama - Axut!

18:00 Harriondoa Kultur Etxea
Sarrera: 8€
www.lesaka.eus

LESAKA

NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA *LUZE*

Ikasi hizkuntzak!

Joxemari, Argi eta hirurok mendian gora gindoazen. Joxemarik jauzi eginez pasa zuen hesia baina Argi, Pirinioetako mastin edo artzanora izaki, ez zen alanbre-tarteetatik pasatzeko gai. Bi metro eskuinerago hesiak zulo galanta zuen, baina Argik argitasunik ez zuen hura ikusteko. Nik lepokotik tira egin nion hesiko zuloa erakusteko eta Argik "GRRRRRRR" esan zidan, argi aski. Joxemari deika ari zitzaion hesiaren beste aldetik, baina Argi haren paretik pasatzen tematu zen, alferrik. Berriz heldu nion lepotik hesiko zuloa erakusteko eta jauzi eginez gainera etorrita ongi merezitako hozka egin zidan. Joxemarik jendea lasaitzeko bere dohainak erakutsi zituen: «zakurre txertatu gabe zeuket, Luze». Zorionez, azaleko urratu bat besterik ez nuen, txakurrak ez baitzidan minik eman nahi izan. Bere modura, konfiantza handiegia hartu izana adierazi zidan, besterik gabe.

«ANIMALIEN HIZKUNTZEN GUTXIENEKO BAT IKASTEA KOMENI»

Badirudi ezinbestekoa dela gaur egun atzerriko hizkuntzak ikastea baina, bistakoa denez, beste animalia espezie batzuen hizkuntzen gutxieneko bat ikastea ere komenigarria da oso.

EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Nork ebatsi digu azaroa?

Garai batean Joaquin Sabina abeslariari apirila bezala ebatsi digute aurten azaroa. Lehen erdian bederen, oraindik zamarra potoloak armairutik atera gabe, arratsetan ere jertsea soberan, mugikorrik gabeko nerabeak (ezin sakelakoa deitu, beti eskuetan dute eta) edo tatuajerik gabeko futbolista *moddernoak* bezain galdurik gabiltza. Eta euliak dantzan.

NABARMENTZEKOAK

JULEN ARBURUA
GASNAGILEA

Sariak irabazten segitzen du Orabideko Julen Arburua artzain eta gasnagileak. Elizondoko ferietako lehenengo gasna lehiaketa, eta Ordiziako Txapeldunen lehiaketa irabazi ditu berriki.

MARTXEL RODRIGUEZ
DANTZARIA

2021ean lortutako Talentu Artistikoaren Sustapenerako Sariari dagokion lana aurkeztu berri du dantzari lesakarrak, Led Silhouette dantza konpainiarekin egin duen *Esquicios* proiektua.

GIBELERA BEGIRA

2012-11-18 · TTIPI-TTAPA · 578 zk.

Nieves Biurrarenarekin minbiziaz

Duela 10 urte, Nieves Biurrarena sunbildarrarekin mintzatu zen TTIPI-TTAPA bularreko minbiziaren inguruan. 2008an jaso zuen diagnostikoa, eta geroztik ebakuntza egin eta bularra eta ganglio guztiak kendu ondotik, kimioterapia eta erradioterapia hartuak zituen, eta tratamendu hormonala hartzen ari zen. Gaitzaren alderdi fisikoari aurre egitea «kosta zitzaiola» gehien kontatu zuen: «Ispiluaren aitzinean jarri eta nire burua ikustea oso gogorra egiten zitzaidan, han agertzen zena ez nintzen ni». Autoesplorazioaz ere mintzatu zen eta nabarmendu zuen gaitza ekiditeko «arma bakarra» dela. «Ginekologora joaten garen lehenengo aldian autoesplorazioa nola egin erakutsi behar ligukete, eta ez dute egiten», salatu zuen.

ttipi-ttapa
erran.eus
TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz, Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Oihana Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatea.

2022ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	42€
Leitza	33€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	98€
Amerika eta Australia	147€

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · mecna · Baztango euskara zerbitzua · Bortzirietako Euskara Mankomunitatea · Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA

KOLABORAZIOAK

MAITANE MARITORENA AZKARATE

Errespetatu nazazue, faborez, mesedez, arren eta otoi!

Faborez, mesedez, arren, eta otoi. Bertzeak errespetatzen dituzuen bezala errespetatzea nahi dut, bertzeak bezala zaintzea, eta gibeletik heldu direnendako eredu izatea. *Por favor* eta *s´íl vous plaît*-en errespetu bera eskatzen dut, *porrfabor*ik eta *sibuple*rik gabe. Ez dut nolanahi agertu nahi herrietako bestetan, gaztetxeko kontzertuetan, elkarteek antolatutako ekitaldietan…

Ederki gostata hartu nuen espazio publikoa, urte aunitzez sukaldean zokoratua eta debekatua egon ondotik. Poliki-poliki gero eta toki gehiagotan ageri naiz, herrietako besta gehienetan, gaztetxeak antolatzen dituen ekitaldi guztietan, pankartetan… Aunitzetan, ordea, neure burua ez dut sobera ongi ikusten. Nik ere ez baitut nolanahi agertu nahi espazio publikoan, ikusten nauenak, ulertu nazan nahi dut, eta ez, *bakotxak nai duen gisen agozkua paperian patuz. Launbeta ertia ungi egonagatik*, larunbata baita nik idatzian hartu beharko nukeen itxura.

50 urte baino gehiago pasatu dira idazkietan nola agertu behar nuen zehaztu zenetik, hortaz, bada ordu euskaraz alfabetatu zareten gazte eta ez hain gazteak, nire alde horrenbertze egiten ari zaretenak, zuen egitarau, hitzaldi eta idazkietan behar bezala idatz nazazuen, eta ez, *naizuen bezala*.

«ZERGATIK EZ DUGU BERDIN JOKATZEN GURE HIZKUNTZAREKIN?»

Faborez, mesedez, arren, eta otoi: euskaldun guztion errespetuz, errespeta ezazue gure hizkuntza. Norberak nahi duen bezala eskribitzeak ez gaitu bertakoago egiten. Baztango mintzoan eskribitzen ahal da Goierriko hizkeran idatz daitekeen bezala. Oso ondo hitz egiten duena, arras ongi solastatzen dena, biziki untsa elekatzen dena… denak dira gure mintzo, gure solas, gure hitz eta gure ele. Euskara batuak horiek guztiak onartzen baititu. Onartzen ez duena da, solastatzen den bezala eskribitzea.

Launbeta paratzen duenak, aski ongi daki idatziz larunbata dela, *kontzertue* iragartzen duenak, kontzertua dela badakien bezala. Bokal aldaketak eta 'letrak jatea' ahozko hizkeraren ezaugarri dira. 'Gureago'-'bertakoago' kutsua eman nahian, solastatzen den bezala eskribitzeak, ez dio inongo faborerik egiten gure hizkuntzari.

Zein helbururekin eskribitzen dugu euskaraz, eta euskaraz bakarrik, solastatzen den bezala? Espainolez, frantsesez, ingelesez… idatzizko arauak behar bezala errespetatzen baditugu, zergatik ez dugu berdin jokatzen gure hizkuntzarekin? Bertze hizkuntzekin burutik pasatuta ere eginen ez genukeena, zapaldua eta oinperatua dagoen hizkuntzarekin egiteak, hori bera erakusten digu, zapalketa: zapaldua dagoena nolanahi tratatzea.

MIKEL RODRIGUEZ LANDA

Europan, inon ez

Jean-Françoisek ez zuen ideia handirik politikaz, ezta interes berezirik ere. Baina bazekien Alemania naziak Frantziaren parte bat inbaditu zuela, eta bera bizi zen partean alemanekin ongi konpontzen ziren frantsesek segitzen zutela agintzen. Hala ere, ohartzen zen denak ez zeudela gustura, eta horiek erran ohi zutela «diktadura faxista batean» bizi zirela. Baina Jean-Françoisek nahikoa zuen bere kezka nagusiarekin: jornal on bat lortzea, bizitza arrunt zaila baitzegoen bere herrian. Horregatik, pentsatu zuen polizia egitea irtenbide ona izanen zela, soldata on eta seguru bat lortzeko. Familia guzia harro sentitu zen Jean-François akademian graduatu zen egunean. Bere herritik urruti eman zioten postua. Ailegatzean, abisatu zioten badaezpada kontuz ibiltzeko, gobernuaren kontra borrokan ari ziren terrorista komunistak ibiltzen omen zirela batzuetan paraje hartan. Tokatu zitzaion manifestazio liskartsuren bat, eta entenditzen ez zuen gorrotoarekin kontra egiten zion jende hari makilakada batzuk eman beharra. Kuarteletan ere ongi berotzen zuten jendea, baina, orokorrean, bizitza lasaia zuen.

Egun batean, errepideko kontrol bat egiteko agindu zioten. Bi mutil gazte gelditu zituen auto batean. Haien paperak begira ari zela, ikusi zuen zerbait ez zegoela ongi, eta burura etorri zitzaizkion terrorista komunista haietaz aditutakoak. Pistola atera behar zuen, baina mutil haietako bat bizkorrago ibili zen, eta bertan hil zuen Jean-François. Handik urte batzuetara, alemanak Frantziatik bidali zituzten, eta horien lagun ziren frantsesek ezarri zuten diktadura indarrez kendu zuten. Demokrazia ezarri zen, baina terrorismoa ez zen desagertu. Belaunaldi berriak agertu ziren, bertze talde batzuk, atentatuak, manifestazioak eta liskarrak... urteak pasatu ziren, baina garai bateko ideologia komunista bertsukoak ziren. Edo hori iduritzen zitzaion Jean-François zenaren familiari. Ikusi zutenean erakunde publikoak omenaldiak antolatzen hasi zirela talde terrorista horiek hildakoei, herriko alkateari idatzi zioten. Urte aunitz ziren Jean-François hil zutela, baina familia ez bertze inor ez zen hartaz oroitzen. Alkateari eskatu zioten omenaldi publiko bat egiteko, eta karrika bati haren izena emateko plaka eta guzi, bertzeekin egin bezala. Denbora luzean esperatu zuten alkatearen erantzuna, eta, ailegatu zenean, zur eta lur utzi zituen: «Alde humanotik, ulertzen dugu familiaren samina Jean-Françoisen heriotzarengatik, baina ulertu behar duzue Frantzia herrialde demokratiko bat dela, eta zuen senidea diktadura defendatzeko betebeharra zuen polizia bat zela. Horregatik, herrialde demokratikoetako instituzio publikoek ezin dituzte omenaldiak antolatu erregimen faxistetako agente armatuak oroitzeko eta horiek biktimatzat hartu, haien heriotzaren kausa dena delakoa izanda ere. Inori ez litzaioke burutik pasatuko Alemaniako herriko etxe batek omenaldi bat egitea atentatu batean hildako SSetako kide bati, eta karrika bati haren izena ematea. Eskandalu bat litzateke. Europan herrialde demokratiko bakar batek ere ez luke halakorik onartuko».

«DEMOKRAZIA EZARRI ZEN, BAINA TERRORISMOA EZ ZEN DESAGERTU...»

11 GALDERA LABUR

ANE APEZETXEA ETXEBERRIA GOIZUETAKO GAZTEA

«Ez naiz damutzen Euskal Ikasketak hasi izanaz»

Nola definituko zenuke zeure burua?
Ez zait gustatzen nire burua definitzea, baina zerbit esatekotan, alaia eta berritsua naizela esanen nuke.
Zein dira zure zaletasunak?
Ttikitatik izan dut musikarekiko zaletasuna, pianoa jotzen eta euskal dantzetan hasi nintzenetik. Parrandazalea ere banaiz.
Zein ikasketa egiten ari zara?
Euskal Ikasketak egiten ari naiz Gasteizein, 3. urtean.
Zergatik Euskal Ikasketak?
Bigarren batxilergoan ez nuen batere argi zer egin nahi nuen. Magisteritzako gradua interesgarria iruditzen zitzaidan, baina azkenean Euskal Ikasketak egiteko nahia suertatu zitzaidan.
Espero zenuena da?
Ez naiz damutzen. Gure hizkuntzaren inguruko hainbat ezagutza neureganatu ditut; batzuk interesgarriak iruditzen zitzaizkidanak, beste batzuk ez hainbeste, eta beste batzuk ez nuke inoiz pentsatuko interesgarriak izan zitezkeenik.
Goizuetatik Gasteizera, alde handia?
Begibistakoa da. Herritik hirira bakarrik joatea zen nire beldur handienetakoa hasieran, baina atzera begira, mesede egin zidan, inguruarekin gehiago harremantzeko. Klasekideekin eta ezagutu ditudan lagunekin zorte handia izan dut. Etxetik alde eginda, askatasun puntu bat ere lortzen duzu.
Noiz sartu zinen bertsoen munduan?
Gasteizera etortzean inguru arrunt bertsozalea nuen, eta ni ere hurbiltzen hasi nintzen.
Zer nahiago duzu, bertsolari edo gai-jartzaile?
Ez naiz inoiz bertsolari lanetan ibili. Alabaina, gure aitona bertsozale amorratua zen eta bere 97. urtebetetzerako hainbat bertso prestatu nizkion. Gasteizein ere bertso eskolan izena eman nuen. Bestalde, gai-jartzaile izateko lehen aukera Leire Retegirekin azaroaren 11n antolatu genuen bertso saio musikatuan izan nuen. Denetarik probatu behar da, ezta?
Nola ikusten duzu emakumeen egoera bertsolaritzan?
Eremu tradizional batean kokatzen den heinean, betidanik lotu izan da gizonekin, baina lotura hori desegiten ari da, nahiz eta oraindik bide luzea dagoen.
Zure asmoak epe motzera?
Momentuz gustura nago karreran, etxean eta lagunekin.
Eta epe luzera?
Batek daki.



IRAKURLEAK MINTZO

Urriaren 8an bertan izan ginen, urtarrilaren 7an ere bertan izango gara!

MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA
NAFARROAKO SARE

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu eta zorionak! Zorionak Nafarroa. Batetik, urte hauetan guztietan euskal presoen euskal herriratzea egia bihurtzen hasi dadin egindako lan guztiagatik, eta bestetik, Sarek antolatutako ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeagatik. Zuei esker iritsi gara honaino.

Urriaren 8an Donostian, milaka eta milaka herritar batu ginen Izan Bidea dinamikaren baitako azken kilometroak osatu eta eginiko bideak ekarritako lorpenak balioan jartzeko. Nafarroatik ere, dozenaka lagun gerturatu ginen lehenik Donostiako kaleak koloreztatzera eta ondoren Ilunbeko jaialdira. Aldarria eta festa batuz, bultzada itzela eman genion guztion artean aurrera begira egiteko dugun bideari.

Orain, erronka berri baten aurrean gaude! Urriaren 8an bildutako indarrak hartu eta urtarrilaren 7ra begira jarriak gara. Izan ere, urte garrantzitsu baten hasieran kokatzen da aurtengo urtarrileko mobilizazioa; euskal presoen gehiengo zabala Euskal Herrian delarik amaituko dugu urtea. Egoera berri honek poza sorrarazten digu eta baita, herri aktibazioaren eta kale aldarrikapenaren garrantzia eta balioa erakutsi ere. Horregatik, eta oraindik bidea egiteko geratzen zaigulako, urtarrilaren 7an Bilbon izatera gonbidatu nahi ditugu nafar herritar guztiak.

Bi urteren ostean, aurten berriro ere Bilbon elkartuko gara guztiok, oraindik ere bidea baitugu egiteko. Euskal herriratzeak urrats garrantzitsua izan arren, euskal presoek oraindik ere etxeratze prozesua gauzatzeko traba eta oztopo ugari jasaten dituzte salbuespen legediaren ondorioz. Horren adibide dira gradu progresioen aurrean fiskaltza eta Audientzia Nazionala izaten ari diren jarrera atzerakoia. Hori hala, lanean jarraitzeko beharra ezinbestekoa dela uste dugu, euskal presoek ere dagokien etxeratze prozesua normaltasunez gauzatzeko unea baita.

Erronka berri honi guztiok batera ekin nahi diogu eta Nafarroan ere horretarako lanean jarraituko dugu datozen aste eta hilabeteetan. Gutun honen bitartez, nafar guztioi gurekin bat egin eta herrialde osoan antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu, eta, nola ez, urtarrilaren 7an Bilboko kaleak betetzeko gonbita luzatu.

Milesker eta animo, lortuko dugu!

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

info@ttipi.eus

948 63 54 58

BOTA BERTSOA

UNAX AIZPURUA IBARGARAI
SARAKO BERTSOLARIA

Klima aldaketa

Doinua: Gaztalondo handian

Klima aldaketa hartu
behar gure kargu
gaur berriz egin ditu
berrogei gradu!
Usaiak moldatzeko
beharra daukagu
autoetan sobera
ibiltzen gara gu
glaziarrak galdu
suteak ugaldu
hemen nor da salbu?
Soluzioa al du?
Hala balitz gabiltza
oso berandu. (bis)

Guk hantxe botatako
plastika tarteko
arrainak itsasoan
dira trantzeko
naturari ez diogu
aski errespeto
gu onak gira mundu
osoa galtzeko
geldi gaiten seko
ta has jadaneko
egin gabe peto
jokatzen hobeto
seme-alabei mundu
on bat uzteko. (bis)

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoa dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*'Gazterik sentitzen naiz' ala 'Gazte sentitzen naiz'?

Euskaltzaindiak dioen bezala, *gazte* hitzak ñabardura bereziko esapideak ditu. Horietako bat *gazterik* (gazte izanik, gazte zela(rik)) da. Denbora adierazten du: gazterik hil zen, gazte-gazterik alargundua da... Hori dela eta, ***gazterik sentitzen naiz*** (denborazkoa) ez dago ongi; *gazte sentitzen naiz* behar du (moduzkoa, nola).

Kalko ustelak

***Txirrina ukitu?** Ez, faborez.

Badira aski kalko ustelak, eta hauxe ere hala da. Ez da egokia gaztelaniazko *Tocar el timbre* esapidea euskaraz ****txirrina ukitu*** erratea. Euskaraz txirrina jo egiten da, edo kanpaia jo, ezkila jo, danborra jo, txistua jo...

Zein da zuzena

*'Lehenxeago' ala 'lehentxeago'?

Lehentxeago da zuzena. *-xe* atzizkia/artizkia *-txe* bilakatzen da normalean *n edo r* kontsonanteen ondotik: lehentxeago, hortxe, oraintxe... Bokal ondotik, berriz, xe da: hauxe, horixe, geroxeago...

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

info@ttipi.eus

744 48 43 61

Hizki zopa

Bilatu gaztainarekin lotura duten hamar hitz.

E	M	U	A	D	L	T	K	G	S	J
H	O	U	M	Z	H	X	T	A	O	G
D	M	E	P	V	N	E	T	Z	K	A
A	A	O	R	R	H	R	I	T	I	Z
N	T	M	C	R	P	T	N	A	M	T
B	X	O	W	R	E	A	T	I	A	A
O	A	R	M	I	X	K	A	N	K	I
L	R	K	E	N	C	E	E	O	E	N
I	D	O	N	W	A	T	E	N	T	A
N	A	T	T	D	V	A	W	D	A	D
A	T	S	U	V	U	R	I	O	D	I

-Asmatu al zenuen 816. aldizkariko erran zaharra? Erantzuna: **Gero da bero.**

Indarkeria matxistaren kontrako oihua

Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna dela eta, eskualdeko talde feministetako hainbat kideren iritziak bildu du Ttipi-Ttapak, baita genero indarkeriari lotuta izan diren salaketa kopurua ere. Iaz garai berean baino hamabi salaketa gehiago aurkeztu dituzte aurten

G. PIKABEA

Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta aurten ere mobilizaziorako eguna izanen da, indarkeria matxistarik gabe bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko eguna. Ez baita desagertu. Pandemia garaiko gailurra jo gabe, baina urtetik urtera goiti doa eskualdean indarkeria matxistengatik aurkeztutako salaketa kopurua. Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalak Ttipi-Ttapari emandako datuak dira horren erakusle. Konparazio batera, joan den urtean, ilbeltzetik abendura 20 salaketa aurkeztu zituzten Ttipi-Ttaparen eremuan. Aurten, irailera arteko datuak kontuan hartuz, dagoeneko gainditua da kopurua: 25 salaketa izan dira, iaz garai berean baino hamabi salaketa gehiago.

Erasotzaile gehienak 30-49 urtekoak

Aurten aurkeztutako 25 salaketa horien artean, hamahirutan erasotzaileak 30 eta 49 urte bitartekoak izan dira; 18 eta 29 urte bitartekoei sei eraso egin izana leporatu diete; 17 urtez azpikoek egindako erasoak hiru izan dira; 65 urtetik goitikoenak bi eta 50 eta 64 urte bitartekoena bakarra.

Bereziki eraso fisikoak eta psikikoak

Salaketa erdietan baino gehiagotan biktimek eraso fisikoak eta psikikoak, biak, izan dituztela adierazi dute, zehazki, 25 salaketetatik hamahirutan gertatu da hori. Sexu eraso kopurua ere ez da nolanahikoa, sei salaketa izan baitira. Eraso psikikoa sufritu izana hiruk salatu dute; bertzelako bi eraso ere izan dira eta urruntze agindua urratzeagatik salaketa bat aurkeztu dute.

Eraso gehienak bikotekide ohiek egindakoak

25 kasuetatik hamarretan erasoak bikotekide ohiek egindakoak izan dira, eta bertze zortzi momentuko bikotekideek egindakoak. Familiakoengandik erasoa izan duten bortz salaketa ere izan dira. Erasotzaileak eta biktimak harremanik ez zutenen arteko salaketa bat ere izan da eta bertze bat bertzelako harremanen bat zutenen artean.

Biktima gazteak

Salaketa aurkeztu dutenen adinari erreparatuz, 25etik hamalau 30 eta 49 urte bitartekoek aurkeztutakoak izan dira. 18 eta 29 urte bitartekoek zazpi salaketa egin dituzte eta 17 urtez beheitikoen salaketa kopurua ere aipatzekoa da: lau dira.

Indarkeria matxistaren gaia erdigunean paratuz, eskualdeko talde feministengana jo du Ttipi-Ttapak eta zortzi taldetako kideek erantzun diote Ttipi-Ttaparen deiari: Xaretako Feministak taldeko Aline Oronoz saratarrak, Goldatz Berako talde feministako Ines Matxiarenak, Arantzako Talde Feministako Maddi Larraldek, Goizuetako Emakume Taldeko Larraitz Mendizurik, Baztan Iñarrosi talde feministako Uxue Mugirok, Etxalarko Talde Feministako Miren Olaetxeak, Xulufrinak Lesakako Sare Feministako Leire Pastorrek eta Lañaidek Leitzako neska* gazteen taldeko Ainara Saralegik. Gaiaren inguruko kontzientzia, indarkeria matxistaren iceberga eta alderdi ikusezina, ziztadak, etorkizuneko erronkak eta bertze hainbat kontu atera dituzte mahai gainera. Denak bat datoz oraindik egiteko aunitz dagoela erraterakoan.

Azaroaren 25erako prest

Lerro hauek idazterakoan herri guzietan ez zuten egitaraua lotua, eta hortaz, ez dira denak ageri.

Azaroaren 14tik 28ra

• Erakusketa, *Bakegintza Feministaren 100 urte* Elizondoko Lanbide Eskolan.

Azaroaren 17a

• Ahalduntze tailerra Lesakan. 18:00etan Koskontako Bideko Aretoan. Izena: *berdintasuna@bortziriakberd.eus* edo 722 69 30 78.

Azaroan hiru egunez

• Genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zerbitzuaren aurkezpenak: azaroaren 23an Elizondoko Osasun Etxean profesionalendako, 24an Lekarozko institutuan eta 28an Elizondoko Lanbide Eskolan.

Azaroaren 24an

• Berdinzinema, indarkeria matxista ikusarazteko dokumentala, 18:00etan Elizondoko Arizkunenean.

Azaroaren 25a

• Bortzirietako udalek deituta elkarretaratzea 12:00etan Igantzin.
• Elkarretaratzea 12:00etan Donezteben.
• Baztango Udalak deituta elkarretaratzea 12:00etan Elizondoko plazan.
• Bortzirietako talde feministek deituta mobilizazioa 19:00etan Etxalarren.
• Alarma Morea taldearen kontzertua Goizuetako gaztetxean.

Azaroaren 25a eta 30a

• Eraso sexistei aurre egiteko saioak Berako institutuko ikasleekin.

Azaroaren 26a

• *Eraso matxistei lotutako egoerak ulertzen* saioa Berako Beralandetan, 11:30ean. Izena: *berdintasuna@bortziriakberd.eus* edo 722 69 30 78.

Azaroaren 27a

• Indarkeria matxista jasan zuten 28 emakumeren bizitza-istorioei buruzko antzerki-bizipena Iruritako Gizarte Bilgunean, 17:30ean, 18:30ean eta 19:30ean. Izena: 948 58 12 79.

Genero indarkeriaren salaketak eskualdean

UDALERRIA	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022*	GUZTIRA
BAZTAN	10	1	1	5	4	5	8	6	8	10	3	6*	67
LEITZA	2	2	1	2	5	1	2	2	4	4	0	1*	26
LESAKA	1	5	0	0	2	3	0	1	2	6	1	2*	23
BERA	0	1	2	1	1	2	1	0	2	3	8	10*	31
DONEZTEBE	0	3	0	0	1	0	1	0	3	7	3	2*	20
BERTIZARANA	0	1	2	1	0	1	0	1	0	1	3	1*	11
URDAZUBI	2	0	0	0	1	1	1	1	0	0	1	0*	7
GOIZUETA	0	0	0	0	0	1	1	1	0	0	0	0*	3
ETXALAR	0	0	0	0	0	0	0	0	1	2	1	3*	7
ARANO	0	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0	0*	2
GUZTIRA	**15**	**13**	**7**	**9**	**14**	**15**	**14**	**12**	**20**	**33**	**20**	**25***	**197**

*OHARRA: 2022KO DATUAK IRAILERA BITARTEKOAK DIRA. ITURRIA: NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA / EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ATALA.

«Gure lanketen antzera, indarkeria matxistak ere aurrera jarraitzen du»

AINARA SARALEGI LAÑAIDEK LEITZAKO NESKA* GAZTEEN TALDEA

Ainara Saralegi Sagastibeltza.

Aurtengo azaroaren 25ean, zaintzen inguruan jarri nahi du arreta Lañaidek. Ainara Saralegiren hitzetan, «zaintzek gauza ugari biltzen dituztelako, eta errotik eraldatzea denbora luzeko lana delako». Egun «garrantzitsua» iruditzen zaio, baina «batzuetan behar bezainbesteko garrantzirik ez duena. Foko asko egon ohi dira martxoaren 8an, baina azaroaren 25ak batzuetan ez du beharko lukeen ikusgarritasunik». Egoera aztertuz, «aurrerapauso ugari eman direla ukaezina» delakoan dago: «geroz eta ikusgarritasun gehiago dute eraso matxistek, sexistek, arrazistek, LGTBQfoboek…». Sentsibilizazio «gehiago» sumatzen du, baina «aurretik bide luzea» ikusten du eta «ezinbestekotzat» jo du «sentsibilizatzen eta kontzientziatzen, espazio seguruak eraikitzen eta gure artean ehuntzen jarraitzea…». Indarkeria matxistaren icebergarena «ohiko irudi» bilakatu izana ere txalotu du: «Duela ez hainbeste urte arruntak ziren jarrerak onartezinak bilakatu dira». Hala ere, «gure lanketaren antzera, indarkeria matxistak aurrera jarraitzen du. Beste indarkeria formatuak sortu dira». Horregatik, «etengabe berriskupen lanak» egitearen beharraz aritu da. Arazoak «ultraeskuinaren gorakadarekin zerikusia» duela dio, «batez ere beraien jarrera matxistek eta gezurrak zabaltzeak feminismoa gizonen kontrako eraso zuzentzat identifikatzea bultzatzen baitute». Horren aurrean, «gure egin behar ditugu espazio guztiak, jarrera matxistak eta sexistak identifikatu, salatu eta eraldatu». Garbi du: «feminismoa da gure irtenbidea, gizarte honetako salbazioa. Etorkizunak feminista izan behar du».

«Kolpea ikustea errazagoa da baina ordura artekoa identifikatu behar da»

LEIRE PASTOR XULUFRINAK LESAKAKO SARE FEMINISTA



Leire Pastor Ordoki.

Azaroaren 25ari begira Bortzirietako talde feministek aukeratu duten *Karrikan uso, etxean otso; indarkeria matxistarik ez!* leloak «hagitz ongi adierazten du arazoa» Leire Pastorren ustez; «alegia, emakumeoi eraso egiten diguten gizonak gehienetan gure hurbilekoak direla: senarra, bikotekidea, semea, laguna…». Indarkeriaren «alde ikusezina» azaleratu nahi dute, baita «erasotzailea zuritzeko joera» ere. «Aunitzetan, erasotzaileez solasean 'hagitz jatorra zen' eta 'gaizki zegoen' bezalakoak erraten dira. Erasoak kasu isolatu gisa ulertzen ditugu, baina ez dira bakanak. Gizarte matxista baten ondorio dira, eta ondorioz, ohikoa da aunitzetan zigortu gabe gelditzea». Lesakarrak «eraso larrienen aitzinean tolerantzia guttiago eta gizartean gaiaz gero eta ezagutza gehiago» nabaritzen du. Halere, «sakonean eta oinarrian dauden jarrera matxistak oraindik hor daude eta gizonek eta emakumeok normalizatzen ditugu». Indarkeria matxistaren icebergaren «azpikaldea identifikatzea zaila» dela gaineratu du: «egunerokoan eta kulturan normalizatuak ditugun jarrerak, keinuak eta hitzak direlako». Horiek identifikatzea «garrantzitsutzat» jo du, «indarkeria graduala izaten baita: indarkeria psikologikotik hasiz, biolentzia fisikoa eragin arte. Kolpe bat ikustea errazagoa da, baina ordura artekoa ere identifikatu eta garaiz gelditzea beharrezkoa da». Horrez gain, «indarkeriaren zikloak eta horri aurre egiteko existitzen diren baliabideak ongi ezagutzearen beharra» aipatu du. «Gure artean instituzioetan gabeziak detektatu ditugu eta hori hobetzen saiatuko gara, baita hobetzeko eskatu ere».

«Ezinbertzekoa da egitura ekonomiko, politiko eta soziala moldatzea»

MIREN OLAETXEA ETXALARKO TALDE FEMINISTA

Miren Olaetxea Indaburu.

Bortzirietako talde feministek hautatu duten *Karrikan uso, etxean otso* leloa ekarri du mahai gainera Miren Olaetxeak ere, Etxalarko Talde feministak ere horretan jarri nahi duelako arreta, «aunitzetan etxe barrenean jarrera matxistak gehiago ikusten direlako». Bere ustez, «bizitza publikoan eta eremu pribatu batzuetan indarkeria matxistaren gaiak tabu izaterari utzi dio eta salaketak dira horren isla». Baina «gai zaila» dela onartu du: «gutako bakoitzak gure inguruaren kritika egin eta horren erantzukizuna hartzeko gogoeta prozesu sakona egin behar dugu eta horrek ausardia eskatzen du». Indarkeria matxistaren icebergak «gaia hagitz ongi islatzen» duela dio; «ez da erraza ur azpian dauden gai guztiak ikustea». Nabarmendu duenez, «indarkeria matxista mendeetan errotuta dago eta gaiari buruzko kontzientzia soziala gehiago indartzea ezinbertzekoa da. Segur aski erasoak edo erailketak izanen dira gizarteak indarkeria matxista definitzeko modu orokorra, baina horren azpitik icebergaren masa guztia dago». Hala, arazoa «gizartearen egituran» ikusten du, «baita gure hezkuntzan eta elkarren arteko harremanak ulertzeko moduan ere. Sistema patriarkalean bizi gara eta nahiz eta legediaren aitzinean gizon-emakumeen arteko eskubide saila berdindu diren, oraindik badira aldatu beharrekoak». Horretarako «ezinbertzekoa» iruditzen zaio «gizonen eta emakumeen natura ulertzea eta hori errespetatuz, orain daukagun egitura ekonomiko, politiko eta soziala moldatzea».

«Indarkeria matxistari aurre egiteko emakumeon* sarea sortu behar dugu»

UXUE MUGIRO BAZTAN IÑARROSI TALDE FEMINISTA

Uxue Mugiro arizkundarra.

Baztan Iñarrosi taldean argi dute «egunero egin behar dela indarkeria matxistaren kontra, egunerokoan dagoelako, ez azaroaren 25ean bakarrik». Halere, Uxue Mugirorendako «salaketarako egun berezia» da, «urte osoan pasatutakoaz hausnartzeko» aproposa. Aurten Baztango mugimendu feministak zibererasoen gaia hartu du esku artean, «sare sozialak gizartearen isla direlako, eta bertan ere indarkeria dagoelako. Indarkeria hori jasaten dugunak emakumeak, batez ere gazteak, eta LGTB komunitatekoak gara». Gaiaren inguruko «kontzientzia gehiago» nabaritzen du, «erasoen ehuneko ttiki bat bakarrik salatzen bada ere, aurrerapauso haundia eman da. Baina pauso bakoitza garaipen bat den arren, bide luzea dugu egiteko berdintasunean oinarritutako gizartea lortzeko». Horri lotuta, «azken aldian egindako bidea urratu nahi duten kontraerreakzioak» ekarri ditu gogora, «faxismoaren goititzearekin lotuta». Hala «inoiz baino garrantzitsuagoa» iruditzen zaio «berdintasunean sinesten dugunon batasuna mantentzea». Ziztadak, berriz, «emakumeen artean beldurra zabaltzeko metodo ezin hobea» direla uste du, eta «matxismoaren garaipen izugarritzat eta biolentzia ikaragarritzat» jo du. Gizartearen «egitura osoa ustelduta» dagoela eta, «hutsetik konponbidea sortzen hasteaz» aritu da eta garbi du: indarkeria matxistari aurre egiteko «emakumeon* arteko sareak sortzea da tresna nagusia». Hortaz egin du «gure artean zaindu eta babestesko» deia.

«Indarkeria matxistaz gehiago hitz egiteak ez du bere presentzia ahuldu»

LARRAITZ MENDIZURI GOIZUETAKO EMAKUME TALDEA

«Eraso basatienek hedabideetan isla edukitzeak ez du esan nahi jendarte kontzientziatuagoan bizi garenik». Halaxe dio Larraitz Mendizurik. «Ez dugu dirudien adina aurreratu. Indarkeria askotarikoa da eta bere horretan dirau. Kalean edo hedabideetan gehiago hitz egiteak ez du bere presentzia ahuldu». Azaroaren 25a sortu zeneko aldarriak ere «bere horretan» segitzen duela iritzita, «egun horretan hedabideek mugimendu feministari eskaintzen diguten arreta borrokari lotzeko deia egiteko baliatu beharko genukeela» uste du. Dioenez, «eraso bortitzenak ikusi eta identifikatzera iritsi gara», baina «indarkeriaren zati handienak itzalean» segitzen duela aipatu du: «biolentzia sinbolikoa eta kulturala ez dugu ikusten edo ez diogu daukan garrantzia aitortzen. Sistemikoa den biolentzia hori, egunero jasaten dugun hori, ez ikustea esanguratsua da. Naturalizatu egin dugu eta horrek itsutzen gaitu


Larraitz Mendizuri Arbelaitz.

erasoen aurrean». Arazo nagusia «gizartea egituratzen duen sistema» da bere hitzetan: «Indarkeria matxista sistema kapitalistari eta heteropatriarkalari eusten dion oinarrietako bat da, botere harremanak definitzen dituen ezinbesteko elementua». Hortaz adierazi du «bizi garen gizarte ereduan bertan dagoela arazoa» eta hori konpontzeko «hezkuntza» ikusten du «ezinbesteko tresna»; «ez da bakarra izanen, baina zutabe garrantzitsua da. Hezkuntza eraldaketa mugimendu horren parte izanen garen guztioi aplikatuta. Bakoitzak beretik desikasi, ikasi eta barneratu». Konponbidea «gu geu» omen gara: «Guk gorpuztu behar dugu aldaketa». Onartu du «bidea luzea» dela, «baina ari gara, eta horrek ere badu bere balioa. Ez dago beste alternatibarik. Lotu borrokari eta aurrera».

«Kontzientzia ez dago erabat hedatua hasierako erasoak ez direlako fisikoak»

MADDI LARRALDE ARANTZAKO TALDE FEMINISTA

«Beti atentzioa eman izan dit kolpeak hartu bitartean jendeak ez duela erreakzionatzen ikusteak, fisikoki eraso egitea indarkeriaren azken pausoa dela eta aitzineko pausoak hori bezain inportanteak edo inportanteagoak direla ez konturatzeak. Eta orain, indarkeria matxistaren erasoa hurbilean izan dugunean, oraindik kontzienteago naiz horretaz». Hala aitortu du Maddi Larraldek. Ez du kontzientzia «erabat hedatua» ikusten, hain zuzen, «hasierako eraso horiek ez direlako fisikoak». Gaineratu duenez, «berdintasuna adierazten ez duten eta indarkeria bultzatzen duten ekintza aunitz daude egunerokoan». Emakumeengan «kontzientzia haundiagotu» dela sumatu du, «nahiz eta lehenagotik pentsatu, orain gehiago azaleratzen dugu», baina «gauza aunitz daude oraindik egiteko». Ziztadak, berriz, «indarkeria matxistaren bertze metodotzat» izendatu ditu, «ahultasuna islatzeko modua, horrelako kasu batean

Maddi Larralde Apezetxea.

indarrik ez dugula, gizonezkoek baino gehiago dugula galtzeko edo erasoen beldur izan behar dugula erakusteko». Eta arazoa zein da? «Arazorik ez dagoela pentsatzea. Indarkeria murrizten nondik hasi pentsatzean galtzen gara». Berak «etxetik hastea» proposatu du, «banaka etxean ditugun gauza ttikiak aztertzen» hasiz: «etxean egunerokoan garbitzen duena nor den aztertuz, nor den kozinatzen edo bonbilla aldatzen duena…». Lehenbizi «norbere buruarekin solastatzeko» gonbita luzatu du, eta gero «etxeko kideekin elkarbanatzekoa». Eta hala, «pixkanaka pauso ttikiak» ematea izanen litzateke etorkizuneko erronka. Bide horretan, bertze bi dei ere egin ditu: «gaiaz naturaltasunez eta lasai solastatu ahal izatea» eta «belarriak irekitzea, aditzen jakitea».

«Kolektiboki antolatu behar dugu, banaka ez dugu arazoa konponduko»

INES MATXIARENA GOLDATZ BERAKO TALDE FEMINISTA



Ines Matxiarena Aldalur.

«Inguruan izan diren indarkeria kasuak ikusita, indarkeria horri elkarrekin aurre egiteko beharra sumatu dugu». Eta Goldatz Berako Talde Feministako Ines Matxiarenaren hitzetan, hori izan da «Bortzirietako talde feministak berriz elkartu» izanaren arrazoia. «Autodefentsa feminista eta Bortzirietako emakumeen saretzea» dute begiz joa. «Herritarren zati bat gero eta kontzientziatuagoa» nabaritzen dute Goldatzekoek, baina «oraindik ere egiteko lan haundia» ikusten dute. «Aunitzetan ez gara indarkeriak identifikatzeko gai. Jendartean oraindik irainak, mehatxuak, mespretxuak, txiste matxistak… Ez dira indarkeriatzat hartzen. Indarkeria mota aunitz daude, eta gehienetan fisikoa bakarrik ikusten dugu. Ikusten ez den indarkeriari izkin egiten diogu, egonen ez balitz bezala, eta hori arazo haundia dela uste dugu». Hain zuzen, horretarako «pedagogia gehiago» aldarrikatu dute. Beran izandako ziztada kasuak ere oroitarazi dituzte, baita «erantzun zabala eman zitzaiela» ere. Hortik haratago, ordea, ez dute zalantzarik: «beldurra zabaltzeko mekanismo gisa funtzionatu dute uda osoan, eta hori ere indarkeria matxista da». Guztiaren gibelean, «arazoa sistema patriarkala» dela diote, eta hori iraultzeko «kolektiboki antolatu behar dugula» adierazi dute; «banaka ez dugu konponduko». Ez hori bakarrik. «Gizonen erantzukizuna» ere agerian utzi dute: «hasteko, beraien pribilegioak zalantzan jarriz…». Handik eta hemendik eraginez, erronka hauxe: «euskal herri feminista bat eraikitzea».

«Guk ere eskubide guztiak ditugula erakutsi nahi diogu munduari»

ALINE ORONOZ XARETAKO FEMINISTAK

Aline Oronoz saratarra.

«Jendeak ez daki zer den matxismoa» eta hori da Aline Oronozentzat «arazorik haundiena»: «Gizonek uste dute ez direla matxistak, baina denok ditugu inguru hurbilean matxistak. Badira emakumea lagundu nahi duten gizonak. Baina nola lagundu? Zuk ere egin behar duzu nik egiten dudana!». Gaiaz «kontzientzia gehixeago» sumatzen badu ere, «noraino ailegatzen da kontzientzia? Emakumeok ere ez dakigu!». Horrek kezkatzen du: «Lehenago gizonak emakumea jotzea hartzen zen indarkeria matxistatzat, orain baita gizonak emakumeari gaizki solas egitea ere, baina jendea ez da ohartzen zenbat detaile ttiki dauden». Adibideak aipatu ditu: «jatetxeetan gizonak umea besoetan izan eta platerak ailegatzean umea amarengana joatea, emakumeak mahai bat atxikitzeko jatetxera deitu eta gizonen izena ematea, lan bera egiteagatik emakumeek gutiago kobratzea...». Hortaz gaitzetsi du «indarkeria matxistaren alderdi ikusezina»: «Icebergaren gainekoa iduriz hobekiago dago, baina azpikoa itsusi dago». Ez hori bakarrik: «Internetarekin egoera makurtu da». Hala, «kontzientzia haurrekin eskoletan lantzen hastearen» garrantzia nabarmendu du, baita «mintzatzeko manera aldatzeko» deia egin ere: «maskulinoan solastatzeko joera hedatua da». Dioenez, «herri ttikietan feminista bat ez da ongi ikusia», baina argi du «borroka feminista» dela bidea: «Gizonen askatasuna izateko borrokatu behar izatea ikaragarria da, baina guk ere eskubide guztiak ditugula erakutsi nahi diogu munduari».

Proiektuaren egileak eta bi herrietako alkateak aurkezpenean. WIKIMEDIA

Intzolako Bidea eta Mandobidea lanak aurkeztu dituzte

Urriaren 30ean egin zituzten bi proiektuen aurkezpenak, eta herritar andana bildu zen bai batean eta bai bertzean

TTIPI-TTAPA

Irailean esleitu zituzten Berako eta Urruñako udalek Bideak proiektuko bekak, eta horien bidez egindako lanak aurkeztu zituzten urriaren 30ean. Goizean Asier Gogortza beratarrak eta Hodei Barroso urruñarrak prestatutako Intzolako Bidea proiektua eta arratsaldean, Berako Javier, Iciar eta Feliciano Mikelperizenak eta Urruñako Joseba Aurkenerena idazleak landutako Mandobidea eta gaueko lanean ibili zirenei eskainitako eskultura.

Intzolako Bidean Hodei Barrosok idatzitako bertso batzuk, puntuz puntu, egurrezko panel batzuetan idatzi eta bideko zuhaitzetan zintzilikatu dituzte. Bidea egiten den neurrian, bertsoa osatzen doa. Beratik abiatzen denak zentzu bat emanen die eta Urruñatik abiatzen denak bertze bat.

Gau lana oroitzeko eskultura

Arratsaldean, aldiz, Mandobidea proiektua aurkeztu zuten. Gaueko lanetan ibili zirenen omenez egindako eskulturaren inaugurazioa egin zuten Berako Iciar, Javier eta Feliciano Mikelperizenak, eta Urruñako Joseba Aurkenerena idazleak. Eskultura «gaueko lanean ibili zirenei» eskainia dago eta euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez idatzitako oroigarrian ageri denez, «mendi inguru hauetan gau eta egun, karga bizkarrean, bizia arriskuan jarririk, ibili zirenen oroitzapenez» egina da. Eskulturaz gain, Aurkenerenaren eskuizkribuak gau lanaren inguruko istorioak biltzen ditu, Feliciano-ren testigantzan oinarritua. Eskuizkribuaren nondik norakoak aletu zituzten, eta gau lanean erabiltzen zen *paketea* nolakoa zen ere erakutsi zuten.

Urruñako eta Berako udalek antolatu dute ekimena, eta

Erraldoiak auzolanean moldatu nahi dituzte

Erraldoi zaharrak bazter batean ahantziak direla eta zaharberritzeko asmoz, udalarekin solas egin du talde batek eta zaharberritzeko prest daude. Auzolanean aritzeko lan talde bat sortu nahirik dabiltza eta hori osatzeko bilera eginen dute azaroaren 24an, ortzegunean 20:30ean suhiltzaileen parkean. Kartoi-harria nola lantzen den ere ikasiko dute. Bilera adin guztietako jendearentzat irekia izanen da, baita haurrentzat ere. Norbaitek bilerara azaldu ezin badu, 627 141 627 zenbakira dei dezake.

Kinto besta ospatuko dute hilaren 26an

Pandemia aitzinetik, indarra hartzen ari zen besta zen kinto bestarena. Bi urtez egin gabe egon ondotik, aurten berriz ere ospatuko dute hilaren 26an. Goizeko poteoaren ondotik bazkariak izanen dira, eta arratsaldean txarangak alaituko ditu karrikak.

Erretiroa hartu du Maite Blanco eskolako irakasleak

40 urte eman ditu Blancok Ricardo Baroja eskolako irakasle gisa

TTIPI-TTAPA

«Maite Blanco Ayerdi, mila esker bihotz-bihotzez». Horrelaxe kantatu zioten Maite Blanco irakasleari Berako Ricardo Barojako ikasle, lankide, lankide ohi eta eskolara hurbildu ziren hainbat senidek, 40 urtez eskolan lanean aritu ondotik merezitako erretiroa hartzeko eguna ailegatu baitzaio.

Beratar anitz pasatu dira Maiteren altzotik eta beratar ainitzen irakaslea izan da, izan ere, Ricardo Baroja eskolaren sorkuntzatik aritu baita bertan lanean. Denera, 40 urte baino gehiago eman ditu irakasle gisa.

Hagitz pertsona maitatua da Blanco herrian. Eskolako kideek eskertza omenaldia prestatu zioten eta bertan eskerrak eman zizkioten egindako lan guztiarengatik:«Zugandik jaso dugun alaitasun eta zoriontasunarekin jarraituko dugu gainontzekook», nabarmendu zuten. Eskertza omenaldian Blancok ere hartu zuen hitza, eta erran zuen «beti eramanen duela Ricardo Baroja bihotzean».

UTZITAKOA

Mugalarren hitzarmena berritu dute

Urriaren 29an berritu zuten Berako, Azkaineko, Sarako, Etxalarko, Biriatuko eta Urruñako udalek mugalarren hitzarmena Lizuniagan. Sei herrietako alkateek hitzarmena sinatu zuten eta Xabier Erkizia soinu artistak eta Gure Txokoako dantzariek, txistulariek eta Bera Kantarik hartu zuten parte ekitaldian.

Elizako organoa zaharberritzeko lanen lehen fasean hasiak dira

Lesakako Roqués Organoaren Lagunen Elkartearen eskutik, elizako organoa zaharberritzeko lanen lehen fasean hasiak dira. Santo Domingo de la Calzadan tailerra duen eta honelako konponketetan aditua den Ruben Perez Iracheta musikologoak hartua du lanen ardura eta dagoeneko hasia da. Lan osoaren aurrekontua 90.000 eurokoa da eta, alde batetik, MECNAren bidez 40.000 euro eskuratuak ditu elkarteak eta Nafarroako Gobernuak ondarea zaharberritzeko 27.000 euroko dirulaguntza ere emanen du.

1892an egin zuten organo erromantikoa Roqués anaiek eta 1951. urtean sakon konpondu zuen Hernaniko Amezuak, erregistro berriak paratuz eta garaiko beharretara egokituz. Baina konponketa honetan ez zen material noblerik erabili eta bipien lana nabari da, batez ere moldaketa horietarako erabilitako piezetan eta zoritxarrez, bertzeetara ere hedatzen hasia da. Orain, moldaketa horretako puskarik gehienak kenduko zaizkio eta hasierako itxurara hurbilduko da. Gibeleko paretan ere moldaketak egiten ari dira, hezetasun arazoak konpontzeko.

Urri hondarrean hasia da instalazio berria lanean. UTZITAKOA

Frontoiko teilatuko eguzki-panelak lanean ari dira

102.175 euroko inbertsioa egin du udalak eta Nafarroako Gobernuak 40.000 euroko dirulaguntza eman du

AITOR AROTZENA

Eguzki-panelak paratu dituzte udal pilotalekuaren teilatuan. Horretarako 102.175,12 euroko inbertsioa egin du udalak eta Nafarroako Gobernuak 40.000 euroko dirulaguntza eman du (% 39,15). Instalazioa egiten joan den urtean hasi baziren ere, arazo administratiboengatik tramiteak luzatu eta urri hondarrera arte ezin izan dute martxan jarri. Azpiegitura berri honekin, gehien bat Oilartegi kiroldegia hornituko da, baina bertze udal eraikinetara ere ailegatuko da energia.

Inbertsio hau agudo amortizatzea espero du udalak, suhiltzaileen parkeko teilatuan paratutako eguzki-panelek Zahar Etxearen fakturan izan duten eragina oinarri hartuta. Urtarriletik irailera zahar etxeak 28.051,44 Kw kontsumitu ditu, 8.959,53 euroko gastuarekin, baina autokontsumo ordainsariarekin 8.231,95 euro aurreztu da eta autokontsumo konpentsazioaren bidez sortutako 24.016 Kw 5.009 eurotan saldu du udalak. Gasa doitzeko mekanismoak ekainetik irailera 1.558,18 euro gastatu du eta 1.423 euro aurreztu da.

'Hondamendia' antzezlana azaroaren 27an

Artedrama eta Axut! antzerki taldeen eskutik, Arkaitz Cano idazleak idatzi eta Ximun Fuchsek zuzendutako *Hondamendia* antzezlana ikusgai izanen da azaroaren 27an, igandean 18:00etan Harriondoan. Sarrerak 8 eurotan salgai daude udalaren webgunean.

Haur Txokoa astegunez irekia martxora bitarte

Berriz ere Haur Txokoa martxan paratuko du udalak komentuan, azaroaren 7tik martxoaren 31ra. Astelehenetik ortziralera, 16:00etatik 19:30era irekiko ditu ateak Haur Txokoak eta Arantzako Judith Etxeberria Telletxea da arduraduna eta dinamizatzailea.

Suizidioari buruzko solasaldia azaroaren 22an

Biziraun elkarteko Iratxe Etxenikeren eskutik suizidioaren prebentziorako solasaldia izanen da azaroaren 22an, asteartean 17:30ean Koskontako Bideko udal aretoan. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean eman daiteke izena azaroaren 16a arte.

LESAKAKO FERIAK

azaroak 23-24

BERRIZ ERE AZIENDA ONENAK PLAZAN LEHIATUKO DIRA

Lehengo lepotik burua. Lesakan azaroaren 23an eta 24an ospatuko dituzte Bortzirietako feriek ohiko itxura berreskuratuko dute aurten, azken bi urtetan behar den moduan ospatzeko aukerarik gabe izan ondotik. Asteazkenean, Merkatu Eguna, Lesakako trikitilarien kalejira eta Beti Gaztek antolatutako ajoarriero lehiaketa izanen dituzte arratsaldean.

Baina ortzeguneko feria eguna izanen da egun handia. Goizean lehiaketara aurkeztutako aziendak bilduko dira plaza inguruan. Eskulangileen lanak ere ikusgai eta erosgai izanen dira Beheko Plazan eta herri kirolek ere bere lekua izanen dute Plaza Zaharreko saio beti ikusgarrian. Julio Soto eta Oihana Iguaran ariko dira bertsotan kioskotik. Azienda lehiaketako sari banaketarekin bukatuko dira goizeko ospakizunak, baina bazkalondoan segida izanen du feria egunak. Pilota partidak izanen dira udal pilotalekuan eta dantzaldia izanen da Jeiki-Hadi taldearekin.

Eskatzen hasita, joan den urtean bertze gisa batera ospatu zen feria egunekoa baino eguraldi hobea eskatzen dute denek.

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitorpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 · 31700 ELIZONDO · T. 948 581 300 - F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1 · 31780 BERA · T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22 · 31740 DONEZTEBE · T. 948 450 395 · F. 948 451 304
Eltzeta, 20 · 31770 Lesaka · T. 948 638 077

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
Itturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklinika.es
@liderahortzklinika

Ferietan otordu goxoak prestatzeko...
suma
Plaza Berria, 10 - T. 948 637 335

AGORLEKU
ARDI GAZTA QUESO DE OVEJA
Izotzaldea auzoa 7,
AGORLEKU Baserria
31770 LESAKA
Tel.: 670 749 549

TALLERES FRAIN
LESAKA· Tel.: 948 637 525
Ongi pasa feriak!

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA FERIAK-
Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

TRANSPORTES IRIGOYEN
ONGI PASA FERIAK!
629 592 215 · Biurrana auzoa, 1 · LESAKA

XAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA
- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

IZARRA OKINDEGIA
ongi pasa feriak!
PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

SAN FERMIN OSTATUA
Ongi pasa feriak!
Plater konbinatuak
Eguneko menua
Asteburuko menua
Asteburuetan gaueko 12ak arte
Beheko plaza, 9 Lesaka
948 62 75 12

ZOANSA
SEAT Audi HYUNDAI
Ongi pasa feriak!
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA
Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
e-mail: zoansa@zoansa.com
Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE
feria alai eta
pozgarriak
izan ditzazuela
Plaza Zaharra • LESAKA • 948 63 72 87

«Zubiriak hauspotu zuen ferietako ilusioa bizirik mantentzen dute orain abeltzainek»

Mattin Etxabide - Lesakako zinegotzia

Azken bi urte berezien ondotik (2020an ez ziren ospatu eta iaz zenbait aldaketarekin egin ziren) Lesakako feriak normaltasunera bueltatuko dira. Mattin Etxabide, zinegotziaren erranetan, «aitzineko urtetako egitaraua berreskuratuko da aurten. Duela hiru urteko feriekin alderatuta bereziki nabarituko dugu Zubiriaren falta, ilusio haundiz ibili zen ferien antolakuntzan. Zorionez, berak hauspotu zuen ilusio hori nolabait bizirik mantentzen da abeltzainen artean. Feria eremua prestatzeko auzolan polita izaten da bezperan. Bere hutsunea dugu baina saiatuko gara berak zuen ilusioa mantentzen».

Aurten ere aldaketak

Joan den urtean Bittiriko aparkalekuan bildu ziren aziendak, bertsoak terrazatik bota ziren... Aurten berriz ere plaza zaharrera bilduko da egitaraurik gehiena, baina aurten ere aldaketak izanen direla aipatu digu Etxabidek: «Lehengo urteko ferietan dena kontran suertatu zen; azken momentura arte ez genekin ospa- tzen ahalko genituen, obrak zirela eta plaza ezin genuen ibili, eguraldi penagarria egin zuen... Baina denari buelta eman eta egun polita izan zen. Zuk erran bezala, lehengo urtean lekuak eskatuta aziendak antolatzeko moduan aldaketa batzuk egin genituen, batzuk hesituta jarri baitziren. Aldaketa hau onerako izan zela uste dugu (mendiko aziendak hobe moldatzen dira, eta hobe ikusten ahal dira), beraz, aurten plazara bueltatu arren, aukera eman nahi dugu azienda batzuk hesietan paratu ahal izateko, horretarako plaza ondoko aparkalekua erabiliko dugu, eta behiak lotzeko plazako pareta erabiliko dugu beti bezala, ohitura eta berrikuntza ttiki hori uztartuz».

Diru kontuei erreparatuz, ferietan guztira 15.000 euro inguru gastatzen dira» erran digu zinegotziak: «Lehengo urtean gastu nagusiak hauek izan ziren: Abeltzainen dieta eta sarietan 6.500 euro inguru gastatu ziren, musika emanaldiak 5.000 euro, ajoarriero lehiaketa 1.600 euro... Karrika saltzaileen postuengatik metro koadroko 14 euro inguru kobratzen dira, baina honekin ez dira gastuak kubritzen inondik inora».

«Azienden eremuaren aldaketak inbertsio koxkorra eskatu digu, hesiak erosi ditugu eta»

Gastu hauetaz gain lehen aipatutako azienden eremuaren aldaketak ere «inbertsio koxkorra eskatzen ari digu, hesiak erosi behar baititugu, lehengo urtean 25 erosi genituen eta aurten gehiago erosi beharko ditugu», dio.

Bilerak abeltzainekin

Joan den hilabetean udalak bilera egin du ferietan parte hartzen duten abeltzainekin eta ferietarako gogotsu daudela sumatu du Etxabidek, «baina, bertzeak bertze, aipatu ziguten, Bortzirietako feriak izaki, bertze herriekin elkarlana bultzatu beharko genukeela feria indartzeko. Feria asteburura pa-

satzeko eskaria ere egin zuten batzuk, gaur egun gehienek bertze ogibide bat dute eta endredo dexente da ortzegunez azienda ekartzea».

Aitzinetik azpiegituren inguruan ere arituak dira Lesakako baserritarrekin, horretan ere lanean ari baita udala. «Udalean sartu ginenean –dio Mattin Etxabidek– Lesakako bazkalekuetan aziendek ura izatea bermatu nahi genuen, eta horretarako ahal zela suteetarako ere erabilgarri izanen ziren ur depositoak jartzea, eta helburu horrekin inbertsio potenteak egin ditugu, eta balorazio hagitz ona egiten dugu. Paratutako askak ederki probexten baitituzte mendiko aziendek. Korrale berri bat ere egin genuen Elutsan, eta bertze bi egiteko asmoa dugu bat Xokobin eta bertzea Agina inguruan, Banartan kanadiar pasabide bat jartzeko asmoa ere badugu.

Larre batzuk ere desbrozatu ditugu (Artikutzako muga ingurua, Urtixelai, Eskolamendin, Beltzau, Agiña...). Bideak moldatzen ere diru dexente joaten da, bereziki azken urtean izan ditugun euriteekin. Batzuen ustez ez da nahikoa, baina dauzkagun baliabideekin nik uste poliki poliki ari garela gauzak egiten».

Etorkizunarekin itxaropentsu

Lesakako baserrien egoera ez dago bere onenean eta gutti dira baserritik bizi direnak, baina itxaropentsu ageri da, halere, Etxabide: «Lehen baserritik bizi zirenak gehienak jubilatzen joan dira, hala ere abeltzain dezente ditugu herrian eta generazio aldaketa eman da, gehienak bertze ogibide bat dute baina badira abeltzaintzatik bizitzeko apostua egin dutenak, nik dakidala Otsunea, Agorleku eta Lantxaran baserrietan abeltzaintzatik bizitzeko apostua egin dute. Gazta eta haragia merkaturatzen dituzte. Espero dugu hiru proiektuak aitzinera ateratzea eta bertzeren bat gehiago animatzen bada ere ongietorria izanen da».

LESAKAKO FERIAK 2022

Nafarroako errege-erreginek 1499. urtean emandako feria eskumena.

AZAROAK 23

18:00 **LESAKAKO TRIKITIXA KALEJIRA**
18:00 **AJOARRIERO LEHIAKETA** Beheko Plazan

Feria eguna

AZAROAK 24

GOIZEAN **AZIENDA ERAKUSTALDIA** eta **ARTISAU ERAKUSKETA** Beheko Plazan
11:00 **HERRI KIROL ERAKUSTALDIA** Plaza Zaharrean
ONDOTIK **BERTSOLARIAK** Plaza Zaharrean (Oihana Iguaran eta Julio Soto)
ONDOTIK **AZIENDA LEHIAKETAREN SARI BANAKETA**
17:00 **PILOTA PARTIDAK** Udal Pilotalekuan
18:00 **DANTZALDIA** Plaza Zaharrean Jeiki-Hadi taldearekin

TRIKIPAND LESAKA · BORTZIRIETAKO ABELTZAINAK · BORTZIRITAKO BERTSO ESKOLA · LESAKA KIROL ELKARTEA · Pilotazaleen Elkartea ARKUPE · Lesakako Udala · LESAKA gara

Usategietako X. Gastronomia lehiaketan saritutakoak. LAURA ELIZAGOIEN

Usategietako X. gastronomia lehiaketa egin dute

Arantzako Burlada eta Zornotzako Jauregibarria jatetxeek lortu zuten urrezko paleta eta Elizondoko Santxotenak zilarrezkoa

IRUNE ELIZAGOIEN

Usategietako X. gastronomia lehiaketa egin zen azaroaren 4an. Iruñeko El bonito, Elizondoko Santxotena, Arantzako Burlada, Etxalarko Elutsa eta Zornotzako Jauregibarria (Michelin Izarra) jatetxeek hartu zuten parte. Zilarrezko paleta Santxotena jatetxeak irabazi zuen, berrikuntzaren paleta Jauregibarriak eta Urrezko paleta Burladak eta Jauregibarriak berdinduta.

Zozketa egiteko ere aprobetxatu zuten eta Arantzako Burlada jatetxeko Ibaik atera zituen zenbaki saridunak:

- 1. Saria (12 uso bizirik): 3.784 zk.
- 2. Saria (Otordua Hordago jatetxean): 3.777 zk.
- 3. Saria (Saskia): 3.789 zk.

Irabazleek 690 26 77 56 zenbakira deitu behar dute, hiru hilabete baino lehen.

Xiberoko ikastolen alde

Urtero bezala Xiberoko ikastolen aldeko saski salmenta abian da. Pettarra, Arbaila eta Basaburua saskiak aukera daitezke azaroaren 27a baino lehen, *ikastoli* webgunean. Etxalartarrek produktuak herrian jasotzeko aukera dute.

MARTXEL LARRAZA ETA AIMAR IPARRAGIRRE

Gau Beltza ospatu dute lehen aldiz

Lehenengo aldiz gau beltza ospatu da eta antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. 50 lagun baino gehiagok egin zuten ibilbide handia eta bertze horrenbertze haur eta gurasok ibilbide ttikia. Besta bukatzeko frontoian afaria izan zen, eta herriko etxeko arkupean *photocall*-a.

IRUNE ELIZAGOIEN

Bisita aunitz hilerrian

Azaroaren 1ean, Santu Guztien Egunaren karietara, jende aunitz ibili zen hilerrian, joandako senideak eta lagunak bisitatuz. Urteroko ohitura mantenduz, hilobiak lorez apainduak zeuden eta eguerdiko 12etan urtean honetan hildakoen oroimenez meza jendetsua ospatu zen.

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
K-STRETCH
Etorri eta probatu debalde!
San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN
Centro Prim regina tolosaechepare

JAIONE-GOXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

Joseba Aldabe eta Oian Canabal. UTZITAKO ARGAZKIA

Oian Canabal eta Joseba Aldabe munduko txapeldun

Eskuz binakako finala jokatu ez bazuten ere, Espainiako selekzioarekin lortu dute beraien garaipenik garrantzitsuena

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Lapurdin jokatutako Munduko pilota txapelketatik emaitza bikaina lortu dute Espainiako selekzioarekin aritu diren Igantziko pilotariek. Eskuz binaka frontoian, finala jokatu ez bazuten ere, urrezko domina lortu zuten Igantziko 24 urteko Oian Canabal Etxarte eta 26 urteko Joseba Aldabe Etxeberria pilotariek.

Noiz hasi zineten pilotan?

Oihan Canabal: 5 urterekin hasi nintzen Igantzin.

Joseba Aldabe: 8 urterekin Igantzin hasi nintzen eta ordutik Beran, Donezteben eta Iruñean jokatu dut.

Gaur egun zein mailatan jokatzen duzu? Eta zein enpresarekin?

OC: Afizionatu mailan senior mailan jokatzen dut. Ez dut enpresa batentzat jokatzen.

JA: Afizionatu mailan senior mailan jokatzen dut. Garfe enpresan ere jokatzen dut, orain dela lau urtetik gutxi gorabehera.

Pilotan aritzeaz gain, ikasi edo lan egiten duzu?

OC: Lehen hezkuntzako irakaslea izateko oposizioak prestatzen nabil.

JA: Lanean ari naiz, mantentze-lanetako enpresa batean.

Pilotari bezala zein da zure alderik onena?

OC: Tanto guztiak borrokatzen ditudala.

JA: Jokoa ongi irakurtzen dudala uste dut, momentu bakoitzean zer egin behar dudan ongi aukeratuz.

Sakrifizio haundia eskatzen du pilotak maila honetan?

OC: Bai, prestaketa tekniko eta fisiko haundia eskatzen du. Elikadura ere zaindu behar da. Aunitzetan nahiz eta lagunekin gustura egon etxera joan behar zara deskantsatzeko.

JA: Maila honetan pilotari guztiak prestatzen dira. Emaitza onak izan nahi badituzu lan aunitz egin behar da, bai teknikoki eta bai fisikoki prestatuz.

Nola ikusten duzu zure burua hemendik hamar urtera?

OC: Kirolari dagokionez pilotan jokatzen segitzea gustatuko litzaidake. Bertzalde, eskola batean lan egin nahiko nuke.

JA: Osasunak laguntzen badit pilotan edo frontoi kirol batean jokatzen segitu nahi nuke.

UTZITAKO ARGAZKIA

Euskaraldiarekin bat

Igantziarrok ere euskararen aldeko ariketa erraldoiarekin bat egin dugu. Berriki hainbat herritar bildu gara herriko itturrian Euskaraldiko herri argazkia ateratzeko. Orain, berehala hasiko den euskararen erabilera sustatzeko ariketa honetan parte hartzea bakarrik falta da.

Maitasun erromantikoa deseraikitzen

Azaroaren 25eko egunarekin lotuta Bortzirietako Berdintasun zerbitzuak hainbat ekintza antolatu ditu. Lehenbizikoa joan den azaroaren 11n Igantzin egin zuten etaa *Maitasun erromantikoa deseraikitzen* izan zuten solasgai. Idoia Lekuek eman zuen solasaldia.

Bide Berdean moldaketak Berrizaunen

Berrizaundik Sunbilla aldera-ko bide berdearen hasieran zatitxo batean moldaketa ttiki bat egin dute. Horretarako egun batzuz itxi zuten bidea. Gogoratu behar da joan den urteko abenduko uholdeek kalteak eragin zituztela bide berdean ere.

Ainhoa Altzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

AMA KONTXA
GASOLINDEGIA
· ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
· 24 ORDUKO ZERBITZUA
· TELEFONOA ETA FAXA
· APARKALEKUA
· KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
· SUPERMERKATUA
· LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
· ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA
GASOLIOA ETXERA
ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA
Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

Giro ederrean joan dira kultur egunak

Gisa aunitzetako ekitaldiekin gozatzeko aukera izan dute herritarrek

NEREA ALZURI

Kulturaldia bete-betea izan da. Aritz Ganboaren *Bideak* dokumentalarekin eta solasaldiarekin hasi ziren eta Baserritarren Egun arrakastatsuaren ondotik, azaroaren 4ko asteburuan Andres Iñigo euskaltzainak etxe izenei buruz solasaldi interesgarria eman zuen, haurrentzako antzerkia eta txokolate jatea ere izan ziren eta Aire Ahizpek kantaldi ederra eman zuten gorapean. Mus eta partxis txapelketekin borobildu zituzten herritarrek kultur egunak.

Baserritarren Eguna

Baserritarren Egunaren 26.edizioan, frontoia eta plaza inguru azoka bilakatu ziren hurbildu zirenen gozamenerako. Aziendak plazan ikus zitezkeen: behiak, ardiak, ahuntzak, ahariak... Frontoian, berriz, erakusketa eta salmenta postuak: barazkiak, fruituak, zerrikiak, gozokiak, sagardoa, taloak, eskulanak, egutegiak, kamisetak, jokoak... Herriko trikitilariek eta panderojoleek alaitu zuten goizeko azoka giroa eta pintxoak eta tragoxkak hartzeko modua ere izan zen eskolakoek paratutako ostatuan.

Ahari eta gazta lehiaketak ere egin zituzten. Gazta lehiaketan zortzi etxetako gaztak aurkeztu zituzten eta sariak Otsarrara, Seroren bordara eta Martineko bordara joan ziren, hurrenez hurren. Ahari lehiaketan, berriz, Antonio Iturriaren eta Leon Oskozen ahariak saritu zituzten.

Mus eta partxis txapelketak

Zortzi bikotek parte hartu zuten partxis txapelketan, eta Haizea Arenas eta Ainere Iguzkiagirre izan ziren txapeldun eta Saioa eta Ander Etxegarai anai-arrebak txapeldunorde. Mus txapelketan, berriz, lau bikote aritu ziren. Unai Iparragirre eta Xabi Gamon izan ziren garaile eta Maddalen Arenas eta Eneko Zulaika gelditu ziren txapeldunorde.

Kultur egunetako irudiak. MIKEL LARRETXEA, JOSE RAMON AMOROS ETA TTIPI-TTAPA

Arturo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

E D A R I A K
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Aranztarrak Euskaraldiarekin bat

Oraindik Euskaraldian izenik eman ez baduzu, hondarreko egunak dituzu. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra dozenaka Ahobizi, Belarriprest eta Arigunek bat eginen dugu euskararen erabilerari hauspoa emanez. Euskaraldiarekin bat eginez argazkia atera zuten herritarrek azaroaren 6an.

Martxel Rodriguezen talentu artistikoa bideora eramana

2021eko saria hartu zuen 'Esquicio' ikus-entzuneko bere lehen lana aurkeztu du koreografo lesakarrak

TTIPI-TTAPA

2021ean Talentu Artistikoaren Sustapenerako saria hartu zuen Martxel Rodriguez dantzari lesakarraren *Esquicio* proiektu artistikoa azaroaren 4an aurkeztu zuten Nafarroako Museoan.

Martxel Rodriguez eta Jon Lopezek, Led Silhouette dantza-konpainiako zuzendariek, El Estudioko Ana Escariorekin eta Adela Morenorekin lankidetzan egindako lehen bideo-sormen lana da *Esquicio*. Sorkuntza berriaren bidez, elkarrizketa bat sortu dute mugimenduan dauden gorputzen eta Nafarroako kultura-arloko eraikin enblematikoen artean.

Martxel Rodriguez aurkezpenean.

Martxel Rodriguezek azaldu duenez, proiektu honetan gorputzak «informazio-, nortasun-, pribilegio- edo zapalkuntza-edukiontzi» gisa ulertzen ditu. Gorputz horiek Nafarroako Gobernuaren eraikin enblematikoekin solas egiten dute, «dokumentu, informazio eta artelanen babesleku eta gordailu direlako, egunero gure gorputzak zeharkatzen dituztelako, gure orainaldi nahasi honetan gidatzen gaituen iparrorratza bezala». Rodriguezek dioenez, «gure gaztetasunetik eta gure karrerak garatzea tokatu zaigun testuinguruan, mendeetan erantzun ez diren galdera berberak ditugu. Eta lan honetan galdera horiek berriz ere plazaratzen ditugu, baina gaur egungo kode estetikoen iragazkiarekin».

'Erresistentzia' eskultura erakusketa Beran

Azken Muga eta Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarteak antolatuta *Erresistentzia!* eskultura erakusketa zabalik da Berako Armi galerian. Euskal Herriko 29 eskultoreren lanak bildu dituzte eta abenduaren 10a arte egonen da irekia. (11:00-13:30 eta 15:30-19:00.

Carlos Nuñezen Etxalarko kontzertua

Carlos Nuñez eta bere taldeak kontzertua eskainiko dute Etxalarko elizan azaroaren 27an, 19:30ean. Gonbidatu bereziak eta sorpresak izanen dira. Oraindik sarrera batzuk gelditzen dira; Etxalarko Kultur Etxean edota *www.ataquilla.com* helbidean.

Bortzirietako
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

JAKINARAZPENA

2022ko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak: Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak: Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2022ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2022ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.

Etxalar, 2022ko urriaren 25a
Lehendakaria,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

Euskal eduki sortzaile berrien kabia

“ARNASETIK” BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN LEHEN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO GAZTEEN ARTEAN.

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen arnasguneei bisita egin die “Arnasetik” bideosormen lehiaketak. Arnasguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendu zaie, bai eta arnasguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleei ere. Lehiaketaren lehen edizioa arrakastatsua izan da. Adinaren arabera hiru kategoria izan ditu lehiaketak, eta kategoria bakoitzean erronka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta arnasguneetako hizkuntza-ohiturei zein bizipenei lotuak.

10-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendu zaie.

99 lan jaso ditu epaimahaiak eta kalitatea azpimarratzekoa izan da.

Arnasa Gara ekimenak arnasguneetako gazteei esperientzia berriak eskaintzen jarraitzeko asmoa du.

Sari banaketa

Julen Portillo euskal eduki sortzailea izan zen gidaria, eta Sara Alonso musikariak hiru pieza eskaini zituen teklatuarekin. Julen Portillo zarauztarra da, eta Sara Alonso aramaioarra; biak euskaldun sortzaile dotoreak.

Arnasa Gara ekimena euskararen arnasguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrak ahalduntzeko helburuarekin jaio zen, UEMAk, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten “Arnasetik” sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnasguneetako gaztetxoenak izan ditu jomugan, haien hizkuntza ohituren inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan.

Info gehiago: **www.arnasagara.eus**

Lasterketaren aitzinetik dantza egin zuten. UTZITAKO ARGAZKIA

Minbiziaren aurkako XI. lasterketan dantzan eta korrika

Urriaren 30ean Iruñean egin zen ekitaldian parte hartu zuten herritarrek, bertze hainbat lagunekin batera

MAIDER PETRIRENA

Lehendik ere erakutsi dute herritarrek elkartasuna adieraztea zer den eta oraingoan ere ez dira guttiago izan. Urriaren 30ean burutu zen Iruñean Saray elkarteak antolatutako minbiziaren aurkako lasterketaren hamaikagarren edizioa eta hainbat herritarrek parte hartu zuten. Baina ez bakarrik korrika. Lasterketa baino lehen egin zen dantzaren koreografian ere parte hartu zuten, herrikoak ez ziren bertze zenbaitekin batera. Giro ederra paratu zuten, helburu bikain baterako.

Sarbideak aldatuko dira.

Herri sarreretan bi biribilgune

N-121Ako obretan herriko bi sarreretan biribilguneak egin dituzte. Obrak irauten duten artean bus geltokia, eliz atari ondoan izanen da.

AMAIA APEZETXEA

Eneit Bertiz enduron ere garaile

Urriko azken asteburuan 68 txirrindularik parte hartu zuten Igantziko Irrisarri Bike Enduro proban. Junior mailan garaile izan zen Katea Bike taldeko Eneit Bertiz Apezetzea herritarra (bosgarren izan zen sailkapen orokorrean). Baztandarra txirrindulari taldeko Unax Eraso hirugarren izan zen.

UTZITAKO ARGAZKIA

Bertiz-Juanenea familiari aitortza

Aitzinekoan aipatu bezala Bertiz-Juanenea familiak Bartzelonan ospatu zen MPS Zientzia-Familiaren Nazioarteko XVI. kongresuan parte hartu zuen. Kongresuan aitortza ere egin zitzaion familia honi, MPS elkartearekin aunitz inplikatu eta hainbat jarduera antolatzen baititu.

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com
Biniloak
Pareta eta erakusleihoetarako
Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatikoak, gardenak, jartzeko errazak...

Lizun
GAZTANDEGIA
IDIAZABAL
Sunbilla · Tel: 948 450 862

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Sentsibilizazio kanpaina egiten ari dira merkatariak

Herrian erosteak dituen onurak jendeari ezagutaraztea da kanpainaren helburua

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Merkatari eta Zerbitzu Elkartea sentsibilizazio kanpaina egiten ari da azaroan. Kanpainaren helburu nagusia da jendea ohartzea herrian erostean herria bizirik mantentzen laguntzen ari dela. «Bezeroak erosketa bat egiten duenean denda edo zerbitzu batean, diru hori ez da bakarrik denda gelditzen, baizik eta denden eta zerbitzuek diru horren parte bat ematen dute kolaborazio moduan herriko kirol eta kultur ekitaldi, ikastaro, ikusia feria... aitzinera ateratzen laguntzeko», nabarmendu dute elkarteko kideek.

Kanpainarako zazpi esaldi prestatu dituzte, eta esaldi horien bidez saiatu dira adierazten herrian erostean zertan laguntzen duen. «Herriko denda batean erosten ari zarenean ez zara denda hori bakarrik laguntzen ari, baizik eta zure herri eta inguruko hainbat gauzaren alde ari zarela».



Karteletako bat. UTZITAKOA

Denda bakoitzak prestatutako esaldi horietako bat izanen du erakusleihoan astero, eta horiek aldatzen joanen dira. Gainera, komertzio horietako bakoitzean erosketa bat egiten den aldiro, zazpi esaldi horiek biltzen dituen eskuorria jasoko du.

UTZITAKOA

Arrakastatsua izan da Gau Beltza

Erreka Guraso Elkarteak antolatuta lehenengoz Gau Beltza ospatu zuten urriaren 31n Donezteben. Jende aunitz bildu zen Gau Beltza ospatzeko, haur gehienak mozorrotuak, eta baita guraso batzuk ere. Guraso Elkarteko kideak pozik dira arratsaldeak izandako arrakastarekin.

Tere Irastortzaren poesia emanaldia ortzegunean

Tere Irastortza Garmendia poetaren poesia errezitaldia izanen dute liburutegian ortzegunean, hilaren 17an, 18:00etan. 2015ean kaleratu zuen *Mundua betetzen zenuten* poesia liburua, eta bertako poesiak errezitatuko ditu.

Malerrekako Rallya eginen dute hilaren 26an

Azken alean aipatu bezala, azaroaren 26an jokatuko dute Malerrekako Rallya. Eskualde osoan barna eginen dute, denera 90 kilometro osatuz. Hilaren 26an, 08:00etan hasiko da proba, Donezteben, eta 20:00ak aldera bukatzea aurreikusten dute.

Mankomunitatean eta liburutegian hartu behar dira Euskaraldiko txapak

TTIPI-TTAPA

Hitzez ekiteko garaia lelopean, Euskaraldiko hirugarren edizioa eginen dute azaroaren 18tik abenduaren 2ra. Herrian ere aunitz izanen dira bertan parte hartuko dutenak. Izen ematea azaroaren 18ra bitartean egiten ahalko da, eta txapak hartzeko aukera dago goizetan Malerrekako Mankomunitatearen egoitzan, eta arratsaldean herriko liburutegian. Gainera, feria egunean Euskaraldiko batzordeak postua jarriko du eta izena emateko eta materiala erosteko aukera izanen da.

Eskolako aterpea irekita dago astelehenetik ortziralera arratsaldetan

TTIPI-TTAPA

Aurrekoan aipatu genuen bezala, eskolako aterpea arratsaldetan irekia egonen da hemendik aitzinera. Astelehenenetik ortziralera bitartean egonen da irekia, behin eskola bukatuta, 16:15ean hasi eta 20:00ak arte.

Udalak oroitarazi du aterpea goizean herriko eskolako ikasleen jolastokia dela, eta beraz, eremua zaindu eta txukun eta garbi mantendu behar dela. Hala gertatzen ez bada, gainera, itxi egin beharko dutela aurreratu dute.

Mendi itzulia antolatu dute lehen aldiz gazteek. ARKAITZ MINDEGIA

Giro ederra izan da udazkeneko kultur egunetan

Lehen aldiz egindako mendi itzuliaz gain, kantuek, dantzek eta otorduek lekua izan zuten egitarau oparoan

ARKAITZ MINDEGIA

Arrakastatsuak izan dira Iturengo gazteek urriaren 28tik 30era antolatu zituzten udazkeneko kultur egunak.

Ekitaldi ugari zeuden egitarauan. Hasteko, Iñaki Perurenaren *Harria maitasun istorioa* aditzeko aukera izan zen, lehenengo aldiz egin zen Mendi itzulia, Grand prixa, gau beltza tailerra, kantu eta dantza saioa Ainhoa, Garbiñe eta Moharekin eta Madame Birrots taldearen kontzertua. Ezin atzendu sabelak gozatzeko ere aukera izan zela egunotan. Izan ere, talo-jatea, herri-afaria, haurren bazkaria eta gaztaina jateak arrakastatsuak izan ziren. Herritarrek eta bertaratu zirenek gustura hartu zituzten gazteek antolatu zituzten egun potolo hauek.

Moha, Alnhoa eta Garbiñe.

Urteko ekitaldiak antolatzeko hainbat salgai atera ditu guraso elkarteak

ARKAITZ MINDEGIA

Urteko ekitaldiak antolatzeko Pulunpa eskolako guraso elkarteak hainbat salgai atera ditu. Aurreko urteetan bezala egutegiak, kamisetak eta boletoak eskuragarri dituzte. Eskolako gurasoek dagoeneko eskaera egin dute, baina norbaitek eskuratu nahi baditu bada aukera. Egutegiak Iturengo Goxatu dendan eta Aurtizko tailerrean egonen dira. Bertan, eskolako gaztetxoak agertzen dira dotore dotore. Boletoak berriz Aurtizko Ostatuan, tailerrean eta Goxatu dendan. Sari bikainak daude zozketatzeko: lehen bi sariak, saski eder bana; 3. saria Aurtizko Ostatuan bi lagunendako otordua eta 4. saria Kimetz belar-dendako oparia. Zozketa Eguberrietako bestaren ondotik eginen da. Eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaile eta guraso guztiei egindako ekarpenagatik.

Kamisetari dagokionez, guraso elkarteari egin behar zaio eskaera: bi koloretan daude koral eta royal urdina. Marrazkia seigarren mailako Ekaitz Seinek egina da.

ARKAITZ MINDEGIA

Gau Beltza ospatu dute haurrek

Gau beltzaren bueltan, Iturengo haurrek kultur egunean tailerrean egindako lantxoak paratu zituzten. *Koko* pelikula ikusi zuten, gero mozorroa jantzi eta herriari buelta eman eta plazan afaldu zuten. Aurtizkoak Koianea txikian tailerretan, eskulanetan, aurpegi margoketan eta jokoetan ibili ziren.

JOSENEA ENERGIAK
JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU
Erregai Banaketa Zerbitzu Berria zure etxera
INFORMA ZAITEZ!
Ordoki industrialdea, 47. partzela
31713 Arizkun (Nafarroa)
WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es
www.josenea.es

ORBELA SENDERISMOA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Juainas Paul eta Angel Maria Perez Artuch aurkezpenean. PAMIELA

‘Sorginkeriarena gurean’ aurkeztu du Juainas Paulek

Herriko historiagile eta idazleak 450 orrialdeko liburu mardula argitaratu du Pamiela argitaletxearekin

FERMIN ETXEKOLONEA

Sorginkeriarena gurean liburu mardula argitaratu du Juainas Paul Arzak Zubietako historialari eta idazleak Pamiela argitaletxearekin. 1969an sorginen gaiarekin lehen aldiz topo egin ondotik bide bibliografikoak jorratzeari lotu zen Juainas Paul, adituak elkarrizketatuz eta ikerketak eginez. Horren denaren azalpena eta azterketa da edukia: sorginkeriari buruzko saiakera mamitsua.

Euskal Herrian gertatutakoak ikertzen dira, atzendu gabe zabalagoa zen testuingurua. Hondarrean, sorginkeriari dagokion irakurketa berri bat eskaintzera ailegatu da. Abiapuntuan, balizko susmoa: sorginkeria eta akelarrea egiazko kontuak zirela; akelarreetan droga bat erabiltzen zutela, serotonina, apoek azaletik isurtzen duten substantzia bat… Hortik aurrera ez ohiko irakurketa, hipotesi moduan emana. Oinarri bibliografiko oparoan oinarritua eta hizkuntza jasoan, baina ulerterrazean adierazia.

Liburuaren aurkezpen ofiziala egin zuen Juainasek urriaren 31n Iruñean, Nafarroako Editoreen VI. Azokan.

Baserrietarako bideak moldatuko ditu Sasoik

Errekaldekoborda eta Goienetxekoborda baserri inguruetako bideak moldatuko ditu Sasoi Eskabazioak enpresak. Urte akabaila bitarteko epea izanen dute obrak akitzeko eta bien bitartean, erabiltzaileak kontuz ibiltzeko eskatu dute.

Piz & Lohi jaialdia abenduaren 2an eta 3an eginen dute

Berriz ere lanean ari dira gazteak, eskualdeko musikariei beraien doinuak plazaratzeko aukera ematen dien Piz&Lohi jaialdiaren antolaketan. Oraindik musika festibalaren egitaraua guztiz zehaztu gabe badago ere, abenduaren 2an eta 3an ospatuko dute.

UTZITAKO ARGAZKIA

Zubietako errotak webgune berria

Duela hilabete batzuk izandako zibererasoak Zubietako errotaren webgunean ere eragin zuen. Orain, webgune berria dute, *www.zubietakoerrota.net*. Hainbat informazio atal ageri dira euskaraz eta gaztelaniaz, erakusketak, bisita gidatuak, kontaktua… eta erreserba egiteko aukera ere ematen du.

DONAMARIAko
HERRIKO OSTATUA
Etxeko janaria, plater konbinatuak,
eguneko menua, asteburuko menua...
T. 948 45 08 90
@donamariko_ostatua
Ortzegunetik igandera irekia

BORDALARREA
BORDAKO
Gure haragia - Nuestra carne
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA
• Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
• Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
• Tratamendu estetikoa, armiarma eta malformazioena
• Ekografia kardiobaskular diagnostikoa–Ekointerbentzionismoa
• Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak
Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera
Telefonoa: 610 549 507

www.imcaelevacion.es

IMCALIFT
ELEVACIÓN



Aprobetxatu aulki eskailera-igogailuentzako eta etxeko igogailuentzako DIRULAGUNTZAK.

Baldintzak betetzen badituzu, % 100ekoa izan daiteke laguntza.Eskatu informazioa konpromisorik gabe



Etxeko eskailerak igotzeko eta jaisteko arazoak dituzu?

Hobetu etxe barruko mugikortasuna eta gozatu zure etxeaz oztoporik gabe. Imcalift-en eskailerak seguru eta eroso igotzeko eta jaisteko soluzioak ditugu.

KONTSULTATU DIRULAGUNTZAK ETA ORDAINDU MODU EROSOAN

ARRETA PERTSONALIZATUA:

948 235 974

AURREKONTUA
BISITA ETA AZTERKETA
KONPROMISORIK GABE

Mutilva Industrialdea, F kalea, 12. zk. NAFARROA

ERAIKUNTZA gehigarria

Amets
MUEBLES | ALTZARIAK

Neurrira Fabrikatutako Armairuak eta Sukaldeak

Alkaiaga Industrialdea Sastrin Kalea 2-4-6
31789 LESAKA (Nafarroa) Tel. 948 639 537
amets@mueblesamets.com
www.mueblesamets.com

AMETSen ere BAINUAK | EGONGELAK | LOGELAK | KOLTXOIAK
TAPIZAK | ALTZARI OSAGARRIAK | ILUMINAZIOA aurkituko dituzu.

GESTEL internet mugarik gabe
KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com
- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Internet konexio simetriko ultralasterra
- Zuntz optikoa (Fibra óptica)

inelsa ZENER
ascensores
igogailuak
Igogailuen instalazioak. Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.
T. 948 232 400
www.inelsazener.com

Aguirrezabal
IGOGAILUAK
24 orduko zerbitzua
Proiektuak
Karga-jasogailuak, plataforma hidraulikoak
Plater-igogailuak
MARKA GUZTIEN IGOGILUEN MANTENTZE LANAK
Arretxe Ugalde ind. Ezurriki kalea, 29 IRUN
943 612 821
ascensoresaguirrezabal@hotmail.com
ascensoresaguirrezabal.com

DIRULAGUNTZAK

Orain laguntza tramiteak arinagoak obra ttikientzat

Egin nahi den obra 10.000 € baino merkeagoa denean (BEZa gabe), Nafarroako Gobernuari laguntza eskaera egin eta berehala hasten ahal da orain obra

Orain arte, etxean egin nahi zen obrarendako dirulaguntza eskatuz gero, obra hasi baino lehen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Zerbitzuko baimena eskuetan izatea beharrezkoa zen, eta tramite horrek 4-5 hilabete irauten zuen normalki. Aurten aldatu egin dute hori.

ORAIN BI ESPEDIENTE MOTA DAUDE:

a. Tramite AZKARRA 10.000 € baino gutxiagoko obrentzat (BEZa gabe)
b. Tramite ARRUNTA 10.000 € baino gehiagoko obrentzat (BEZa gabe)

Bainugelan obraren bat egin nahi duenak, leihoak edo berogailuaren galdara aldatu, eskailerak igotzeko aulkia paratu edo instalazioren bat berritu nahi duenak... eta obra 10.000 euro baino merkeagoa denean, laguntza eskaera egin eta berehala hasten ahal da obrarekin. Erabaki honekin, obra ttikiendako prozedura administratiboa azkartu egin dute.

10.000 euro baino gehiagoko obren kasuan, aldiz, orain arte zuten prozedura arruntarekin segituko dute eta laguntza eskaera tramitatzen denetik 4-5 hilabete pasatuko dira Etxebizitza Zerbitzuko baimena eskuratu eta obra hasi ahal izateko.

ABENDUAREN 31 BITARTE, LAGUNTZA DEIALDI BEREZIA PRESTATU DUTE LEIHOAK ETA GALDARAK ALDATZEKO

Aurten, Europatik etorritako diruarekin, laguntza deialdi berezia zabaldu dute **etxeetako energia eraginkortasuna sustatzeko: leihoak eta galdarak aldatzeko bakarrik (pellet, egurra...).** Eskaera tramitatzeko tekniko batek egindako txosten teknikoa eskatzen dute eta laguntza emateko ez diote kasurik egiten Errenta Aitorpenaren zenbatekoari.

Suteia-Zaldain
instalazioak
IGOGAILUAK
15 Urteko esperientzia
PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK
EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.
Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com
1 KANPOKO IGOGAILUAK
Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.
2 BARRUKO IGOGAILUAK
Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako egokitua.
3 IRISGARRITASUNA
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

Etxeak aldatzen ditugu...
Gauzak aldatzen ditugu

Nasuvinsa
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK

NORI

> Eskualdeko pertsona fisikoak

> Bizilagunen komunitateak

> Alokairuko sustatzaileak

GURE ESKAINTZA

> Etxebizitza eta eraikuntzen zaharberritzea

> Inguratzaile termikoen hobekuntza

> Oztopo arkitektonikoak ezabatzea

NOLA

> Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak %50 erainokoak

> Elkarlana eta laguntza egokituta

BAITA...

· Etxebizitza publikoen sustapena
· Alokairu Poltsa
· Hirigintza
· Garapen jasangarria
· Lurzoru industriala

LEITZA / BAZTAN-BIDASOA / ESKUALDE BULEGOA

INFORMAZIO GEHIAGO
www.vivienda.navarra.es

LEITZA
Leitzako udala - 948.510.009
DONEZTEBE/SANTESTEBAN
Mercaderes 6 - 31740 Doneztebe/Santesteban
948.456.103 - baztan-bidasoa@nasuvinsa.es

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

ANZABAL
inmobiliaria
• Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
• Gestoria
• Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
• Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
• Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

sasoi
eraikuntzak
Leku-eder, 16
31791 SUNBILLA (NAFARROA)
T. 948 451 596 | F. 948 456 168
info@sasoi.eus

ukulu
inmobiliaria

Lekueder karrika 16, Sunbilla
667 547 445 | xuban@ukulu.es

CONSTRUCCIONES
A. BENGOTXEA
- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda
URDAZUBI
Tel. 948599484 • www.carrelagesbengoetxea.com

ETXEAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK | 2021eko datuak

ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZE ESPEDIENTEAK

Herria	Espedient. kop.	Etxebizitz. kop.	Aurrekontua	Dirulaguntza
ARANO	2	2	109.978,91 €	30.961,00 €
ARANTZA	5	5	176.841,46 €	67.918,16 €
ARESO	2	2	164.545,15 €	25.000,35 €
BAZTAN	31	92	1.945.022,54 €	751.605,69 €
BEINTZA-LAB.	1	1	38.494,60 €	17.322,57 €
BERA	6	18	1.140,035,30 €	96.867,30 €
BERTIZARANA	2	2	27.410,05 €	12.334,52 €
DONAMARIA	2	2	19.510,13 €	8.779,563 €
DONEZTEBE	3	8	140.338,27 €	62.120,35 €
ELGORRIAGA	0	0	0,00 €	0,00 €
ERATSUN	3	3	70.352,75 €	30.265,05 €
ETXALAR	0	0	0,00 €	0,00 €
EZKURRA	0	0	0,00 €	0,00 €
GOIZUETA	3	2	114.368,94 €	34.530,59 €
IGANTZI	0	0	0,00 €	0,00 €
ITUREN	1	1	43.771,68 €	17.508,67 €
LEITZA	12	51	1.159.503,66 €	277.255,78 €
LESAKA	7	7	149.091,57 €	40.582,65 €
OIZ	0	0	0,00 €	0,00 €
SALDIAS	0	0	0,00 €	0,00 €
SUNBILLA	3	3	30.194,72 €	11.210,83 €
URDAZUBI	1	1	12.029,56 €	5.413,30 €
URROZ	1	1	11.685,00 €	5.258,25 €
ZUBIETA	0	0	0,00 €	0,00 €
ZUGARRAMURDI	0	0	0,00 €	0,00 €
Denera	**85**	**201**	**5.353.174,29 €**	**1.494.934,62 €**

2019arekin konparatuta, 2021ean laguntza eskaera gutiago tramitatu dituzte. Izan ere, 2019an 285 etxebizitza zaharberritu ziren (2.142.845 euro guztira); 2020an 193 etxebizitza zaharberritzeko 1.447.828 euro eta 2021ean 201 etxebizitza berritzeko 1.494,935 euro.

Zaharberritzeko laguntzak badaude, baina jendeak ez ditu behar adina eskatzen

Urte osoan egin daitezke laguntza eskaerak baina beti obra hasi baino bi hilabete lehenago, gutienez

2019arekin konparatuz, 2021ean nabarmen jautsi dira zenbakiak: tramitatutako **espediente kopurua (-88)**, **onuradun izan diren etxebizitzak (-84)** eta hartutako **dirulaguntza (-647.911 €)**.

ESKATZAILE IZATEKO BALDINTZAK?

- **Etxebizitza ohiko bizitoki iraunkorra izatea.**
- Etxeak 20 urte baino gehiago izatea, salbu pertsona desgaituendako egokitu edo derrigorrezko arau teknikoak betetzeko baldin bada.
- Obraren **aurrekontu babesgarria etxebizitzako 2.000 eurotik gorakoa** izatea.
- **Obrak hasi gabe egotea**. Behin-behineko kalifikazioa egiten denetik, obra sei hilabeteko epean hasi eta 36 hilabeteko gehienezko epean bukatzea da.
- Etxeak 50 urte baino gehiago duenean, beharrezkoa da EETa izatea (**Eraikinak Ebaluatzeko Txostena**).
- Dirulaguntza, eskatzaileak duen adinaren diru-sarreren eta etxearen antzinatasunaren arabera emanen da.

Nasuvinsak tramitatzen ditu Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekan etxeak zaharberritzeko laguntzak

848 420 140 DONEZTEBE

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzakoek, aldiz, Sakanako Mankomunitatera deitu behar dute (EZABU)

948 464 867 LAKUNTZA

DIRULAGUNTZAK ZERTARAKO?

Dirulaguntzak bizitokiaren barneko obrak egiteko eta etxearen elementu komunitarioak (teilatua, eskailera, fatxada…) zaharberritzeko izaten ahal dira:

- Etxearen egitura edo funtzionamendua egokitzeko (teilatua, fatxadak, igogailua, elektrizitatea, iturgintza,…).
- **Eraginkortasun energetikoa hobetzeko eraikin osoan** (isolamenduak, berokuntza sistema jarri edo aldatu, galdara edo leihoak aldatu…).
- **Irisgarritasuna hobetu eta trabak kentzeko** (elbarriendako eta adinekoen oztopoak…).
- **Bizigarritasun baldintzak hobetzeko** etxe barneko obrak (bainera kendu eta dutxa jartzea, hodiak eta txorrotak aldatzea…).
- Etxeetan bizitzeko egokia den azalera handitzeko (120 m² erabilgarri arte) eta etxebizitzak egiteko, lehendik dauden etxebizitza handiak zatituz.
- Indarrean dauden lege eta araudietara egokitzeko.
- **Desgaitasunen bat duten pertsonentzat etxea egokitzeko dirulaguntza bereziak daude.**

Igogailuak instalatzeko eta leihoak aldatzeko eskatzen da dirulaguntza gehien.

BIZIBERRI PLANAREN LAGUNTZA GUZTIAK

- Inguratzaile termikoa eraikin osoetan hobetzeko laguntzak (PREE).
- Birgaitze laguntzak 5.000 biztanle baino ttikiagoak diren herrietan. (PREE 5000)
- Etxebizitzetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko laguntzak (MRR ETXEBIZITZAK).
- Lehendik dauden eraikinak birgaitu eta energiaren kontsumoa murrizteko laguntzak (MRR ERAIKINAK).
- Eraginkortasun energetikoa hobetzeko laguntzak.

Biziberri Planak laguntza publikoak banatzeko zenbait programa berezi abiarazi ditu etxebizitzak, eraikinak eta auzoak energetikoki birgaitze aldera.

ESKAERAK TRAMITATZEKO EDO INFORMAZIOA ESKATZEKO

Hitzordua hartzeko Nasuvinsak Donezteben edo EZABUk Lakuntzan duen telefonoetara deitu behar da.

Datuak:
Nasuvinsa eta Sakanako Mank. (EZABU)

Bizigarritasun-zedulen eskaerek azken urteotako kopururik handienera iritsi ziren 2021ean. Hona hemen urtez urteko bilakaera: 2015ean 26, 2016an 32, 2017an 59, 2018an 60, 2019an 82, 2020an 67 eta 2021ean 102. Horrek adierazten du notariotzako salerosketa kopurua murriztu dela azken urtean.

erran.eus

larreta lanak sl

IGELTSU PROIEKTATUA
PLADURRA
ISOLAMENDU TERMIKOA
ISOLAMENDU AKUSTIKOA
Bera - Nafarroa
www.larretalanak.com - larretaigeltsua@gmail.com
Gorka Arretxea 627 225 514
Juanen Saralegi 637 921 299

EZKAIN eraikuntzak S.L.
Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T./F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

arteka
ARKITEKTURA ZERBITZUAK
www.artekabaztan.com
Balda Medikua Plaza, 1-1A | 31700 ELIZONDO
948 580 610

Tel. 948 452 394
Saskaitz Plaza,
31700 Elizondo

Maite Petrirena

Aseguru agentzia - Agencia de seguros

Allianz

helvetia ASEGURUAK

- Tratu pertsonala
- Zure beharrizanak asetzeko
- Kompromisoa eta segurtasuna
- Pertsona erabakigarriak

T. 948 45 25 29 · 628 35 71 38
Santiago, 78 - ELIZONDO · jfagoagaleiza@gmail.com

ASEGURUAK

Etxerako asegururik egokiena aukeratzeko zazpi aholku

Etxe berri batean bizitzera sartzerakoan, kontuan hartzen den lehenbiziko gauzetako bat asegurua da. Are gehiago, etxea hipotekatuta baldin badago, asegurua derrigorrezkoa da. Baina zaila izan daiteke aseguruen munduan murgiltzea eta guri hobe egokitzen zaigun poliza aukeratzea. Zalantzak baldin badituzu, hemen dituzu zazpi gomendio:

- **Edukiak eta edukitzailea zuzen baloratzea:** Aseguru bat kontratatzean kontuan izan beharreko kontzeptu bat *infrasegurua* da, hau da, aseguratutako diru kopurua ondasunen balio erreala baino ttikiagoa denean. Ondorioz, edozein ezbehar gertatzerakoan ez du galdutakoaren kostu osoa barne hartuko. Hau ekiditeko, behar bezala baloratu behar dira etxeko edukiak (altzariak, bitxiak, dirua…) eta baita edukitzailea ere (eraikina).
- **Oinarrizko estaldura eta estaldura gehigarria:** Polizak barne hartutako arriskuak aseguru-etxearen araberakoak dira. Normalean, denek barne hartzen dituzte hurrengo kalteak: suteak, leherketak, ur-isuriak, fenomeno meteorologikoak (elurra, kazkabarra eta tximistak, adibidez), sarraila aldaketak, kalte elektrikoak eta ispilu edo kristalen apurketak. Baina oinarrizko estaldura honez gain, batzuetan gomendagarria da estaldura gehigarriak kontratatzea; sorospena etxean edo bidaietan, larrialdietako laguntza medikoa, maskotentzako asegurua…

mañonea
ASEGURUAK AGENTZIA

ZURE KOMUNIKATEKO KUDEAKETAK BURUKO MINA SORTZEN DIZU?

· Ez duzu ez denborarik, ez gogorik?
· Ez dakizu ongi egiten ari zaren edo ez?
· Zure erabaki edo ekintzetako batek izan ditzakeen ondorioen edo legearen barnean ez dagoen zerbaiten beldur zara?
· Zure barrideari erreklamazio bat egin behar diozu eta gogorra egiten zaizu?
· Konponketa bat egin behar duzue eta aurrekontuak eskatu behar dituzue? Obraren segimendua, etab.

EZ GEHIAGO ARDURATU

Irtenbidea erraza da. Jar zaitez gurekin harremanetan eta zure komunitateaz gu arduratuko gara. Urte luzeetako esperientzia dugu komunitateen kudeaketan. Lasai bizi zaitez. Denbora aurreztuko dizugu, gustukoa duzuna egiteko. Zeren esperoan zaude? Jar zaitez gurekin harremanetan.

e-maila: info@mainonea.com · Tel. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 · Braulio Iriarte, 9 · ELIZONDO
www.mañonea.com

MAPFRE

Konfiantza osoko aseguru-etxea

IBILGAILUAK | ETXEAK | BIZITZA ETA OSASUNA | PENTSIOAK | INBERTSIO PRODUKTUAK

BERA Bidasoa, 16 T. 948 63 10 14 | DONEZTEBE Nagusia, 2 T. 948 45 08 80 | ELIZONDO J. Urrutia, 8 T. 948 58 03 76 | LEITZA Elgoien, 6 T. 948 51 04 99 | LESAKA Pl. Zaharra, 28 T. 948 63 72 20

- **Erantzukizun zibila:** Edozein aseguruko estaldura garrantzitsuenetakoa erantzukizun zibila da, hau da, aseguratutako pertsonak edo etxebizitzak hirugarren batzuei eragin diezaioken kalteak estaltzen dituenak. Adibidez, ur filtrazioek edo leihotik eroritako objektuek sor ditzakete kalte hauek, eta batzuetan garestiak izan daitezke asegururik gabe ordaintzeko. Garrantzitsua da ere estaldura honek dituen mugak ezagutzea.
- **Ezbeharren berri ematea:** Ezbeharrak, ezagutzen direnetik, zazpi eguneko epean jakinarazi behar zaizkio aseguru-etxeari, polizan ez bada epe luzeagoa adostu. Hau betetzen ez bada, aseguru-etxeak deklarazioa ez egiteagatik sortutako kalte-galeren erreklamazioa egin dezake.
- **Kostua erabakitzean kontuan hartzen dena:** Polizaren kostua hainbat eragileren araberakoa da, aseguratutako kapitalaz gain; aseguratuaren identitatea, etxebizitzaren eraikuntza urtea, posta kodea, etxebizitzaren erabilera eta bertan norbait bizi den edo ez, bertzeak bertze. Honez gain, kontuan hartzen dute sistema elektrikoa edo hoditeria berriki aldatu diren edo ez, horrek kostua murriztu dezakeelako.
- **Gabeziak eta esklusioak:** Poliza kontratatzean, aseguru-etxeak gabeziako denbora tarte bat ezarri dezake, hau da, polizak estaliko ez duen denbora tartea. Honez gain, estalduratik kanpo geldituko diren arriskuak izan ditzakegu polizan, adibidez, kalteak kanalizazio publikoek sortzen badituzte edo etxebizitza bertze norbaiti alokatu baldin bazaio jakinarazi gabe.
- **Aseguruak konparatzea:** Gaur egun aseguru konpainia ugari ditugu merkatuan eta zaila izan daiteke eskaintzarik egokiena aukeratzea, hortaz, erabakia hartu aitzinetik prezioak eta estaldurak konparatu behar dira. Interneten hainbat konparatzaile daude eskuragarri norberak gehien egokitzen zaion asegurua aurkitzeko.

«Aseguruaren kostua erabakitzean hainbat faktore hartzen dira kontuan, bertzeak bertze, sistema elektrikoa eta hoditeria berriki aldatuak izan diren edo ez»

Philippe GAMOY
Geologoa

IKERKETAK
· Geologikoak
· Geoteknikoak
· Hidrogeologikoak
· Ingurumenekoak

Zimentazioak · Lur azpiko urak
Ezponden egonkortasuna · Zabortegiak

Tel. 620 79 60 05
ph.gamoy@yahoo.com
Azpa kalea 1, 1C · 31016 · Iruñea
444 Zabaloko bidea · 64250 · Itsasu

GEEA
ESTUDIOS GEOLÓGICOS
IKERKETA GEOTEKNIKO ETA HIDROGEOLOGIKOAK
edozein eraikuntzarako zimendatzeak,
eraikuntza zibila, lurpeko urak, ingurugiroa
www.geea.es
696 435 907 • 606 507 335

DISEÑADOR
DISEÑADOR CERTIFICADO PASSIVHAUS
LABORRA ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -
Etxebizitza berriak
Zaharberritzeak
Hirigintza
Ziurtagiri energetikoak
Eraikinen Ebaluazio Txostenak (IEE)

www.laborra.com
Santiago 66, 1° ELIZONDO 948.580.122

GENERALI
Partikular, autonomo eta enpresendako aseguru eta inbertsioak.
Zatoz eta aholkatuko zaitugu!

Santiago 72 B, ELIZONDO
T. 948 58 05 04 669 32 63 33
generalielizondo@hotmail.com
Neli Yanci
Maite Iriarte

ARKITEKTOAK

Etxea zaharberritzeko garaia da

Aurtengo arkitektura joerek joan den urtekoei segida emanen diote, izan ere, pandemiak zerbait garbi utzi baldin badu, norbera bere etxean eroso egotearen garrantzia da. Inoiz baino denbora gehiago pasatu dugu barnean, eta agerian gelditu dira gure etxearen arazoak. Orain, zaharberritzeak egiteko garaia dugu.

- **Argitasuna eta gela irekiak:** Funtzio anitzeko espazioak gero eta ohikoagoak dira, etxean zein lantegian edo bulegoan. Gelak bateratzeak espazio handiagoak ekartzen ditu; argitasuna eta zabaltasuna ematen dute eta funtzionaltasunari malgutasuna ematen diete, espazioa hobe probestuz.
- **Kurbak bueltan dira:** Paretetan, sukaldeko irlan, sofan, apalategietan, igerilekuetan... kanpoan nahiz barnean, arku eta bobedak garrantzia hartuko dute aurten, arkitektura modernoko lerro zuzenen joerarekin kontrastatzen. Etorkizunera begira nagusituko den estiloa izanen da hau.
- **Naturarekin bat:** Arkitektura biofilikoa da nagusitzen ari den bertze joera garrantzitsu bat, landareen eta eguzki argiaren erabileran oinarritzen dena. Naturak ongi sentiarazten gaitu eta sentsazio hori etxera eraman nahi da. Baina ez da aski landare pare bat jartzearekin; espazio naturalak sortu nahi dira, zabalak eta askatasuna ematen dutenak.
- **Jasangarritasuna erdigunera:** Naturarekin halabeharrez lotua dago jasangarritasuna, ez baitugu naturarik izanen mundua zaintzen ez badugu. Horregatik, etxe ekologikoak dira etorkizuna, eta horretarako erabaki guziak garrantzitsuak dira; energia iturriak, kokalekua, orientazioa materialak...

www.lacunza.net

Egurrezko estufak, sukaldeak eta tximiniak

MAITE MANGADO
ARKITEKTURA & DISEINUA

T. +34 653 035 091
www.maitemangado.com
Donostia (Na)

mitxel etxenike etxandi
javier oteiza larretxea

DESIGNER
CERTIFIED PASSIVE HOUSE DESIGNER

EFIZIENTZIA HAUNDIKO ERAIKINETAN ADITUAK

linoplazaarkitektura

jaime urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) **telf.** 948 58 18 02 **fax.** 948 58 14 12 **e-mail.** info@linoplaza.com **web.** www.linoplaza.com

Estetika eta diseinu zainduak barnean nahiz kanpoaldean

Estetika eta diseinua barnean bezain inportanteak dira kanpoan, ikusten den lehenbiziko gauza baita etxeko fatxada. Barnealdean bezala, jasangarritasuna eta berritasun teknologikoak nagusi dira kanpoaldean ere. Etxe berri bat egiten ari bazara edo bertzerik gabe zure etxeari ukitu berritzaile bat eman nahi badiozu, kontuan hartu beharreko hainbat erabaki hartu beharko dituzu:

Material egokia aukeratzea:
Etxearen fatxadan aukerak amaigabeak dira; entokadura (organikoak, mineralak, silikatozkoak...), zeramika (hainbat kolore eta azalerakoak), gres portzelanikoa (konpaktua, estruitutakoa, formatu handikoa...), harri natural, beira eta bertze hainbat material.

Teknologia berrien erabilera:
3D inprimatzea eraikuntzara ere ailegatu da eta urtetik urtera gehiago erabiltzen den teknologia da. Materialaren iraunkortasunari eta xehetasunetan lan egiteko ematen duen erraztasunari esker, eraikin artistikoagoak egiteko aukera ematen du, baita klima ezegonkorrak dituzten eskualdetan ere.

Aurrefabrikatutako etxeak:
Jasangarritasuna eta digitalizazioa uztartzeko aukera ematen dute aurrefabrikatutako etxeek; azkarrago, errazago eta merkeago egiten dira, eta etxe tradizionalekin alderatuta, produkzioak gutxiago kaltetzen du ingurumena. Eraikin berriak egiteaz gain, zaharberritzeak egiteko ere erabil daiteke ekoizpen modelo hau.



OTEIZA
ARKITEKTOAK
53 urteko esperientzia
Proiektuen kudeaketa urbanistiko osoa egiten dugu, hasieratik amaierara
665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com
oteizaarquitectos
Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)
Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

·LOKALEN EGOKITZEAK
·ERAIKUNTZA BERRIAK; PASSIVE HOUSE ...
·ZAHARBERRITZEAK;
·TEILATU BERRITZEAK
·FATXADA BERRITZEAK
·IGOGAILUAK
·BARNE DISEINUAK
·AHOLKULARITZA
·KALIFIKAZIO ENERGETIKOAK, ...
IRURITA
DOARQ
arkitektura bulegoa
maite & idoia danboriena olaetxea
T 948 14 08 06

LOHITZYNE
eraikuntzak

ETXEAK, TEILATUAK eta ERAIKUNTZAK OROKORREAN
Tfnoa: 948 615 110 | Mug: 699 461 386
Eguzkialde etxea 31749 EZKURRA

cristalería
BIDASOA

Dutxetako manparak
Kristalezko barandak
Ate korrederak
Sukaldeko aurrealdeak
Koadroentzako markoak · Ispiluak
Beira dekoratiboak

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN
T. 943 61 30 63
info@cristaleriabidasoa.com

Carpintería
Lizasoain, S.L.

ERREFORMAK OROKORREAN
LEIHOAK · ATEAK · ESKAILERAK
ARMAIRUAK · SUKALDEAK · PERSIANAK

948452077 · Zaldubia ind. · 31730 IRURITA
carpinteria.lizasoain@gmail.com

DEKORAZIOA

Natura nagusi

Biofilia dekoraziora ailegatu da. Horretarako, landareen erabilera elementu dekoratibo gisa arras inportantea da, baita kolore neutroak eta lur-koloreak ere, paretetan zein altzarietan.

Koloretako altzari metalikoak

Estilo industrialarekin segituz, herdoildutako gris eta marroiak pastel koloreekin ordezkatuko dira. Metalezko armairuak, apalategiak, komodak... edozein altzari da aproposa.

Paper pintatu abstraktuak

Paretei itxura berria emateko paper pintatuak aukera erraz eta merkeak dira. Aurten patroi abstraktuak eta geometrikoak eta kolore ilunak dira nagusi, lasaitasuna transmititzen dutenak.

Gibelera begira

Vintage tendentzia beti da aukera ona eta altzariak berrerabiltzen ohitura jasangarriak sustatzen ditugu. Etxeko altzari zaharrei bigarren bizia eman edo bigarren eskuko dendetan bila ditzakegu.

MÁRMOLES
AMEZTI
Desde 1994

· Sukaldeko eta komunetako entzimerak egiten ditugu.
· Hilerriko plakak eta hilarriak.
· Zoruen eta pareten estaldura.



Iruñea Irun errepidea, z/g.
Oronoz-Mugairi (Nafarroa)

T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295

info@marmolesamezti.com
www.marmolesamezti.com

Apezteguia Berria
ferretería – burdindegia

Margoak eta barnizak
Erreminta elektrikoa
Esku erreminta
Konpresoreak
Lanerako arropa
Baratzea lantzeko tresnak
Komunerako gaiak
Estufak
Pelleta



www.apezteguiaberria.com - info@apezteguiaberria.com

- Leitzako Errepidea 33, Doneztebe - T. 948 450 994 - F. 948 450 882 -



Apezteguia Elizalde
ARKITEKTOAK

OBRA BERRIAK
LOKALAK - BARNE DISEINUA
JARDUERA SAILKATUAK
ZAHAR - BERRITZEAK
TEILATU BERRITZEAK

DONEZTEBE
T 626 261 990
laura@apezteguiaelizalde.com

I.M.
ARRIXKO
IGELTSERITZA
IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK

ESTRUKTURAK
TEILATUAK
FATXADAK
ZAHAR BERRITZE LANAK

Tel.: 661 735 052 • ARANTZA • SUNBILLA

ELIZAGA MUGIKA SL
conselmu
CONSTRUCCIONES

Etxebizitzen eraikuntzak
Teilatu berriztatzeak
Mota guztietako erreformak

T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

ZURE ENPRESAK
WEB ORRIA
BEHAR DU?

ESKATU AURREKONTUA
T. 948 63 54 58

MIKEL UBIRIA
eskabazioak
garraioak

Biurrana 8 · 31770 Lesaka
948.637.302 619.716.322 608.779.641
info@excavacionesubiria.com

Construcciones
URBALLO, s.l.
hargin lanak orokorrean

Luis Gaztelu, 6
31730 IRURITA
T. 610 367 000
610 367 009
c.urballo@hotmail.com

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak:
Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuiluak...

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

IGELTSERITZA - ERAIKUNTZAK
Javier Zabala

Kale Nagusia, 66
GOIZUETA

T. 948 51 42 28
M. 679 47 98 93

construcciones.javierzabala@gmail.com

BETILAN

Martin Tellechea
Tel.: 649 403 320
betilansl@gmail.com
EZKURRA

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK 699 12 28 15

· Etxebizitza berriak
· Zaharberritzeak
· Erreformak
· Konponketak
· Teilatuak
· Harri eta hormigoi lanak
· Mota guztietako igeltseritza lanak

GREMIOEN KOORDINAZIOA
SUNBILLA (NAFARROA)



Zeramikak

Naturaltasuna nagusi den garai honetan, zeramika ezinbertzeko materiala da gure etxeetan. Elegantea da, forma eta kolore anitzekoa eta arras iraunkorra. Etxean zeramika paratzea gogoan duzuenentzako aurtengo tendentziak ekarri dizkizuegu:

- **Barrokismora buelta:** Estilo barrokoan inspiratutako zeramikak ederrak, dotoreak eta atenporalak dira. Diseinu sofistikatu eta deigarriko marmolak aukera ona dira edozein gelako lurzorurako.
- **Koloreak nagusi:** Zeramikak eskaintzen duen aukera kromatiko zabala abantaila handia da gela bat apaintzerakoan. Aurten kolore naturalak gailenduko dira; berdea, urdina eta akuamarina, baita pastel-koloreak ere, arrosa, menda eta salbia, adibidez.
- **Estiloak bateratuz:** Estiloak konbinatzeko joera geroz eta gehiago ikusten da azken aldian; hasiera batean bateragarriak ez diruditen bi estilok emaitza ikusgarriak sortu ditzakete eta gelari nortasun handia eman diezaiokete.
- **Muralak gure gelan:** Gaur egun zeramikak aukera amaigabeak eskaintzen ditu eta diseinuak geroz eta ederragoak dira, beraz, aunitzentzat paretetako papera ordezkatzeko alternatiba ezin hobea da, baita garbiagoa ere.



ANTZUZELAI S.L.
BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com
HARRI LAN, S.L.
TALLER DE CANTERA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

ASKAPE HARROBIA Construcciones Sobrino S.L.

ERAIKUNTZA HONDAKINEN KUDEAKETA ZENTROA
KONTENEDORE ZERBITZUA
HARROBIA
GARRAIOAK
ESKOLLERAK, ESKABAZIOAK

Oronoz Frantzia errep. N-121-B. 43km Baztan - T. 948 592 111 / 660 501 584 | canterasaskape@gmail.com

Pitti
MINIESKABAZIOAK
MINIESKABAZIO eta
GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat
Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

GARRAIOAK, GARABIAK
ETA ZERBITZUAK
J.V. JUBERA ERAIKUNTZAK
DONEZTEBE
Leitzako errepidea, 72 – Doneztebe
948 451 793 / 659 702 694

PatxiJaurena
ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER
628 550 490 - URDAZUBI(Na)
ursunea@gmail.com

ETXEGILEAK

Etxetik kanpo ere gustura egoteko txokoak

Pandemiak zerbait erakutsi badigu, kanpora ateratzearen plazera da. Jardin haundi bat izan edo balkoi ttiki bat izan, arnasgune garrantzitsua da etxearen kanpoaldea.

Barnealdean bezala, tendentzia eta modek kanpoko espazioa apaintzeko ideia aunitz ekarri dizkigute aurten ere. Gustuko dugun estiloa aukeratuz, itxura berria eman diezaiokegu etxeko lorategi, terraza edo balkoiari:

Estilo mediterraneoa: Ukitu erlaxatu eta bohemioko estiloa; sofak, besaulkiak, lanparak, kuxinak... eguraldi ederra ari duenean etxeko baratzea edo lorategia paradisu batean bihur dezakegu. Soken erabilera ere nabarmentzekoa da, artisauen lanetan erabiltzen baita.

Elementu naturalak: Egurrezko altzariak, zuntz naturalak, terrakota, harri naturala... kanpoaldeko elementuek naturarekin bat egiteko hainbat material erabil ditzakegu. Akaberei dagokienez, terrazoak aukera kromatiko zabala eskaintzen du, konbinatzeko erraza.

Argitasuna: Geroz eta goizago iluntzen du orain, beraz, argiztapena ere beharrezkoa izaten da kanpoan. Azken aldian modan daude luminariak eta zintzilik paratzen diren festetako argiak, alaitasuna eta ikusgarritasuna ematen dutenak.

carpinteria
EZPELA
zurgindegia
Urruña, 2
31780 BERA
Tel.: 678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Matias)
eloyordoqui@hotmail.com

Zurekin
DISEINUAK
GAUR EGUNERA EGOKITUTAKO
ZURGIN-LANAK
ZURGIN-LANAK OROKORREAN
636 701 204

722 521 471
Kanttonberri, 3 BERA
zurekin@zurekindiseinuak.com

Etxeko egurraren mantentzea

Zura arras erabilia da eraikuntzarako, kalitate eta estetika bateratzen dituen materiala baita. Baina iraunkorra izateko zaindu egin behar da, batez ere kanpoan dagoelarik.

Hezetasunak eta eguraldi txarrak egurra hondatu dezake, baita bertzelako organismoek ere. Barnealdean zura babestuagoa dago eta ez ditu hainbertze arazo izaten, baina hala ere gomendagarria da zaintzea, materialaren iraunkortasuna eta itxura mantentzeko.



Zaintzearen garrantzia

Egurraren kolorea eta distira erosi berria bezala mantentzeko, babestuta eta errauts eta orbanik gabe egon behar du. Egurrezko edozein azalera garbitzeko aski da ur beroan eta xaboi neutroarekin bustitako trapu bat pasatzea, baina garrantzitsua da garbitu ondotik idortzea, orbanik ez gelditzeko.

Noizbehinka argizaria eman behar zaio garbitu ondotik; minutu batzuk utzi eta baieta batekin leundu. Kanpoko zura eguzkiaren argitik babesten dugun bezala, barnekoa ere eguzki argitik eta tenperatura altuetatik urrundu behar da, akaberak kolorerik galdu edo kaltetu ez daitezen.

Etxeko produktuekin egiteko garbiketa

Etxean aurkitu ditzakegun produktuekin egurra babestu eta txukundu dezakegu modu erraz eta eraginkorrean. Hainbat erremedio natural egin daitezke:

- **Olio eta limoi nahasketa:** Erdizka nahastuta, olioak eta limoi zukuak lehenbiziko eguneko distira bueltatzen diote egurrari.
- **Olioa alkoholarekin:** Azalerak izan ditzakeen urradurak, atzaparkadak eta akatsak disimulatzen laguntzen du eta distira ematen dio.
- **Ozpin zuria:** Disolbatu gabe, sukaldeko altzariei koipea kentzeko balio du. Trapu leun batekin eman behar da arrastorik ez uzteko.
- **Hautsa olioan disolbatua:** Edalontzi beroek utzitako markak kentzen laguntzen du. Eragina egiten utzi behar da trapu batekin garbitu aitzinetik.

Maderas GOMEN
Maderas Legate S.L.
Ateak
Parketak
Tableroak
Egur mota guztiak
Bigak eta Soliboak
Etab.
Zaldubia Industrialdea - IRURITA
T. 948580645 -
M. 609436686 / 606442143 / 608 744 675
maderaslegate@gmail.com
www.maderaslegate.com

MADERAS SANTESTEBAN
Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak · Montajea obran
Teilaturako egiturak
Izei, haritza eta douglasezkoak edo laminatua
Osagarriak · Autoklabe tratamendua
www.maderasantesteban.com
Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

JOXEMI BENGOTXEA S.L
20 URTEKO ESPERIENTZIA
TEILATUAK, ESTRUKTURAK
ZAHARBERRITZEAK ETA
ZURGIN LANAK OROKORREAN
Alkerdi - 4. ind. - 103 partzela - 31711 Urdazubi - T. 660 501 584 | joxemibengotxea@yahoo.es

Juanotena Zurgina
639 855 120 Doneztebe juanotenazurgina@gmail.com
Teilatuak, eskailerak, lurrak, ateak, leihoak,
kontraleihoak, persianak, armairuak, sarrailak...

Altzairuaren abantailak eraikuntzan

Hormigoiarekin batera, eraikin ikusgarriak eta iraunkorrak egiteko erabiltzen da altzairua. Gainera, ingurumenean kalte guttien sortzen duen materialetako bat da.

Altzairua material ezin hobea da eraikuntzarako; iraunkorra, jasangarria eta erabilera anitzekoa. Arkitektura eta estruktura ingeniaritzako proiektuetan aunitz erabiltzen da, abantaila aunitz ekartzen baititu eraikuntza bat egituratzerakoan.

Moldagarritasuna

Material gogor eta zurruna bada ere, erabilera aldetik aukera zabala eskaintzen du. Altzairuzko profilekin espazio haundi eta irekiak sor daitezke, gero erraz bana daitezkeenak hainbat gelatan, behin-behinean zein behin betiko. Gainera ezaugarri desberdinetako altzairuak daude, jasan beharko duen zamaren arabera eta lortu nahi den emaitzaren arabera aukeratzeko.

Jasangarritasuna

Altzairua guztiz birziklagarria da, are gehiago, mundu osoan ekoizten den altzairuaren %50a birziklatua da. Honez gain, aurrefabrikatutako egiturak errazak dira muntatzeko, hondakinen sorkuntza murriztuz.

Eraikuntza azkarra

Altzairuarekin arras azkar egiten da lan, beraz, aproposa da batez ere eraikuntza lanek errepideak oztopatzen dituztenean edo inguruko eraikinetan kalteak sortu. Gainera, gastuak aurrezten laguntzen du.

Hala ere, eraikuntzan zein material erabiliko dugun egoeraren arabera hartu beharreko erabakia da. Batzuetan altzairua ez da materialik egokiena, baina dituen onurak ezagutzeak erabakia hartzen lagunduko digu eta erabilera aproposa ematea erraztuko digu.

LEITZELARREA S.L.
Aroztegi eta Galdereria
Landa Beikoa Industrialdea, 20
T. 948 510 598 M. 669 368 991
LEITZA

J.P. AGERREBERE
TEIMO BANATZAILEA
Karrozeria
Aroztegi Metalikoa
Industria-nabeak eta granjak egiten ditugu

Zaldubi ind. IRURITA | T. 948 580 538 | 630 184 847

Arotxa
Aroztegia 1890az geroztik
M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com
GARAJEKO ATEAK | HÖRMANN banatzaile ofiziala

AROZTEGIA:
· Burdina
· Aluminioa
· Inox
BALKOIAK
TOLDOAK
BURDINESIAK
FORJA
AUTOMATIZAZIOAK
...

Leiho zaharrak aldatzerakoan kontuan izan beharrekoa

Leihoak etxe batek dituen elementu garrantzitsuenetakoak dira. Batez bertze, 30 urte inguruko bizitza erabilgarria izan dezakete ongi zainduz gero, beraz, arras garrantzitsuak dira etxean.

Hain elementu iraunkorrak izanik, garrantzitsua da leiho berriak aukeratzean norberari hobe egokitzen zaizkion leihoak aukeratzea eta kontuan hartu beharreko alde inportanteenak ezagutzea.

Kristal handiak eta marko finak

Etxeak leku argitsu eta atsegina izan behar du, eta horretarako ezinbertzekoa da argi naturala sartzen uztea. Baina leihoak aldatzean, hartzen duten espazioa zabaldu ezean, ez dugu leku gehiagorik lortuko argi gehiago sartzeko. Konponbidea erraza da; kristal handiagoak eta marko meharragoak ahalik eta argi gehien sartzeko.

Materialen aukera zabala

PVC leihoak aspaldi nagusitu badira ere, ez da halabeharrez erabili beharreko materiala. Egurrezko etxeetan eta eraikin historikoetan, adibidez, egurrezko markoak segitzen dute oraindik nagusi izaten, eta hauek estilo tradizionalekoak edo egungo minimalismora egokituak izan daitezke. Aluminioa bertze aukera on bat da; arina, erraza mantentzeko, gogorra eta iraunkorra

Zuriak, beltzak edo koloretakoak

Zuria eta beltza dira markoak aukeratzean kolore ohikoenak; edozein estilorekin bateragarriak dira eta elegantzia ematen dute. Baina egurraren kolore naturala edo gris metalizatua ere aukera ona izan daitezke gure estiloaren arabera, eta azken aldian nabarmentzen hasi den kolorea da urdina. PVCko leihoetan, kontuan hartu behar da kolore ilunak gehiago berotzen direla, deformazioak sortuz, beraz marko meharragoak erabiltzea gomendagarria da

Estetikaz gain, erabilgarritasuna ere kontuan hartu behar da; leihoaren kiderrak, adibidez, erabiltzeko errazak eta erosoak izan behar dute. Azken aldian gero eta gehiago ikusten dira sistema elektrikoak, urrutiko kontrol baten bitartez erraz erabil daitezkeenak, baita mugikor beratik ere.

KORTA ANAIAK
AROZTEGI METALIKOA
Elutsa, 1 Alkaiaga Industrialdea 31770 LESAKA
T./F. 948 631 651
info@kortanaiak.com

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa
Burdina eta aluminioa
F. Joakin Iriarte, 6 · ELIZONDO
T. 948 580 337

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11
Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

IREKI LEIHOAK
Aluminio R.P.T | PVC | Pertsianak | Toldoak
Itxiturak | Barandak | Kontraleihoak
T. 948 630962 M. 626 313162 H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com www.irekileihoak.com

Pertsiana aukera zabala denon gustura

Etxea apaintzerakoan batzuetan ez diegu behar bezalako garrantzia ematen pertsianei, baina alderdi estetikoaz gain elementu garrantzitsuak dira barnera sartzen uzten dugun argi kantitatea erregulatzeko.

Gure behar eta gustura egokitzen diren pertsianak aukeratzeko, aukera zabala daukagu gaur egun merkatuan. Hona hemen aurki ditzakegun adibide batzuk:

- **Veneziarrak:** Gaur egun erabilienetakoak dira, edozein dekorazio motarekin konbinatzeko errazak direlako eta diseinu eta kolore aunitzetan daudelako eskuragarri.
- **Bertikalak:** Gelariukitudotoreaematendiote eta hainbat materialez egindakoak lor daitezke, bertzeak bertze, PVCkoak eta egurrezkoak.
- **Biribilgarriak:** Garestiagoak izan ohi dira, baina modernitatea ematen diote gelari. Gainera, leiho osoa estaltzen dute, eguzki argiaz eta gure barrideen begiradez guztiz babestuz.
- **Miniaturan:** Veneziarren antzekoak dira, baina listoi ttikiagoak dituzte. Hortaz, aproposak dira etxeko leiho ttikienentzat.
- **Panelezkoak:** Estilo minimalistakoak eta modernoak dira. Paper japoniarrari esker argi kantitate egokia pasatzen uzten dute, gelako diseinu eta koloreekin konbinatuz.
- ***Blackout* estoreak:** Leihoa guztiz estaltzen dute eta ez dute argirik sartzen uzten, beraz, erabilgarriak dira logeletan edo zinema areto ttiki bat sortu nahi badugu etxean.

«Egurrezko pertsiana bat aukeratzea ez da inoiz alternatiba txarra izanen, beti modan egoteaz gain, dotoreak eta erabilerrazak baitira»

APITTU
ALUMINIO LANAK
PVC
Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak,
Ateak, Portxeko itxidurak eta barandilak
M. 677 59 48 92
Auzoberri, 1 | 31770 Lesaka
apittulesaka@gmail.com

ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA
PVC LEIHOAK
ABANTAILAK
ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE
Egiturak · Eskailerak · Ateak · Lurrak
Armairuak · Sukaldeak · Egurrezko leihoak · Leiho mistoak
Leitza errep. · 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 388 455 · F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA
parketak · ateak · leihoak...
teilatuak · estrukturak · tarimak
Tel.: 607 890 923 | Zalain ind, 7 · BERA

OKILA
zurgindegia
tarimak, lehioak, ateak, eskailerak...
obretako lanak orokorrean
Lander Sein
607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa,32 · IGANTZI

betiko

Presta zaitez negurako ...

Berritu zure leihoak

Aprobetxatu dauden diru-laguntzak, gestioekin lagunduko dizugu!

THERMOFIBRA
by deceuninck

Uf 0.88 (W/m² K)



Energia-eraginkortasun handiko leihoak deceuninck

www.betikopvc.com • T. 948 45 32 59 • betikopvc@betikopvc.com

RZG ROTULOS

- Kristalak tindatzea
- Autoak errotulatzea
- Inprimatze digitala
- 3Dko kartel argidunak
- Eranskailuak eta kartelak pertsonalizatzea
- Lokalak errotulatzea
- Kanpoko seinaleak
- Publizitate-olanak
- Bisita-txartelak, albaranak, etab.

Errotulazioan eta diseinuan aritzen gara. Egin nahi duzun proiekturako hainbat proposamen ditugu eskaintzeko, eta hori gauzatzen lagunduko dizugu.

Tel.: 948 58 09 77 - 647 00 63 36
Pol. Ind. Zaldubia, 1
31730 Irurita (Nafarroa)

TRANSTXAKAIN

TRANSTXAKAIN. s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

Aurreztu!

ERAIKUNTZA-HONDAKINEN KUDEATZAILEA (Nafarroako Gobernuaren baimena)

KONTENEDOREEN ALOKAIRUA 20m³ arte

PUTZU SEPTIKOEN GARBITZE ETA LIBRATZE LANAK

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK
- Kamioia 15mko garabiarekin
- Kamioia 32mko garabiarekin
- Kaja baskulatzailearekin

- Zisternarekin:
  Putzu septikoak
  Tuberietako ataskoak kentzea
  Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 • LESAKA • info@transtxakain.com
T. 669 840 198 | 948 638 052 • F. 948 627 578

AISLAnat
AISLANTE DE CELULOSA

ISOLATU ZURE ETXEA ETA AURREZTU

Isolamendu termikoa eta akustikoa

% 50 aurreztu | **Egun batean** | **Obrarik gabe**

BEGIRATU ZEIN ERRAZA DEN JARTZEA

AislaNat, **Nafarroan ekoiztutako** zelulosazko isolamendu bakarra.

Isolatu zure etxea zelulosarekin,
egun batean,
obrarik gabe,
gutxi gastatuta
eta **produktu ekologiko** batekin.

www. aislantesaislanat.es
948 33 00 15 - 627 41 22 69

Punta-puntako berrikuntza teknologikoak iturgintzan ere aplikagarri

Azken berrikuntzak garrantzia hartzen hasiak dira etorkizuneko sukalde eta bainugelak diseinatzerako orduan.

Teknologia eta jasangarritasuna maiz uztartzen diren bi kontzeptu dira, eta iturgintzan ere efizientzia geroz eta gehiago eskatzen da.

Hoditeria adimenduna

Sistema domotikoak dira, hau da, automatizatuak daude eta tresna guztiak sistema bakarrean biltzen dituzte. Errekurtsoen erabilera optimizatzen dute, xahukeria ekidituz eta ingurumenari lagunduz. Gainera, gerta daitekeen edozein arrisku edo kalte aurreikusteko gai dira, hondatzeak eta ur-ihesak, adibidez. Instalazio osoa monitorizatzen dute sistema hauek, edozein irregulartasun antzemanez eta kokaleku zehatza adierazten duen alerta bidaliz.

Ingurumena errespetatzea

Joera jasangarriak eta munduarekiko kontzientzia jendartean zabaltzen ari dira, eta beraz bezeroek geroz eta gehiago hartzen dute kontuan ingurumen-inpaktua. Jario mugatuko txorrota, dutxa eta zisternekin uraren erabilera murrizten da, baita faktura-ren gastua ere.

LED teknologiak

Txorrotari ere teknologia adimendu-na gehitzen ahal zaio errendimendua hobetzeko. LED argiekin, adibidez, uraren tenperaturari buruzko informazioa adieraz daiteke, kontsumoaren eta erabileraren inguruko kontrol handiagoa edukitzeko.

Smart etxetresnak

Gaur egun plater eta arropa garbigailuak, galdarak eta baita komun ontziak ere adimendunak izan daitezke. Sistema informatikoen bidez kontrolatzen ahal da erabilera; uraren tenperatura, zikloen programazioa… gainera, telefono mugikorrarekin sinkroniza daitezke, guztia sakelakotik kontrolatu ahal izateko.

Uraren birziklapena

Etxean kontsumitzen dugun ur gehiena ur grisa bihurtzen da, hau da, ez da ur beltza (zikina) ezta zuria (edatekoa) ere. Joera berriekin ur hau birziklatu eta berrerabil daiteke, lorategian edo komunontzian, adibidez. Horrela, bertze gisa naturan isurtzen eta kutsatzen bukatuko lukeen ura erabilera ziklora bueltatu daiteke.

JAVI PETRIRENA

Iturgintza eta elektrizitatea

- ITURGINTZA
- ELEKTRIZITATEA
- BEROTZA
- BIOMASA
  PELLET - EGURRA
- KLIMATIZAZIOA
- GASA

Tel. 679 354 947
jpinstalazioak@gmail.com

Manterola

Técnico instalador 629 449 602

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNEKO & SUKALDEKO OSAGARRIAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Zerbitzu & Gremioen koordinazioa

Domiko

galdarak eta estufak

Pellet eta egur berogailuetan adituak

«Kalitate goreneko produktuak»

www.domikorenovables.com
domiko.xabat@gmail.com · T. 639 914 455

---

gaztelu scl

ITURGINTZA

Landa Behikoa Industrialdea, 21 31880 LEITZA
T. 948 510 086
info@fontaneriagaztelu.com
www.fontaneriagaztelu.com

- **ITURGINTZA:**
  - Obra berri, erreforma eta mantenimendua
  - Diseinua zure neurrira
- **KLIMATIZAZIOA:**
  - Biomasan adituak
  - Aerotermia
  - Gas, gasoil, pellet eta egur galdarak
  - Ekoizpen sistema konbinatuak
- **ETXEBIBIZITZEN ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK**
- **KOMUNEN ERABERRITZEAN GREMIO GUZTIEN ANTOLAKUNTZA**

**KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUAK
**FINANTZATZEKO AUKERA

SUKALDEAK
LEIHOAK
ZURE ETXERAKO
BEHAR DUZUNA
IRUNEN DAGO
ITURRI
SINCE 1929
ERAIKUNTZA
ATEAK
KOMUNAK

BRIKO
BAZTAN, SL
Obrak, eraberritzeak eta pintura
Bainuontziaren lekuan
dutxaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak
Egurrarentzako tratamenduak:
Egur lakadura eta bernizadura
Egurra konpontzeko injekzio-sistema
Sitsaren eta pipiaren kontrako tratamenduak
T. 608 016 052 | San Andres, 66 · NARBARTE (Sarrera Legasatik) | briko-baztan@hotmail.com

Hotzari aurre egiteko hamaika modu

Kostatu bazaio ere, hotza gure eskualdera ailegatu da, eta garai honetan denoi gustatzen zaigu etxera ailegatzean goxo-goxo egotea. Berogailu sistema eraginkor batek energia eta dirua aurrezten laguntzen du, beraz, etxerako aukeratuko dugun berogailua ongi pentsatu beharreko erabakia da. Hauek dira gaur egun merkatuan dauden sistema nagusiak:

Kondentsazio galdara

Gaur egun gas galdarak dira berogailu sistemarik ohikoenak, eta hauen barnean kondentsazio galderak dira efizienteenak. Etxetik barrena erraz banatzen dute berotasuna eta ur beroa, energia aurrezten dute eta haien funtzionamenduari esker, erregaien kontsumoa eta gasen isurketa murrizten da.

Bero ponpa da sistemarik efizienteena

Momentu honetan merkatuko sistemarik efizienteena da, eta erabiliena bihurtzen ari da. Energia elektrikoaren bidez sortzen du beroa (eta hotza), aireko berotasuna hartuz eta handiagotuz. Erabilera moldakorra dauka eta horri esker beroaren hedapenerako sistema aunitzekin erabil daiteke; tenperatura baxuko erradiadoreak, zoru erradiatzailea, *fan coil*ak... Gainera, berotasuna airetik hartzeaz gain (aerotermia), uretik (hidrotermia) eta lurretik (geotermia) ere har dezake, eta energia fotovoltaikoaren hibridatzen ahal da kontsumoa guztiz deuseztatzeko.

—>

tinka energiak
www.tinkaenergiak.com | tinka@tinkaenergiak.com

Pol. Ind. Zozaia Errota | ZOZAIA
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032

SERRERIA ALEMAN S.L

Teilaturako estrukturak • Tarima • Laminatuak • Haritza • Tratamenduak • ...

Frantziako errep. 2-A **ERRATZU**
Tel. 948 453173 - Fax: 948 453082
serreriaaleman@gmail.com

BEROTZA PELLET

PELLET SISTEMEN SALMENTA, INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

948 450 063-620 886 443
info@berotza.es-www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)

BEROGAILUA

GALDARA MISTOA



AEROTERMIA ETA GEOTERMIA

GALDARA

Biomasa bidezko berogailua

Erregai alternatibo eraginkorra da biomasa, eta bero ponpen gisara, gero eta gehiago erabiltzen dira berogailu hauek. Hainbat erregai motarekin erabil daiteke; pelleta, egurra, oliba hezurrak... eta estufa gisa edo galdara tradizionalak bezala erabiltzen ahal da. Garrantzitsua da kontuan hartzea sistema hau erabiltzeko araututako eta legeak onartutako ke-aterabide bat beharko dugula.



Efizientzia haundiagoa nahi duzu? Sistema hauek nahiko eraginkorrak dira berez, baina energiaren kontsumoa oraindik gehiago optimizatu dezakegu hainbat gauza kontuan hartuta, bertzeak bertze, erregulazio sistemak, etiketa energetikoa eta isolamendua.

Erregulazio sistema elektronikoekin berogailuaren tenperatura automatikoki erregulatzen da, beharrezkoa baino gehiago kontsumitu ez dezagun.

Etiketa energetikoaren bidez efizientzia maila jakin dezakegu Atik Gra kalifikatuak, A izanda mailarik optimoena. Horregatik, sistema berri bat aukeratu aitzinetik etiketari erreparatu behar diogu, kontsumo energetikoaren, zarata mailaren eta efizientziaren inguruko informazioa izateko.

Etxean **isolamendu termiko** egokia edukitzea ezinbertzekoa da berogailuaren funtzionamendua guztiz efizientea izan dadin, energiaren galera murrizten baitu eta tenperatura barnean mantendu. Isolamendua hobetzeko material egokiak erabili behar dira eta ihesak antzeman eta konpondu.

ORLEGHY
-RENOVABLES-
Biomasa galdarak
(egurra, pelleta eta ezpalak)
Geotermia eta aerotermia
Instalazioa eta mantentze lan ofizialak
Interneten bidez pellet salmenta
Autokontsumorako eguzki-plakak

Deitu konpromisorik gabe!
www.orleghy.com
info@orleghy.com
T. 948 562 604 - M. 603 417 554

FONTANERIA
Carlos
Carlos Pacheco
C/Leguia nº 19
31780 BERA (Navarra)
Telefono: 637 15 11 70

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65
BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
IBILGAILU ELEKTRIKOA
KARGATZEKO GUNEA
DOMOTIKA
EGUZKI PANELAK

Erlaxatzeko eta egunerokoa ahazteko gela

Bainugelek aspaldi utzi zioten garbitasunari soilik bideratutako espazioak izateari; erlaxatzeko eta egunerokoa ahazteko gelak dira. Honek eragina du gelaren antolamenduan, dekorazioan eta funtzionamenduan. Ildo horri segituz, aurten hainbat tendentzia nagusitu dira:.

Tonu neutroak eta natura inspirazio gisa:
Erlaxatzean pentsatzean, denoi etortzen zaizkigu burura elementu naturalak; zelaiak, zuhaitzak, ibaiak, loreak… hauek denak gure bainugelara eramateko unea dugu, landareekin, paper pintatuarekin edo egurrezko detaile eta osagarriekin. Eta hau kolore eta tonu neutro eta itzaliekin uztartzen badugu, etxeko gelarik lasaigarriena bihurtuko dugu.

Komuna zeure neurrira:
Harri naturala, panel handiak… tamaina handiko elementuak garrantzia hartzen hasiak dira interiorismoan, baita bainugeletan ere. Geroz eta arinagoak dira materialak, muntatzeko errazak eta ia junturarik gabekoak. Beraz, bainugelak handiagoa emanen du.



Baina zeurea gela ttikia bada, elementu ttikiak ere edertasuna eman diezaiokete bainugelari, adibidez, zeramikazko pieza ttikiekin (hexagonoak, triangeluak, laukizuzenak…) paretak eta lurra apaindu daitezke eta efektu bisualak sor ditzakete. Koloreei dagokienez, urdina, arrosa eta horia dira nagusi azken aldian.

Marmola ere modernoa izan daiteke:
Marmola, bere testura eta iraunkortasunagatik, material paregabea da lur eta paretetarako. Hainbat kolore eta tonu izan ditzake eta askotariko diseinuak sortu. Bertze zerbait nahi dutenentzako, alternatiba onak dira material portzelanikoa eta harri sintetikoa, bertzeak bertze.

INDARRI
Hotz komertziala eta industriala
Aire girotua
T. 639 103 305 • Ziobi, 15 LESAKA
indharri@gmail.com

EZPELURA ITURGINTZA
Berokuntza • Gasa • Eguzki-plakak
Elektrizitatea • Zoru bero emailea
Biomasa • Aerotermia
T. 606 337 427 | OIZ
info@ezpelura.com
www.ezpelura.com

ULI-ZAR ELKARTEA, S.L.
ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA
MOBLEAK | MANPARAK
KOMUNERAKO OSAGARRIAK
Bide-ondo etxea • ARESO • Tel.: 647 525 516

Jaurena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

· Elektrizitatea
· Sukaldeak
· Etxetresnak
· Eguzki panelak
· Autoentzat kargadore elektrikoak

· Probextu eguzkiaren energia eta paratu EGUZKI PANELAK
· Proiektuak, baimenak eta diru-laguntzak bideratzen ditugu.

ekoiztu zure energia, izan EKOlogikoa

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450
LEGIA, 23 - BERA

ELEKTRIZITATEA

Eguzki panelak jartzearen onurak azaldu ditu FACUAk

Autokontsumo elektrikoa inoiz baino presenteago dago: argindarra prezioa maximo historikoetan eta teknologia merkatzen ari dela, fakturan guttiago ordaintzeko eguzki panelak jartzen hasi da jendea.

Autokontsumorako energia berriztagarrien artean, gaur egun eguzki panelak dira, zalantzarik gabe, etxeetan gehien instalatzen ari den alternatiba. Legediaren aldakaketak eta administrazio publikoetatik eta Europako diru-funtsetatik datozen dirulaguntzek ere nabarmen lagundu die zalantzan zeudenei pausua ematerakoan. Zentzu horretan, Espainiako Gobernuak autokontsumoa arautu zuen 2019an eta, geroztik, eguzkiaren gaineko zergarekin amaitzea erabaki zuen.

Autokontsumo elektrikoa

Autokontsumoa da norberak kontsumitzeko energia ekoiztea energia berriztagarrien bitartez. Gaur egun, bateria edo biltegiratze hibridatua duten eguzki-instalazio fotovoltaikoetan oinarritzen dira autokontsumoan nagusi diren sistemak. Autokontsumoa, bistan dena, etxeetan, enpresetan, erakundeetan, ikastetxeetan, udaletxeetan, hau da, hornidura elektrikoa duen edozein puntuari instalazio bat erantsiz egin daiteke.

ZIGA
ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean

Autokontsumorako eguzki-instalazio fotovoltaikoen instalazioetan bi modalitate nagusi daude:

SOBERAKINIK GABEA:

Kasu honetan sistema berezi bat instalatu behar da ziurtatzeko ekoizten dugun argindarraren soberakinak ez direla sarera isuriko. Modalitate hau, beharbada, interesgarria izan daiteke instalaziorako beharrezkoak diren baimenak sinplifikatzeko.

SOBERAKINEKIN ETA KONPENTSAZIOAREKIN:

Kasu honetan, aldiz, norberak bere etxeko teilatuan instalatu duen autokontsumorako instalaziotik datorren energia erabiliko du behar duenean; eta energia hori nahikoa ez denean, sareko energia eros dezake.

Autokontsumorako instalaziotik datorren energia guztia kontsumitzen ez denean, aldiz, soberakin hori sarean injektatu ahal izanen da, eta, fakturazio-aldi bakoitzean, merkaturatzaileak jaulkitako fakturak sareari erositako energiaren kostua konpentsatuko du orduko merkatuaren batez besteko prezioan (PVPC kontsumitzaileentzat) edo merkaturatzailearekin adostutako prezioan balioetsitako energia soberakinarekin; ondotik, bidezkoak diren bidesariak eta zergak aplikatuko dira. Emaitza ez da inola ere negatiboa izanen.

Eguzki panelak merkeagoak orain

Energia elektrikoa ekoizten duten eguzki panel fotovoltaikoen instalazioak, duela urte batzuk baino ekonomikoagoak dira orain. Kontsumo ertaineko etxe batean, energia garbi hori instalatzeko inbertsioa 4-5 urtetan amortizatu ohi da.

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Proiektu elektrikoak | Argindar instalazioak
Domotika | Eguzki panelak
Zalain Ind., 42 | BERA
T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

elicetxe
suministros electricos
material elektrikoak
Tel: 948 581 261 · Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 (Industrialdea) · ELIZONDO
elicetxe@elicetxe.es

ELEK BERRI
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK (ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)
ENPRESEN MANTENIMENDUA
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK
TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK
PORTERO AUTOMATIKOAK
DOMOTIKA
INSTALATZAILE BAIMENDUAK
Santiago 118, Elizondo (Na) · elekberri@gmail.com · 646854825 // 616898065

DANI INSTALACIONES
TXINTXETA
LESAKA
ELEKTRIZITATEA
ALARMAK
SEGURTASUN KAMARAK
INTERFONOAK
SUTE DETEKZIOAK
T. 666 545 069
daniinstalaciones@gmail.com

Melo Pinturak
T. 609 873 178
LEITZA
melopinturas@hotmail.com
www.pinturasmelo.com

Inzakardi Pinturak
- PINTURA LANAK OROKORREAN -
Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488
Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN

Pinturas Iñaki Alzuyet margoak
Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)
pinturasalzuyet@gmail.com
www.pinturas-alzuyet.com
Fatxaden zaharberritzea
Barne-dekorazioa
Isolamenduak pladurrean
Pintura industriala
Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan

Bete ditzagun kolorez gure etxeko gelak

Gure etxearen itxuraz aspertu bagara eta berritu nahi badugu, gelen kolorea aldatzea modu azkar, merke eta eraginkorra da guztiz itxuraldatzeko. Kolore aukerak infinituak izan daitezke, bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta gelaren arabera aukeratu beharko ditugu. Aurten modan dauden kolore konbinazioak ezagutu nahi badituzu, hemen dituzu hainbat ideia zure etxerako:



Pastel arrosa eta grisa

Kolore paleta suabea da, etxe minimalista modernoentzako aproposa. Bi kolore hauekin tonu hotz eta beroen arteko oreka lortzen da, gelari neutraltasuna eta sentsazio lasaigarria emanez.

Urdina eta marroia

Beige kolore naturala beroek ederki konbinatzen dute urdinaren hoztasunarekin, oreka eta naturaltasuna emanez. Konbinazio dotorea da hau eta etxeko edozein gelatan erabil daiteke; sukaldean, jangelan, egongelan, komunean…

Lur koloreak eta berdea

Konbinazio lasaigarria da, izan ere, ikuspuntu psikologikotik, berdea naturaren, biziberritzearen eta hazkundearen kolorea da, eta segurtasun sentsazioa ematen du. Tonu gris edo urdinekin nahastuta, elegantzia eta xalotasuna emanen dio gelari.

Horia eta urdina

Konbinazio deigarria, uda gogora ekartzen diguna; itsasoa, zerua, legarra... elementu organikoak etxera ekartzeko modua da, gela informalentzako aproposa. Freskotasun sentsazioa ematen du eta etxean oasi bat sortzeko aukera emanen digu.

Gris minerala

Kolore dotorea eta lasaia da grisa, beraz, konbinatzeko arras erraza izan daiteke. Etxe tradizional bati ukitu garaikidea emateko balio du, eta arras ongi funtzionatzen du estilo minimalista edota modernoa duten geletan.

Zuria eta beltza

Klasikoetan klasikoena, zuri-beltza edozein gelarako aproposa da eta ez du inoiz hutsik egiten. Ongi konbinatzen duten bi kolore dira, oreka eta elegantzia ekartzen dutenak. Horma zuriak eta altzari beltzak luxuzko gela bihurtzen dute etxeko edozein txoko.

zeramikaren
Benta
venta du carrelage

asteartetik ostirala arte:
09:00-12:30 / 14:00-18:30

larunbata:
09:00-12:30 / 13:30-18:00

Lori venta
31710 | Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Mug.: 0033 615 11 52 23
info@ventaducarrelage.com
www.ventaducarrelage.com

GRUP GAMMA

ALMACO Eraikuntzako materialak

Errepide nagusia, ELIZONDO | 948 580 104 | www.almacobaztan.com

Sukaldeetan joera berriak nagusitzen ari dira

Etxeko sukaldea berritu nahi baduzu edo bertzerik gabe itxuraldatu, indarrean dauden tendentzia berriak ezagutu nahiko dituzu. Hona hemen:

Sukalde argitsuak eta irekiak

Etxe zahar eta tradizionaletan arras ohikoa ez bada ere, etxebizitza berrietan geroz eta gehiago ikusten dira sukalde irekiak eta jangelarekin edo egongelarekin lotuak. Aukera ona da batez ere leku mugatua dugunean, argitasuna emanen baitio sukalde-jangelari.

Sukalde jasangarriak

Etxeko bertze xokoetara bezala, sukaldera ere ailegatu da ingurumenarekiko ardura. Material natural eta ekologikoak aunitz erabiltzen dira, ingurumena errespetatzen duten ekoizpen prozesuak dutenak. Honez gain, teknologia berriekin baliabideak errentagarriagoak egin ditzakegu eta kontsumoa murriztu; ura aurrezten duten txorrotak, etxetresna efizienteak...

Eguneroko otorduetarako nahikoa dugu txoko ttikekin

Gizartearen erritmo azkarrari moldatzen dira gaur egun sukaldeak, eta egunerokoan gosaldu, bazkaldu edo afaltzeko ez dugu mahai edo jangela handien beharrik. Sukaldean otorduetarako txoko batekin aski izaten da aunitzetan; mahai ttiki bat paretaren kontra, gosaltzeko barra eta aulki batzuk edo mahaitxo borobil bat, bertzeak bertze. Sukaldetik bisualki banatzeko, paper margotua eta dekorazioa erabil daiteke gelaren txoko horretan.

Marmol itxurako sukalde gainak

Sukalde modernoetan nabarmentzen den akabera portzelanikoa da, sukalde gainetan zein mahaietan. Benetakoa nahiz imitazioa izan, material garbia eta argitsua da, eta dotoretasuna ematen dio sukaldeari. Tendentzia hau ez da inolaz ere berria, baina inoiz baino indar gehiagorekin etorri zaigu aurten eta etorkizunera begira ere horrela segituko duela ematen du.

Txorrota beltzak

Altzairu herdoilgaitzeko txorrotak alde batera utzita, txorrota beltzak gailentzen hasi dira egungo sukaldetan. Tradizionalak baino originalagoak dira eta helduleku eta lanpara beltzekin batera, gehiago kontrastatzen dute sukalde txuriarekin.

COSAS DE CASA
SANTESTEBAN INTERIORISMO



SARA APEZTEGUIA LARRAINZAR
INTERIORISTA

•

AURREKONTUAK eta 3D PROIEKTUAK

INTERIORISMO INTEGRALA

ARRETA PERTSONALIZATUA KOLTXOIETAN

ESPEZIALITATEA LANDA-ETXE eta APARTAMENTU TURISTIKOETAN

ETXERA ERAMATEA eta MUNTAIA

•

948 450 409
Mourges etorbidea, 22
Aparan industrialdea, 1. Nabea Doneztebe
sara@santestebaninteriorismo.es
www.santestebaninteriorismo.es

Jaurena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

- Elektrizitatea
- Sukaldeak
- Etxetresnak
- Eguzki panelak
- Autoentzat kargadore elektrikoak

«Egunerokoan ez dugu jangela handien beharrik jateko, otorduetarako sukaldeko txoko batekin aski da»

muebles ORDOKI altzariak

Bittiria, 18 | LESAKA
T. 948 638 076
info@mueblesordoki.com

www.mueblesordoki.com

40 urtez diseinuak egia bihurtuz
SUKALDEAK · KOMUNAK · JANTZIGELAK

BORTZIRIAK

C/ Bidasoa 45, Bera (Nafarroa)
info@bortziriak.com
948 630 377

Miguelena

SUKALDEAK

Etxetresnak
Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

T. 948 450 925 I M. 624 47 57 25
Ameztia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.es

BIDASOA ALTZARIAK

ALTZARIAK · DEKORAZIOA

Altzariak, oihalak,
alfonbrak,
eta dekorazio
eskaintza berriak.

Nafarroa ibilbidea,9 IRUN
T. 943 63 29 32
info@mueblesbidasoa.es
www.mueblesbidasoa.es

MENDI TXURI
BigMat

Leitzako Bidea, 39 · 31740 DONEZTEBE
Tel.: 948 45 03 05
F. 948 45 00 68

www.menditxuri.com

Nola ekidin saguen eta arratoien ugaritzea?

Saguen eta arratoien kontrolaren inguruan solastatzen garenean, edozein metodo erabili aitzinetik (pozoia, arteak…) ezinbertzekoa da arau batzuk betetzea, hauek izanen baitira kontrol arrakastatsu baten funtsa.

Arratoi-hiltze pasiboa

Sistema honek arratoiak eta saguak espazio zehatz batzuetan sartzea du helburu, bizitzea eta ugalketa eragozteko. Metodo hauekin arratoien eta saguen irteerak eta sarbideak oztopatzen dira, urik eta elikagaiak lor ez ditzaten.

Ura

Inguruan dauden putzu edo ur fokuak saihestu behar dira, eta inguruko zisternak ongi itxiak daudela ziurtatu.

Elikagaiak

Elikagai guztiak leku berean gorde behar dira, kutxa edo kaxoi hermetikoetan sartuak. Eta bidenabar, sukaldean soberan gelditu diren elikagaiak, modu egokian gorde edo bota behar dira, eta zakarrontziei tapa jarri.

Eraikuntzak eta lokalak

Hainbat neurri har ditzakegu; sotoetan breazko lurra, zuloetan metalezko sareak, komun-ontziak sifoiarekin, egurrezko ateen behealdean metalezko zati bat (25cm ingurukoa), lurrera ongi lotutako estoldak, kanpo-estolda pisutsuak, isurbideak behar bezala babestuak…



DESINBERA

T. 667 680 238
www.desinbera.com
info@desinbera.com

DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMENDUAK

Termiten aurkako tratamendua amu bidez

Termita, xilofago, onddo eta lizunen aurkako tratamenduak. Egur egituren bizi iraupena luzatzen lagunduko dizuegu.

Tratatu aitzinetik

Produktuarekin

Produktua xurgatu ondotik

Gel bidezko xilofagoen aurkako tratamendua

LEITZA

Eskola eremuko lanen bukaera ospatzeko prest

Azaroaren 24an estalpea eta eskola atariko moldaketak bukatu dituztela ospatzeko hezkuntza komunitate osoa bilduko da

TTIPI-TTAPA

Eskolako estalpearen obrak eta atariko moldaketak bukatu direla ospatzeko, pesta ttiki bat eginen dute azaroaren 24an. Mikel Zabaleta alkateak aurreratu duenez, «800 lagun baino gehiago» bilduko dira, «estalpea eta gainerako moldaketak beharrezkoak izan diren erakusle»: Amazabal institutuko ikasleak eta irakasleak, Erleta eskolak ikasleak eta irakasleak, eskolako eta institutuko guraso elkarteko kideak eta udal ordezkariak elkartuko dira.

750 metro koadro inguruko estalpe argiztatua eraiki dute (38x20m), eta horrez gain, oztopo arkitektonikoak ezabatu dituzte lehen eskailerak ziren tokietan aldapak eginez. Bi futbol zelaiak berritu eta pintatu dituzte eta kirolerako elementu berriak jarri: lau kanasta, sarea boleibolean jokatzeko... Horrez gain, bi zelaietako lurra leundu eta pintatu dutenez, patinekin ibili nahi dutenek erabil dezakete. Estalpearen ondoan argi koadro bat ere jarri dute, ekitaldiren bat baldin bada eskura izateko.

Goiko Errotatik Inguruarteko presarainoko zatia garbitu dute

JUAN MARI BARRIOLA

Inguruarteko kanala garbitzeko lanetan 3.000 m^3 inguru material atera dituzte. Nafarroako Gobernuak eta arrain-haztegiko kudeatzailearen artean egin dituzte lanak, eta horrez gain, gobernuak Goiko Landan uholdeetan izandako kalteak ere moldatu ditu: baratzeetan sortutako zulo eta arrakalak lurrez bete eta harri-lubeta berri bat egin dute. Errekatik ateratako materiala, berriz, mendiko bideak moldatzeko erabiliko dute. Batetik, Auzmendiko pistatik Sorogainera doan pista moldatzeko aprobetxatuko dute eta bestetik, Kitarran bueltan ere utzi dute materiala, hurrengo urtean Korteko bordako bidea moldatzeko.

Hitzaldia eta tailerra egunotan familia txokoaren barne

TTIPI-TTAPA

Adin txikikoen tratu onen sareak antolatutako familia txokoak bi hitzordu eginen ditu azaroan herrian. Alde batetik, ostegun honetan, Estitxu Fernandezek 18-36 hilabete bitarteko haurren autonomia eta mugak izanen ditu hizpide udaletxeko bigarren solairuan, 17:00etatik 19:00etara. Bestetik, azaroaren 29an bizkar osasuntsuaren inguruko tailerra eginen dute, hau ere udaletxeko bigarren solairuan. 0 eta 3 bitarteko haurrak dituzten familiako kideei zuzendua da: gurasoei, aiton-amonei, haurdun dauden emakumeei... Edoskitze egokirako eta haurrak eramako garaian bizkarra zaintzeko aholkuak emanen dituzte osasun etxeko erizainek.

EÑAUT LASARTEK UTZITAKOA

Independentzia Egunaren balorazio ona

Mendialdeko Sortuk, LABek eta Ernaik antolatuta, Independentzia Eguna egin zuten azaroaren 5ean. «Oso balorazio ona» egin dute antolatzaileek, eta diotenez, «independentismoa bizi-bizi dagoela erakutsi genuen. Are gehiago, indarrez eta itxaropenez beteta ekinen diogu datorrenari».

JULIAN ZABALETAK UTZITAKOA

Udazken Pesta giro ederrean

Denok Bat guraso elkarteak antolatuta, Udazken Pesta egin zuten urriaren 31n. Marrazkiak eta eskulanak egiten aritu ziren, jokoetan ere bai, gaztainak jateko aukera ere izan zuten eta musika lagun dantzan ere ibili ziren. Arratsalde atsegina pasatu zuten haurrek eta gurasoek.

Herri Aretoan aste honetan izanen diren hitzorduak

TTIPI-TTAPA

Hitzaldi batek eta film eta dokumentalen emanaldiek osatuko dute azaroa bukatu bitarteko agenda Herri Aretoan.

Asteazken honetan, azaroaren 16an, Arkupeak jubilatuen elkarteak antolatuta, *Jubilatuen egoitzak. Zein dira desberdintasunak?* hitzaldia izanen da, 17:00etan. Azaroaren 19an eta 20an, 16:30eko saioan *Cerdita* pelikula ikusteko aukera izanen da eta 19:00etan *Mira como corren*. LHLkoen *Ertzak leuntzen* dokumentala azaroaren 26an emanen dute. Xehetasunak hurrengo orrialdean.

Manex Moreno ezkerrean, Iraitz Uriarteri eta Iker Gomezi grabatzen.

LHLkoen 'Ertzak leuntzen' dokumentala ikusgai

Manex Moreno Uharte gazteak egin du dokumentala eta azaroaren 26an estreinatuko dute Herri Aretoan

TTIPI-TTAPA

Ertzak leuntzen dokumentala estreinatuko du LHLko lantaldeak azaroaren 26an Herri Aretoan, 19:00etan. Sarrera dohainik izanen da. LHLkoek gonbidapenak banatuko dituzte, baina nahi duenak izanen du ikustera joateko aukera.

LHLko Oihana Amundarainek azaldu duenez, «esanahi bikoitza» du izenburuak. Batetik, «lurreko oztopoak leuntzeari egin nahi dio erreferentzia», eta zehazki, «plazara iristeko bidearekin lotura zuzena du. Gurpil-aulkian ibiltzen den jendeak galtzada-harria leunduz plazara iristeko aukera izatea zen gure hasierako lorpenetako bat». Bestetik, «gutxiengoen ikuspegia» bildu nahi izan dute: «'ertza' hitza asko erabiltzen da periferiari erreferentzia egiteko, erdigunean ez dagoenari edo gutxiengoak bizi duenari erreferentzia egiteko. Guk erdigunean eta ertzeetan dauden pertsonen arteko mugak leundu nahi ditugu eta denok toki berean bizi garela adierazi».

45 bat minutuko lana da eta proiektua nondik sortu zen azaltzeaz gain, badu beste helburu bat: «zer ikasi dugun adierazi eta mezu jakin bat zabaldu».

Dokumentala Manex Moreno Uharte 25 urteko gazteak egin du. Bilbon goi mailako zikloa eta Mondragon Unibertsitatean ikus-entzunezko gradua egin ondoren, Bartzelonan dokumentalgintzako masterra ikasi zuen. Zuzendari lanetan *Ertzak leuntzen* du laugarren lana, «baina ikasketetatik kanpo hau da profesionalki aurrenekoa». *El barco que atravesaba la montaña* master bukaerako bere lanak ere aipamena merezi du, hainbat jaialditan ematen ari baitira.

Leitzako Udala
Gertatzen da eta badira erantzuleak
A 25 - Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna

Herriko ordezkariak eta parlamentariak urriaren 26an. NAFARROAKO PARLAMENTUA

Futbol zelaiko gabeziak azaldu dizkiete parlamentariei

TTIPI-TTAPA

Udaleko eta Aurrera Kirol Elkarteko kideek futbol zelaia berritzeko laguntza aurrez aurre eskatu zioten urriaren 26an Nafarroako Parlamentuko ordezkariei. Belar naturalaren partez artifiziala edo sintetikoa jarri nahi dute, eta dorreetako argiak led sistemakoak jarri argiztapena hobetzeko eta gastua murrizteko. Aldagelak ere berritu nahi dituzte, eta baranda egokitu. 600.000 euroko inbertsioa izanen litzateke. Denboraldi honetan hamabi talde eta 205 jokalari ditu Aurrerak eta egungo instalazioekin behar horri erantzutea «ezinezkoa» dela adierazi zuten.

Naiara Juanikorena saritua

Arnasetik euskarazko sormen lehiaketan, DBHko 1. eta 2. mailakoen artean, Amazabal Institutuko Naiara Juanikorena Mariezkurrenaren *Ni naiz ni* lana saritu dute. Bi lan izendatu ditu garaile eta horietako bat da berea.

BERA
KATEA BIKE
Bizikleten salmenta eta konponketa.
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com
SCOTT PINARELLO MASSI MERIDA BIKES
BERGAMONT BH colner LOOK

Dena prest XVIII. azienda, artisau eta nekazaritza feriarako

Feria batzordeak baserritarrez jantzita joateko deia egin die herritarrei

TTIPI-TTAPA

Hemen da egutegian seinalatutako azaroko hitzordua: Feria Eguna. Azaroaren 26an eginen da azienda, artisau eta nekazaritza feria eta aurtengoa XVIII.a izanen da.

10:00etan emanen diote ofizialki feriari hasiera. Ordu horretatik aurrera aziendak eta postuak ikusgai eta salgai izanen dira bazkalordura bitarte. Joaldunak eta trikitilariak ere ibiliko dira eta 12:00etan toka txapelketa hasiko da.

14:30ean bazkaltzeko bilduko dira. Bertako babarrunak, betizu gisadua eta postrea izanen dituzte bazkaltzeko eta txartelak Amaia kafetegian eta estankoan eros daitezke. Helduenak 22 eurotan, ikasle eta langabeenak 18 eurotan eta 9 eta 16 urte bitartekoenak 11 eurotan daude; 8 urtetik beherakoenak doan.

Antolatzaileek Feria Egunean baserritarrez jantzita joateko deia egin dute.

Ekitaldi gehiago

Bestalde, asteburu honetan, batetik, Jubilatuen Eguna izanen da eta bestetik, Etorkinen Egunа. Jubilatuen kasuan, larunbatean, hilaren 19an, 16:00etan truk eta mus txapelketak jokatuko dituzte Umore Ona Elkartean, eta igandean, 11:00etako mezaren ondoren, pilota partidak ikustera joanen dira. 14:00etan elkartean bazkaria eginen dute. Txartelak erosteko azken eguna asteazkena izanen da. Etorkinek ere larunbatean ospatuko dute beraien eguna, Oxeguarda jatetxean bazkaria eginez.

Azaroaren 25ean, berriz, Alarma Morea taldeak kontzertua emanen du gaztetxean.

Urumean udan izaten diren arazoak hizpide

Auto pilaketak, zaborra bildu gabe... Udan Urumea inguruan ohiko diren gertaerei konponbidea eman nahian, herritarren iritzia bildu nahi dute Goizuetako eta Aranoko udalek, «gure bainu guneak jasangarriagoak nahi ditugulako». Bi saio antolatu dituzte; aurrenekoa azaroaren 3an Aranon egin zuten arazoez aritzeko eta ostegun honetan, azaroaren 17an, Goizuetan eginen dute bigarrena, udaletxeko ganbaran, 19:00etan. Batzar irekia izanen da eta arazoei aurre egiteko aukerak izanen dituzte hizpide.

Artikutzako Labetaraino kotxez sartzeko aukera

Orain arte Goizuetatik Artikutzara joateko Arriurdinetan utzi behar zen autoa. Orain, ordea, autoa Labetaraino hurbil daiteke. Hor aparkaleku ttiki bat egokitu dute, kotxea utzi eta bertatik oinezko ibilaldiak hasteko. Informazio gehiago: *goizueta.eus*.

Ongizate emozionalaz hitzaldia gurasoentzat

Urrian Nerea Mendizabalek komunikazio ez bortzitzari buruz eman zuen hitzaldiaren ondoren, gizarte zerbitzuek prest dute gurasoentzako hitzaldi zikloko bigarren saioa: Azaroaren 28an izanen da eta seme-alaben ongizate emozionala sustatzeaz ariko dira. Haurren eta nerabeen gurasoei zuzendutakoa da eta 17:30ean udaletxeko ganbaran hasiko da. Hitzaldia Agintzariko Kontxi Alikostes Murua eta Joana Gonzalez Fernandez psikologoek emanen dute eta aurreko txandan bezala, parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute. Azaroaren 24a izanen da azkeneko eguna eta interesatuz gero, guraso elkarteko helbidera idatzi (*g.elkartea@hotmail.com*) edo gizarte zerbitzura deitu (948 51 08 40) beharko da.

Zaintza zerbitzua ere eskainiko dute eta izena ematerakoan zehaztu beharko da, haurraren izen-abizenak eta telefono zenbakia emanez. Ziklo honen barne, beste bi hitzaldi eginen dituzte ikasturte honetan.

ALAITZ ESKUDERO

Euskaraldian ere hikako forma indartuz

Hikako forma mantentzeko Euskaraldiko lantaldeak antolatutako saio arrakastatsuaren ondoren, hasitako bideari segida ematea erabaki dute. Hasteko, Euskaraldian, Ahobizi eta Belarripresten txapan jartzeko, *h* duten pegatinak banatuko dituzte hika hitz egiteko edo aditzeko prest daudenen artean.

FELIX LOIARTE

Mozorroak soinean Gau Beltza ospatuz

Goizueta eta Aranoko Guraso Elkarteak prestatuta Gau Beltza ospatu zuten urriaren 31n. Txokolate jatea, ibilaldia eta beldurrak sutan erretzeko ekitaldia egin zuten. Etxeko trapu zaharrak eta mozorroak jantzita hainbat lagun elkartu ziren.

Uholdeek eragindako kalteak konpontzeko dirulaguntzak

Euriteen ondorioz bideetan sortu ziren kalteak konpontzeko dirulaguntzak hartuko ditu udalak

ENERITZ IRAOLA

Uholdeak bideetan sortutako kalteak konpontzeko dirulaguntzak lortu ditu udalak. Hainbat enpresei bidali dizkiete gonbidapenak eta eskaintzak jasotzeko zain daude. Jasotzen dituzten eskaintzen arabera zehaztuko dute zein lan egingo diren eta lan horien kostuak.

E. IRAOLA

Dena den, udalak aurreratu duenez, enpresa gutxi eta daudenak lanez lepo dabiltzanez, zailtasunak dituzte eskaintzak lortzeko. Ikusi beharko da, hortaz, nola doan kontua.

Oihan enkantea hutsik

Aurreko aldizkarian aurreratu bezala, udalak Merku, Atxutegi, Otaberro, Elutseder eta Urteaga parajeen ustiapenaren aprobetxamendua enkantera atera zuen. Azaroaren 7an bukatu zen eskaintzak aurkezteko epea, baina hutsik gelditu zen. Hala, bigarren deialdi bat egitea erabaki du udalak, aldi honetan, % 10eko beherapenarekin, hau da, 39.067.26 eurotan.

Bigarren enkantea azaroaren 28an egingo dute udaletxeko bilkura aretoan, eta eskaintzak aurkezteko epea egun horretan ordu erdi lehenago bukatuko da, 14:30ean.

E. IRAOLA

Bigarren saria lortu du Aresok Organikopa lehiaketan

E. IRAOLA

Mendialdea Mankomunitatetik zaborraren kudeaketa egokia egiten duten herriak saritzeko antolatzen duen Organikopan bigarren saria jaso du Aresok. Saria 1.000 eurokoa da eta birziklatutako materialarekin egindako gauzetan gastatu behar da. Udalak diruarekin bi banku erosteko asmoa duela jakinarazi du eta bide batez, eskerrak eman nahi izan dizkie herritarrei beraien ahaleginagatik eta horrela segitzera animatu.

'La Ermita' pelikula grabatzen ibili dira Areson eta Leitzan

TTIPI-TTAPA

Beste behin pantaila handian ikusiko ditugu inguruko txokoak. Baina ez hori bakarrik, baita hainbat herritar ere, figurante lanetan ibili baitira berriki, haur zein heldu. Carlota Pereda zuzendaria Leitzan eta Areson ibili da bere bigarren film luzea izanen den *La ermita* pelikularako eszenak grabatzen. *Cerdita* pelikularen gidoigilea eta zuzendaria da Pereda, eta beldurrezko lana du orain esku artean. Belen Rueda izango da pelikulako protagonista.

Oraingoz ezin da pelikulaz askorik aurreratu eta zain egon beharko dugu herriko aktoreen lana ikusteko. Dena den, figurante lanetan eta jakin-minez begira ibili direnak harrituta gelditu omen dira pelikulan pare bat minutuko iraupena izango duen eszena bat grabatzeak atzetik zenbateko lana duen ikusita.

E. IRAOLA

Mendian bildutakoak lagunartean janez

Gaztainak biltzen saio ederra egina zuten aurretik eta horiek jateko aitzakian elkartu ziren azaroaren 2an haur eta gurasoak. Gaztainak danbolinean erre eta afari merienda egin zuten. Tripa bete eta lagunartean giro bikainean egonda, berriz ere, gaztainondoei begira jarriko dira udazkena ailegatzen denean.

J. OLAZABAL

Gau Beltza antolatu dute aurrenekoz

Urriaren 31n Gau Beltza ospatu zuten herriko hainbat haur eta gaztetxok. Mozorroak soinean eta aurpegiak margotuta, eskea egin zuten herrian eta gero elkartean bildu ziren afaritarako. Aurten piztu den ilusioa ikusita, usadio honen inguruan gehiago ikasi eta ohitura zaharra berritzeko asmotan dira.

Elkarteko bazkideak Venta Larrion jatetxean egindako otorduan. UTZITAKOA

Benidormen eta Lodosan izan dira bazkideak

64 bazkide egon dira Benidormeko bidaian, eta Lodosako irteeran, aldiz, 140. Bi ateraldietan giro ederra izan dute

TTIPI-TTAPA

Azken asteetan ere bidaian joan dira elkarteko bazkideak, Benidormen eta Lodosan hain zuzen ere. Urteroko bidaia izaten da Benidormekoa, eta aurten 64 lagun izan dira bertan urriaren 19tik 29ra. 08:00etan atera ziren eta Castejonen geldialdi bat egin ondotik, Javalambren bazkaldu zuten. Arratsalderako Benidormera iritsi ziren, Poseidon Playa hotelean gelak hartu, afaldu eta atsedena hartu zuten. Bizpahiru egun lainotuak izan zituzten baina tenperatura ona izan zuten, eta gainerako egunak eguzkitsuak izan zituzten.

Urriaren 29an gosaldu eta etxera abiatu ziren Barracasen geldiera bat egin eta ordu biak aldera Castejonen bazkaldu zuten eta arratsaldean etxera iritsi ziren. Hagitz pozik etxeratu ziren bidaiariak, hondartza, mendi-irteerak, erosketak, inguruko herrietara bisitak…denetik egiteko aukera ez baitzuten alperrik galdu.

140 lagun Lodosora

Azaroaren 3an, hiru autobus betez, 140 bazkide joan ziren Lodosara. Autobusetako bat Baztan aldetik abiatu zen, bertzea Beratik eta azkena Elgorriagatik abiatu eta Leitzaldekoak bilduta handik Lodosara joan zen. Ohiturari jarraituz, Peron janari lantegia bisitatu zuten, eta han, kontserbak erosteko aukera izan zuten. Gainera, bertako nagusia den Jesusek eta bere kuadrillak prestatutako hamaiketako goxoa dastatzeko aukera ere izan zuten. Gero Lizarrako feriara joan ziren, eta han feria ikusita, Larrion herriko Venta Larrion jatetxera joan ziren bazkaltzera. Otordu goxoa dastatu zuten, egunari umore ezin hobean bukaera borobila emanez.

Iciar Mikelperizenaren eskutik pintura klaseak

TTIPI-TTAPA

Azken alean elkarteak ikasturterako antolatutako ikastaroen berri eman genuen. Ikastaro guzti horiez gain, heldu den hilabetetarako bertze hainbat ere antolatu dituzte. Pintura lantzeko tailerrak izanen dituzte Iciar Mikelperizena artistak gidatuta, eta Beran, Elizondon, Donezteben eta Legasan izanen dira.

Ondoko ordu eta lekuetan izanen dira ikastaroak: Beran, ortziraletan Beralandetan 18:30ean hasi eta 20:30ak arte; Elizondon Arizkunenean astelehenetan 18:30etik 20:30ak arte; Donezteben Azkarretan asteazkenetan 18:30etan hasi eta 20:30ak arte, eta ortzegunetan 16:00etatik 17:30era, eta Legasan Kattalinen ortzegunetan 16:00etatik 17:30era.

Izena eman nahi dutenek bulegoko 948 450 848 zenbakira edo 618 567 837 telefonoetara deitu behar dute.

UTZITAKOA

Erakusketa Elizondoko ferietan

Azken urteetan ohitura den bezala, bazkideek egindako eskulanen erakusketa jarri zuten Arizkunenea parean. Bertan pinturak, egurrezko lanak, eta Harremana Jubilotekan parte hartzen dutenek egindako bitxikeriak ikusteko aukera egon zen.

UTZITAKOA

Mª Teresa Gomez da urriko sariduna

Etxalarko usategietan erabiltzen den gailuaren izena asmatu behar zuten urriko galderan bazkideek, eta Leitzako Mª Teresa Gomezek lortu du saria. Zorionak! Azaroko galderaren txanda da orain: **Gure inguruko zein eskolak bete ditu berriki 100 urte?** Erantzunak: 618 567 837 zenbakira bidali behar dira.

3 ELIKAGAITIK 1EK ZAKARRONTZIAN AMAITZEN DU

1 kg sagar	2,57€	822 litro
zainzuri lata bat	5,50€	538 litro
1 kg txitxirio	2,89€	4.177 litro
2 litro esne	2,24€	2.040 litro
100 g urdaiazpiko egosia	1,35€	599 litro

ALFERRIK GALTZEA, GUZTIRA **4,85€ 2.725 litro***

*Elikagaien ekoizpenean alferrik galtzen diren ur-litroak

Erosketak ez planifikatzea garesti ordaintzen dugu

Nafarroan elikagaiak alferrik galtzea murrizteko agenda 2022-2027

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

REACTIVAR NAVARRA NAFARROA SUSPERTU 2020-2023

navarra nafarroa green

Erraldoiek, buruhaundiek, gaiteroek eta txistulariek osatzen dute Elizondoko Konpartsa. J LAMEIRINHAS

«Elizondoko Konpartsak kristoren bizitasuna ekartzen dio herriari»

ASIER LIZARTZA ESPARTZA ELIZONDOKO KONPARTSAKO KIDEA

Elizondoko Konpartsak 75 urte bete ditu aurten, eta konpartsako kideek ekitaldia berezia antolatu dute azaroaren 26an hau ospatzeko

R. OSKARIZ ELIZONDO

Duela 8 urte inguru sartu zen Asier Lizartza Espartza arizkundarra Elizondoko Konpartsan; «erraldoien topaketa bat egin zen eta laguntza eskatu zidaten karrikadantzetan erraldoiak eramateko. Probatu nuen, gustatu zitzaidan eta bertan dantzatzen eta ongi pasatzen segitzen dut geroztik». Aurten, gainera, badute zer ospatu, konpartsako erraldoi zaharrenek 75 urte bete baitituzte. Urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia prestatu dute Elizondoko pilotalekuan azaroaren 26an.

Nola sortu zen Elizondoko Konpartsa?

Lehenagotik Elizondoko Herriak buruhaundiak bazituen ere, duela 75 urte, 1947an, Juan Eraso alkateak erraldoien beharra sumatzen zuen, eta bi erraldoi ekartzea erabaki zuen.

Errege Katolikoak ekarri zituzten. Zergatik?

Ez omen zituzten Errege Katolikoak nahi, Elizondorekin eta Baztanekin zerikusia zuten bi pertsonaia baizik. Baina Elizondoko bestak gainean zirenez, fabrika batean enkargatu behar izan zituzten eta bi horiek ailegatu ziren. Erraldoien buruak, gorputzak eta eskuak Bartzelonako El Ingenio enpresatik ekarri zituzten eta gainerakoa bertan egin zen; egitura Jose Lasa zurginak eraiki zuen eta jantziak bertako mojek egin zituzten.

Konpartsa aunitz aldatu da ordutik?

Ez dakigu zehazki lehenbiziko ateraldia nolakoa izan zen, baina konpartsatik jende pila pasatu da geroztik eta horrek denbora tarte bakoitzari bere izaera ematen dio. Eta orain sei erraldoi ditugu, aldaketa nabaria!

Eta musika?

Musika mota ez da hainbertze aldatu, gaita eta txistua izan dira eta dira konpartsaren oinarria. Dantzak, behar bada, aldaketak izan dituzte urtetik urtera, segun eta nork asmatzen dituen…

Buruhaundiak ere aipatu dituzu, konpartsaren alde garrantzitsua aunitzendako…

Dokumentuen arabera erraldoien aitzinetik buruhaun-

diak zituzten, bai. Gaur egun sei dira; Loco, Moña moña, Demonio, Gemelo, Kaskarrabias eta Curro.

Buruhaundi originalak dira?

Ez, lehenagokoak zaharkituak gelditu ziren, eta duela urte batzuk berriak egin zituzten, aitzinekoak oinarritzat hartuz eta diseinuak errespetatuz. Material berriagoak eta iraunkorrak erabili zituzten, euria jasateko, adibidez.

Zaharrak ez dira gehiago erabiltzen?

Arras hondatuak daude eta ezin dira erabili, bat izan ezik; kide batek kristoren kariñoa hartu zion eta bere kontu moldatu zuen buruhaundi zaharra. Oraindik ere ateratzen du.

Erraldoi kopurua ere haunditu egin da urteekin, ezta?

Bai, bi eskas ziren eta bertze bikote bat ekarri zen: Nafarroako erregea eta erregina, Amaiurko gaztelukoak. Gainera, duela ez hainbertze, konpartsako gaztetxoenei begira erraldoi bikote ttikiagoa ekarri zen.

Hala ere, hauek ez dira Elizondoko erraldoi bakarrak…

Konpartsako kide den Enaitz Goñik Bianca erraldoia erosi eta jendaurrean aurkeztu zuen abuztuan, baina partikularra da, ez konpartsarena.

Konpartsako kideak ere denborarekin aldatu izanen zarete, ez?

Jende aunitz pasatu da konpartsatik. Urte txarrak izan dira, jende kopuru aldetik arras justu ibili izan direnak, baina gaur egun 20 lagun inguru gara. Kopuru polita da, baina ateak irekiak daude nahi duten guziendako.

«URTEEKIN BI ERRALDOI IZATETIK SEI IZATERA PASATU GARA»

Noiz ateratzen zarete karriketara?

Elizondoko eta Txokotoko bestetan gehienbat, baita Bertanek antolatzen dituen egunetan ere. Gainera, tarteka ateraldiak egiten ditugu kanpoko herrietara.

Horretarako beharrezkoa izanen da entseatzea…

Bai, batez ere Elizondoko besten aitzinetik. Ekainean hasten gara normalki, eta Elizondoko kiroldegian elkartzen gara horretarako.

Urte berezia duzue aurten, 75. urteurrena. Nola ospatuko duzue?

75. urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia eta polita prestatzen ari gara. Azaroaren 26an 18:30ean Elizondoko pilotalekuan eginen da.

«GIBELETIK DATOZENEK SEGIDA EMANEN DIOTE KONPARTSARI»

Zer ekartzen dio konpartsak herriari?

Nire ustez, kristoren bizitasuna ekartzen dio, karrikak alaitzen ditu eta besta giro ederra sortzen du musikarekin batera. Jendeak aunitz eskertzen duela erranen nuke, haur, gazte zein helduek.

Orain zein da zuen asmoa? 100 urte betetzea?

Doike! Guk utzi eta gibelekoek hartuko dute segida. 75 urte beteta, 25 gehiago ez zaizkit horrenbertze iruditzen.

Beraz, belaundaldi berriekin segida badu?

Bai, konpartsako kideen seme-alabak bertan aritzen dira eta segida emanen diote. Hala ere, etorri eta probatu nahi duena ongi etorria izanen da!

Zerbait gehitu nahi duzu?

Elizondoko Konpartsa sare sozialetan ere dagoela, Facebooken eta Instagramen.

ELIZONDO KIROPRAKTIKA

Kiropraktika munduko hirugarren osasun-lanbidea da. Nerbio-sistemak bizkarrezurraren mailan dituen interferentziak eta horien ondorioak prebenitzea eta zuzentzea da bere helburua. Nerbio-sistema garunak, bizkarrezur-muinak (bizkarrezurrean barrena jaisten denak) eta gorputzeko organo, ehun eta zelula guztietara adarkatzen diren nerbioek osatzen dute.

Dugun bizitzarekin, gure osasun maila pixkanaka-pixkanaka makaldu daiteke arazo fisikoengatik (erorikoak, postura txarrak, mugimendu errepikakorrak, eta abar), kimikoengatik (gure elikaduraren kalitatea eta oreka, hidratazio txarra, poluzioa, eta abar), arazo emozionalengatik (talka emozionala, pentsamendu negatiboak, eta abar) edo uhin elektromagnetikoak (mugikorraren, ordenagailuaren, wifiaren uhinak, eta abar) metatzen direlako.

Horiek denek nerbioen mailan metatzen diren interferentziak eragiten dituzte, informazioa gorputzaren egituretara (muskuluak, hezurrak, artikulazioak, organoak) % 100era iristea eragotziz.

Kiropraktikaren helburua interferentzia horiek kentzea eta zure gorputzari bere gaitasunen % 100ean funtzionatzen laguntzea da, osasun-maila optimoa berrezartzeko helburuarekin. Eskuekin eraginez, modu naturalean egiten du, eta, horrela, gorputzaren alderdi guztietan du eragina (nerbio-sisteman, immunitate-sisteman, hormona-sisteman, digestio-sisteman, emozio-sisteman, eta abar).

Josunek Kiropraktikari buruz hitz egiten du:

«Kiropraktikarekin emozionalki hobeki sentitzen naiz, gauzak lasaiago hartzen ditut eta fisikoki indartsuago sentitzen naiz, ongizate orokorraren sentimendua areagotu egin zait. Kiropraktikara eraman ninduten ondoezak areagotu egin dira eta, konparaziora, badira hilabete batzuk ez dudala batere hotzeriarik; eta hori arraroa da niretzat».

Zure osasuna hobetzeko, zatoz egokitzera!

Deitu **948 580 701** telefonora hitzordu bat hartzeko!

MANTE Arnaud JD
Balda Doktorearen Plaza, 1-1B
ELIZONDO

92.000 euroko aurrekontua uholdeen kalteak konpontzeko

Lanak Erratzun, Amaiurren eta bideetan zein nekazaritzako azpiegituretan eginen dituzte

TTIPI-TTAPA

2021eko abenduko uberroek sortutako kalteak konpontzeko, 92.035 euroko aurrekontu moldaketa onartu du Baztango Udalak. Horri Estatuaren 85.932 euroko dirulaguntza gehitu behar zaio, aurreikusitako 177.967 euroko inbertsioa osatzeko. Hiru aurrekontu moldaketa onartu dituzte.

Erratzuko herrigunean erreka bazterreko pareta konpontzeko 8.454 euroko inbertsioa, Estatuak eta udalak erdibana ordainduko dutena.

Amaiurren hormigoizko bi hodi eta karrika baten zola konpontzeko 19.946 euroko aurrekontua, Estatuak eta udalak erdibana ordainduko dutena.

Bideak eta nekazaritzako azpiegiturak konpontzeko 149.566 euroko aurrekontua onartu da (Estatuak 71.732 eta udalak 77.834). Bide hauek konponduko dituzte: Etxebertzeko borda, Arakan, Urballo, Autrin, Ubedo, Xorroxin, Onbolarte, Sarabio, Zokoa, Uzketa, Gamioko borda, Urruska, Soalar eta Indarteko borda.

BAZTANGO EUSKARALDIKO BATZORDEA

Arraioz eta Azpilkueta Euskaraldian

#Euskaraldiabaztanen15egun15herri ekimena abiatu du Baztango Euskaraldiko Batzordeak. Herri bakoitzak argazkia eginen du Euskaraldian parte hartzeko deia eginez eta erronka bertze bati luzatuko dio. Irurita izan zen lehenbizikoa eta orain Arraioz eta Azpilkueta gehitu zaizkio.

IZARGI ZUMARRAGA

Baztango Xurie mahastiei bisita

Elizondoko Amezti elkarteak Baztango Xurieren mahastiak eta upategia ezagutzeko bisita antolatu zuen Arizkunerat. Ana Iriartek eman zituen azalpenak eta goraipatu zuen ekologikoan lantzea. Akitzeko, ardoa eta bertako produktuak dastatu zituzten. Elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Anari.

BAZTANGO EH BILDU

Laguntza Etxerat proiektuaren aurkezpena

Baztango EH Bilduk adinekoen etxe inguruko zaintzari buruzko solasaldia antolatu zuen hilaren 3an. Bertan Nicolas Blainek Laguntza Etxerat proiektua aurkeztu zuen, duela 46 urte Hazparneko eskualdean abiatu zutena eta jendeari zaintza etxean bertan ematea helburu duena.

170.000 euro Iruritan babestutako hamar bizitegi egiteko

Baztango Udalak zola erosiko du eta Nasuvinsak eraikina, barneko lanak akitu ahal izateko

TTIPI-TTAPA

Baztango Udala Nasuvinsa elkarte publikoarekin elkarlanean ari da, Iruritako karrika nagusian akitzeko dagoen bizitegien blokea erosteko eta babes ofizialeko hamar bizitza egin ahal izateko. Udalak zola erosiko du eta Nasuvinsak eraikina, barneko lanak akitzeko.

Zolaren zatia erosteko 170.000 euroko inbertsioa eginen du udalak. Osoko bilkuran onartu zuten aurrekontu moldaketa, EHBildu, Ezkerra eta Geroa Bairen aldeko botoekin eta Navarra Sumaren abstentzioarekin.

Zola erosita, hitzarmen bidez urririk utziko dio Nasuvinsari. Elkarte publikoak eraikina 260.000 eurotan erosiko du eta barnetik akitzeko 1.262.926 euroko inbertsioa eginen du.

Iruritako karrika nagusiko bizitegiak.

Etxebizitzak alokairuan emateko asmoa dute Baztango Udalak eta Nasuvinsak, «herritar guztiei bizitegia bermatzeko ahaleginean».

Honez gain, udalak azpimarratu du «akitu gabeko eraikina berrerabiliko dela, dagoena aprobetxatuz, nekazaritzako lurrik ukitu gabe. Kontuan hartuta Baztanen 800 etxetik goiti daudela, horrek izan behar du lehentasunezko bidea». Blokea geldirik dago 2009tik.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Fermín Matellanes doktorea
Otorrinolaringologia
Laser kirugia eta irrati-frekuentzia
Bertigoaren diagnostikoa eta tratamentua 3D bidez
BERTIGOAREN ETA OREKA ALTERAZIOEN UNITATEA
Artzai Onaren Plaza, 7. Donostia.
T. 943 322 646 - 691 775 458
R.P.S.: 116/15

Galdeketan parte hartzeko deia egiteko bizikleta martxak Iruritan. PELLO IRIARTE

Aziendak eta abeltzainak izan ziren ortziraleko protagonistak. ONDIKOL

Dena prest azaroaren 20an Erdizko harrobiari buruz eginen den galdeketarako

TTIPI-TTAPA

Espainiako Gobernuak Baztango Batzar Nagusiari Erdizko proiektuaren inguruko galdeketa egitea debekatu ondotik, alkateek iniziatiba hartzea erabaki dute. Azaroaren 20an galdeketak antolatu dituzte herri guzietan, Almandozen izan ezik.

Jendea parte hartzera animatzeko, bizikleta martxak egin dituzte iruritarrek, azken lau ortzegunetan plazan elkartuz herritik bueltak egiteko.

Honez gain, galdeketetan parte hartzeko deia egin du Baztango Udalak, herrietako alkateen ekimenari atxikimendua adieraziz.

Bozkatzeko ordutegia eta lekuak

Galdeketa azaroaren 20an izanen da, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Galdera hurrengoa izanen da: *Erdizko bazkaleku komunalean okupazioa Magnari baimentzearen alde zaude?*

Herri bakoitzean galdeketarako leku bat aukeratu dute: **Amaiur**ren Otsondo gela, **Anize**n Herriko batzartegia, **Arizkun**en Medikuaren etxea, **Arraioz**en Herriko batzartegia, **Azpilkueta**n Herriko elkartea, **Berroeta**n Herriko kontsultategia, **Elbete**n Herriko eskola, **Elizondo**n Herriko etxea, **Erratzu**n Lixutegia, **Gartzaine**n Herriko etxea, **Iruritа**n Gizarte Bilgunea, **Lekaroze**n Herriko eskola, **Oronoz-Mugairi**n Herriko batzartegia eta **Ziga**n Herriko elkartea.

Bozkatzeko beharrezkoa izanen da NANa aurkeztea. Boto-paperak etxez etxe banatuko dituzte eta batzarguneetan ere eskuragarri egonen dira.

Giro ederrean ospatu dituzte udazkeneko feriak Elizondon

Aziendak eta makineria ikusteko aukera izan zen ortziralean, baita postuez gozatzeko aukera ere bi feria egunetan

TTIPI-TTAPA

Eguraldia lagun, jendetza elkartu zen Elizondoko karriketan feriak normaltasunez ospatzeko. Saltzaileen eta artisauen postuak, aziendak eta makineria izan ziren bertze behin nagusi.

Gasnagile sarituak. ONDIKOL

Gasna lehiaketa

Elizondoko Ferietako I. Ardi Gasna Lehiaketa izan da aurtengo berrikuntza. Eskualdeko hamar gasnagilek parte hartu zuten. Kortariko gasna nagusi izan zen eta hiru sari lortu zituen; gasna hoberena, Baztango gasna hoberena eta gasnagilerik gazteena. Lesakako Agorleku gasnategiak lortu zuen bigarren saria eta Berako Xokorro Almandozek hirugarrena. Gasna sarituak enkantean saldu zituzten, 510, 150 eta 100 eurotan.

Kortariko gasna Ordizian ere txapeldun

Kortariko gasnak XXXV. Ordizia Txapeldun gasna lehiaketa irabai zuen azaroaren 2an Gipuzkoan. Azken hamar urteetako saridunak lehiatu ziren bertan eta bigarren aldiz segidan txapela lortu zuen Orabideko Julen Arburuak. Zorionak!

Zapatillera proiektua inauguratu dute Elbeten

Baztango Musikazale Elkarteak hitzarmena sinatu du udalarekin entseguetarako lokala egiteko

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 5ean Zapatillera proiektuaren inaugurazio besta egin zuen Baztango Musikazale Elkarteak Elbeten. Goizean fatxadako muralari azken ukituak emateko bildu ziren, ondotik bazkaria izan zuten eta 18:00etan kontzertuak hasi ziren: Pottoka, Occhi di Farfalla eta Zakill. Jende andana bildu zen. Elkarteak jakinarazi du Zapatillerako ateak irekiak daudela entseatzeko lekua behar duten musikari guziendako.

Honez gain, hitzarmena sinatu dute udalarekin eta 4.200 euroko dirulaguntza lortu dute proiektuaren «bideragarritasuna eta funtzio publikoa bermatzeko». Diruarekin alokairua ordaindu eta lekua intsonorizatu ahalko dute. Elkartea irabazi asmorik gabekoa da, bailarako hainbat taldek eta bakarlarik osatzen dutena. Helburua musikaren garapena bultzatzea eta proiektuak sortzeko espazio fisiko bat edukitzea da.

Occhi di Farfalla oholtzan. I. ZUMARRAGA

Azaroaren 20an kontzertuak

Mice eta Rüdiger taldeen kontzertuak izanen dira igandean 18:00etan. Sarrerak 5 eurotan egonen dira eskuragarri eta norberak bere edalontzia eraman beharko du.

UTZITAKOAK

Gau Beltza indartu da Baztanen

Anizen, Arraiozen, Berroetan, Iruritan, Elizondon… bailarako geroz eta herri gehiagotan ospatzen dute Gau Beltza urriaren 31n. Kalabazak apainduz, mozorratuz eta sustoak emanez, afari eder batekin edo istorioak aditzen, bakoitzak bere modura gozatzen du gau berezi honetaz.

Herriko etxea moldatzeko 394.000 euroko laguntza

Ingurumen-jasangarritasunerako eta energia-eranginkortasunerako neurriak jartzeko emanen dute

MARIFA ETA KORO

Berri on bat izan dugu Herriko Etxearen moldaketaren kontura: 394.076 euroko dirulaguntza emanen dutela. Dirulaguntza hau eman da gaur egun hain garrantzitsuak diren ingurumen-jasangarritasunerako eta energia-eraginkortasunerako neurriak jartzeko. Gure kasuan, berogailuak eta ur beroa aerotermiako kalderarekin eginen dira, eta teilatu eta pareten isolamendua azkartuko dute.

Kontuan hartuz eraikin osoa berritzeko aurrekontua 900.000 euro ingurukoa dela, hartuko den dirulaguntza honek ederki arinduko du herriak pagatu beharrekoa.

Pastorala leizean. ONDIKOL

Pastoraleko bazkaria

Hain arrakastatsua izan zen *Maddiren trajeria* Xaretako pastorala oraindik ere gurekin dugu: emanaldiak bukatu ziren, baina parte hartzaile eta laguntzaile guztiendako bazkari bat eskainiko da, abenduaren 10erako.

Lerro hauen bidez, antolatzaileek jakinarazi nahi dute izena emateko e-posta honetara idatzi behar dela: *xaretanpastorala@gmail.com*, edo telefono honetara deitu: 670 30 54 41.

MARIFA ETA KORO

Aparkalekua autokarabanaz lepo

Aspaldian komediak ditugu etortzen diren karabana kopuruarekin baina Omiasainduko zubian arazoa larritu zen: gauero Azketako aparkalekua bete zuten (50 karabana pasa) eta lehen orduan etortzen ziren bisitariek, autobusak barne, toki faltan karrika eta plaza kolapsatzen zuten.

UTZITAKO ARGAZKIA

Etxabe tailerrean film laburra grabatzen

Etxabe Tailerrean Los chavales film laburrerako irudiak grabatzen aritu ziren urriaren 30ean. Zuzendaria Mario Mariño da, eta bi aktore nagusiak Jorge De Santos eta David Troitiño. Asteburu horretan, Zugarramurdin aritzeaz gain, Etxelua eta Argangoiti aldean ere grabatzen aritu ziren.

Euskaraldiko taldeko argazkia 2020an. Aurten ez da maskaren beharrik izanen.

Euskaraldiko aperitifa eginen dute azaroaren 26an

Euskaltzaleak elkartu eta euskararen aldeko ariketa honi ikusgarritasuna emateko asmoarekin bilduko dira

ARANTXA ETA IRAIA

Jakina den bezala, aurten Euskaraldiaren bertze edizio bat eginen da Euskal Herriko xoko guztietan. Joan den edizioaren gisan, aurten ere Urdazubin izena emateko aukera izan da eta parte hartzaile andanak hartu dute haien txapa, herriko batzordearen eskutik. Hortaz, abenduaren 2rat bitartean hainbat ahobizi eta belarriprest ikusiko dira herrian barna. Gainera, azaroaren 26an aperitiferat deituak izanen dira, euskaltzaleak elkartu eta ariketa honi ikusgarritasuna emateko.

Azken bi edizioetako datuak

Hau idazterakoan, oraindik ez da zehaztu zenbat urdazubiarrek parte hartuko duten Euskaraldian. 2018an, urdazubiarrak eta zugarramurdiarrak Saran apuntatu ziren eta denera Xaretan 440 lagunek eman zuten izena. 2020an 82 lagunek eman zuten izena herrian, tartean zugarramurdiar batzuk. Horietarik 71 ahobizi izan ziren eta 11 belarriprest. Arigunerik ez zen izan duela bi urteko edizioan. Ea bada aurten datu hauek emendatzen ditugun. Seinale ona izanen da.

IRAIA ETA ARANTXA

Auzoetan kartel berriak

Helpbidea izeneko proiektuan parte hartuko zuela adierazi zuen iaz herriko etxeak eta gerora zenbait kartel ttipi eman ziren etxe bakoitzean. Hauez gain, duela aste batzuk auzoetan ere kartel hori batzuk agertu ziren. Kartel horietan auzoko etxeen izenak eman dira.

Mus txapelketa azkarra jokatuko dute azaroaren 26an Montxo ostatuan

IRAIA ETA ARANTXA

Hotza uxatzeko Montxo ostatuak ekitaldi polita antolatu du azaroaren 26an: mus txikimista txapelketa. 21:30ean hasiko dira eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du izena emateagatik. Irabazleek La Rioja Alta upategian lau lagunendako otordua eta gau bat irabaziko dute. Bigarren postuan geratzen direnek bi txuleta eder eta bi botoila arno irabaziko dituzte. Hirugarren postuan gelditzen direnek ere izanen dute saria: bi botoila patxaran. Laugarren postukoak ere ez dira esku hutsik joanen, bi botila arno eramanen baitituzte etxerat.

Azaroaren 26an izanen da.

Txapelketan izena emateko 630 22 12 08 telefonorat deitu edo whatsappa bidali daiteke.

Urte osoko hiru ateraldietan 200 lagun bildu dira. GANEX

Urteko azken ateraldia egin dute erretretan daudenek

Zugarramurdiko Azketa jatetxean Beti Gazte elkarteko 60 kide bildu ziren umore onean

GANEX

Beti Gazte erretretatuen taldeak egin du aurtengo azken elgarretatzea hazilaren 4an Zugarramurdiko Azketa jatetxean. 60 kide baziren etorriak bazkari on baten egiterat, eta, hala izan baitute, Elenak eta Anabelek prestatua eta ongi zerbitzatua. Euskal kantu batzuk eman dituzte denek elgarrekin eta arratsaldeko sei orenak aldean erretiratu dira umore onean. Horra, aurtengo elgarretatzeak bukatu dira. Izan dira, usaian bezala, hiru ateraldi: lehenbizikoan 75, bigarrenean 65 eta hirugarrenean 60, deneta 200 kide izan dira bazkari horietan. Elkarteko bulegoak denak eskertu ditu: jatetxeak, jateko onentzat eta kideak, elgarretatze horietan parte hartzeagatik.

Giro ona izan zuten Azketan ere.

Pontx pailazoaren 'Etxeko altxorra' igandean Lurberrin

Euskaraldiaren karietara, Pontx pailazoak emanaldia eskainiko du azaroaren 20an, igandean 17:00etan hasita Lurberri gelan. *Etxeko altxorra*, herriko pailazoaren ikuskizun berriaren grabaketa ere eginen dute eta sartzea urririk izanen da.

Aise ibiltzeko tresnen bilketa hazilaren 19tik 26ra

Bil Ta Garbi elkarteak eta Euskal herriko elkargoak antolatu dute adineko jendearentzat edo handikapatuentzat, mugimenduko edo aiseago ibiltzeko tresnen bilketa (fotil roleanteak, deanbulateur, makilak eta bertze), hazilaren 19tik 26a arte, keinu gelan.

GANEX

Baigorrin, Bankan eta Eznazun barna

Udazkeneko ateraldia ere egin dute erretretatuek urriaren 26an. Baigorriko Irulegi ostatuan izan dute gosaria, Bankako arraintegia bisitatu ondotik Eznazuko Menta jatetxean egin dute bazkaria. 40 bat erretretatu baziren, eta azkeneko tragoa ukan dute Sarako herriko etxeko edantegian.

Moda desfilea eta pintxo gaua izan dira hazilaren 11n

Le Petit bordel de Moda Luixak antolaturik, ikusgarria eta moda desfile berezia izan zuten azaroaren 11n, joan den ortzirale arratsaldean Lur Berri gelan. Gero, bestarekin segitzeko, pintxo gaua eskaini zuten Arka, Kafia, Mimosa eta Pleka ostatuetan.

Gari eta Gurashow ariko dira azaroaren 20ko kontzertuan

Zaldubi ikastolaren 50. urteurreneko ekitaldien barrenean sartu dute larunbatean 16:30ean Larrekon hasiko den emanaldia

JL BESSONART

Urriaren 22an ospatu zen Zaldubi Ikastolaren mende erdia gogoratzeko jaialdia, giro jendetsu eta alai batean. Horra orain, ospakizunekin segitzeko, kantaldia muntatu dutela azaroaren 20an Larreko kulturgunean, larunbatean 17:00etan hasita.

Dudarik gabe, izar nagusia, Gari kantaria eta Hertzainak taldearen sortzailea afixaren buru izanen da, bakar-saioan. Ibilbide luzeko abeslaria da Gari, bai Hertzainak taldearekin, bai bakarka, baita, azken aldian, Maldanbera taldearekin ere.

Gari bakarka ariko da Larrekon.

Hasteko, Gurashow

Halere, lehen zatian, Gurashow taldearen emanaldia izanen da. Partehartzaileetan, Amaia Riouspeyrous, Kattalin Indaburu, Maguy Mirande, Maider Cigarroa eta Philippe Albor, dira. Beraiek kantatu eta dantzatzen dute, baina kantatzen eta dantzatzen jartzen dituzte ttipi eta handiak.

Herriko bioaniztasunari buruzko erakusketa Larrekon hazilaren 25a arte

JL BESSONART

San Kristobal lizeoko erakasle batzuk antolatu dute erakusketa, senpertarrek deskubri dezagun argazki eta xehetasunen bidez, zer nolako ingurumen aberatsean bizi garen. Herrian dagoen fauna eta flora aurkezten dute modu parte hartzaile batean, herrilurretako bioaniztasunaren Atlas batean.

Herriko bioaniztasuna ikusgai.

Larreko kulturgunean aurki daiteke, hazilaren 14a eta 25a artean, asteartetik igandera 14:00ak eta 18:00ak artean. Sarrerak urririk deneri zabaldua. Erakusketa honek merezi du gure presentzia, alde batetik gure ikusmina asetzeko baita ikasle horien lana errespetatzeko.

'Printze ttikia' ikuskizuna euskaraz azaroaren 26an

St Exuperyk haurrendako idatzi zuen *Printze Ttikia*. Tximi-Txama abesbatzak helduentzat idatzi du komedia musikal hori. Musika osoki idatzi eta kantuen hitzak liburutik hartu dituzte. Euskaraz emanen dute Larrekon azaroaren 26an, 17:30ean eta frantsesez 20:00etan.

Hatsaren Poesiaren olerki tailerra doluminez ezeztatua

Hatsaren Poesia elkarteak poesia-tailerra antolatua zuen urriaren 29an Iruñean, Juankar Lopez Mugartzarekin. Baina ezeztatu behar izan zen, honen koinatuaren, Alvaro Mundiñano Gartziarena margolari eta Hatsakidearen heriotzagatik.

Medhi-Emmanuel Djaadiren 'Coming Out' antzezlana azaroaren 25ean Larrekon

JL BESSONART

Medhi-Emmanuel Djaadi sortzez musulmana izanik gaur egun katolikoa bilakatu da eta antzezlari aparta, ongi ezagutua da Frantzia mailan. Larreko antzokiko taula gainean bakarrik, bere ibilbide ispiritual harrigarria aipagai du umore aunitzekin, segurki lehenik bere konbertsioa islam erligiotik katolizismora. Baina, umorea baliatuz, esplikatzen du nola delinkuentzian ibili ondoan komedianta bilakatu den. Mundu guziak hartzen du bere gradutzat, estilo suspergarri batean, nola testu on batekin denetaz irri egiten ahal dela. Oren eta erdi irauten duen ikuskizunera sartzearen prezioa 20 eurokoa da.

Antzezlanaren afixa.

UTZITAKO ARGAZKIA

Marie Goienetxek brontzezko domina

Azkeneko aldizkarian Elur Alberdi izan genuen hizpide, eta orain Marie Goienetxe pilotari gaztea dugu protagonista. Munduko pilota txapelketan, frontball arloan, brontzezko domina lortu du. Txaloak merezi ditu, ea Senpereko pilotari susperraldia ematen dion.

Beti Gazteko tiralariak txapelekin. AITOR AROTZENA

Amaiurrek bi talde atera ditu mistoan eta podiumera igo da gizonezkoetan.

Sokatirako lehen bi txapelak Beti Gaztek lortu ditu Lesakan

640 kiloko gizonezkoen eta txapelketa mistoko bigarren jardunaldia jokatu zen azaroaren 4an eta bietan gailendu ziren

AITOR AROTZENA

Nafarroako sokatira txapelketako lehen bi txapelak banatu zituzten azaroaren 5ean Lesakako udal pilotalekuan. Gizonezkoen 640 kiloko txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zen. Sunbillan urriaren 22an jokatutako lehen jardunaldian berdindu egin zuten Beti Gaztek eta Berriozarrek, baina Lesakan tiraldi guztiak irabazi zituen etxeko taldeak, baita finaleko biak ere Berriozarren kontra. Amaiurrek podiumeko hirugarren koxkara igotzea lortu zuen, Txantrea gibelean utzita. Beti Gazteko talde txapeldunean Karmelo Mitxelena, Ander Mitxelena, Joxe Angel Mitxelena, Oskar Telletxea, Beñardo Iantzi, Beñat Ordoki, Unai Gurrutxaga eta Gerardo Telletxea aritu ziren tiran, Julen Palenzuela erakusle zutela.

Txapelketa mistoan lehia estua izan zen, Beti Gazte eta Berriozarren artean. Lehen jardunaldian tiraldi guztiak irabazi zituzten lesakarrek, baina larunbatean Lesakan elkarren arteko bana irabazi zuten. Finala ere estua izan zen, baina bi tiraldiak Beti Gaztek irabazi eta txapela janztea lortu zuten lesakarrek. Zortziko txapeldunean Ander Mitxelena, Irantzu Goienetxe, Ane Gurrutxaga, Beñat Ordoki, Maialen Lopez, Ainhoa Ubiria, Unai Gurrutxaga eta Gerardo Telletxea aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena erakusle zutela. Txantrea hirugarren izan zen sailkapen orokorrean eta podiumera igo zen. Ondotik sailkatu ziren Araxes, Amaiur A, Amaiur B eta Antsoain.

Gizonezkoak pisu arinean eta emakumeak seinaka

Lesakan lehen txapelak banatu ondotik, gizonezkoen pisu arinekoa (600 kilokoa) eta emakumeen txapelketa (hauek seinaka ariko dira, 380 kiloko kategorian) hasiak dira. Barasoaingo jardunaldiaren ondotik azaroaren 19an banatuko dituzte txapelak Elizondon. Gizonezkoen pisu arinenean Amaiur, Beti Gazte, Antsoain, Berriozar eta Txantrea ari dira eta emakumeen txapelketan Amaiur, Beti Gazte, Antsoain, Araxes, Berriozar eta Txantrea.

Lesakan tiraldi guztiak irabazi zituen Beti Gazteko 640 kiloko taldeak.

Amaiurko bi talde mistoetako bat tiran Lesakan.

Txapelketa mistoko podiumean Beti Gazte, Berriozar eta Txantrea.

Bortz Kirol txapelketan hasi dira bederatzi pilotari

Donibane Lohizuneko Karrikaburu, Narbarteko Albiasu eta Doneztebeko Garcia izan dira lehen jardunaldiko irabazleak

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Doneztebeko Erreka elkarteak antolatutako Bortz kirol pilota txapelketa abiatu zen azaroaren 5ean. Lehen norgehiagoka Donibane Garaziko Jerome Karrikaburuk eta Narbarteko Julen Iriartek jokatu zuten.

Lehen bi jokamoldeetan (xarea eta joko garbia) Karrikaburuk bere maisutasuna erakutsi zuen eta 20-3 eta 20-5 gailendu zitzaion Iriarteri. Hirugarren partidan ere (eskularruaz) Karrikaburu nagusitu zen, baina 20-4 ko emaitzak dioena baina partida orekatuagoa joan zen, tanto gogorrekin, nahiz eta gehienak azkenean Karrikabururen alde erori. Paletaz, aldiz, Iriarte nagusitu zen (20-7). Eskuz jokatutako azken partida Karrikaburuk irabazi zuen, 20-12.

Iriarte eta Karrikaburu. ERREKA KE

Orotara, 87-44ko emaitza Donibane Garazikoaren alde, bi orduko lehia gogorra eta gero.

Bigarren partidan, Donibane Lohizuneko Peio Etxeleku, Narbarteko David Albiasuren kontra aritu zen. Hemen ere lehen bi jokamoldeetan lapurtarraren trebetasuna nagusitu zen, xarez (20-3) eta joko garbian (20-6). Eskularruan, berriz, Albiasuren golpea nagusitu zen (20-10). Paletaz ere Albiasu indartsu dagoela erakutsi eta tanto bakarrean utzi zuen Etxeleku. Donibane Lohizunekoa belaunean mina somatzen hasia zen eta azken partidaren faltan erretiratzea erabaki zuen. Orotara, emaitza 69-51koa izan zen Albiasuren alde eta hurrengo jardunaldirako Etxeleku osatzea espero dute antolatzaileek.

Azken partida izan zen borrokatuena, Oroz Beteluko Iñaki Arzelus eta Doneztebeko Eloy Garcia aritu ziren. Lehen partidan, Arzelusek sekulako abiadura sartuta 7 tantoan utzi zuen itxura ona eman zuen doneztebarra. Joko garbian ere Arzelus nagusitu zen, baina doneztebarrak 18 tanto egitea erdietsi zuen, partida erabat irekita utziz. Eskularruarekin Garcia zen faboritoa eta 10 tantoan utzi zuen Arzelus. Azken bi partidetan, beraz, erabakiko zen irabazlea, eta bi pilotariek horren jakitun izanik, sekulako borroka izan zuten. Bi partidak doneztebarraren alde alde erori ziren, 20-9 paletan eta 20-6 eskuz. Orotara, 75-65eko emaitza izan da Eloy Garciaren alde.

Hurrengo jardunaldia azaroaren 19an jokatuko dute.

Euskadiko aizkolari txapelketen finalak egunotan

TTIPI-TTAPA

Euskadiko Herri Kirol Federazioak antolatutako aizkolari txapelketen finalak azaro hondarrean jokatuko dituzte.

Azaroaren 20an, igandean 12:30ean Markina-Xemeinen bigarren mailakoa jokatuko dute. Patxi Mindegia zubietarra izanen da eskualdeko ordezkaria eta berekin batera, Iker Vicente, David Naredo, Andoni Iruretagoiena, Suharri Rodriguez eta Julen Gabirondo ariko dira. Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko moztu beharko dituzte.

Azaroaren 27an, berriz, lehen mailako finala jokatuko dute Bilboko Bizkaia frontoian, 12:00etan hasita. Zigako Joxean Etxeberria izanen da eskualdeko aizkolari bakarra eta berekin batera, Jokin Urretabizkaia, Hodei Ezpeleta, Xabier Zaldua, Luis Mari Txapartegi eta Iban Resano ariko dira. Lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko moztu beharko dituzte.

UTZITAKO ARGAZKIA

Nerea Sorondo Euskadiko txapeldunorde

Euskadiko emakumezkoen aizkora txapelketa jokatu zen azaroaren 6an Mungian. Azken urteetan txapeldun izandako Nerea Sorondo beratarra bigarren izan zen, Nerea Arrutiren gibeletik. Irati Astondoak osatu zuen podiuma. Maika Ariztegi laugarren izan zen eta Xanta Sousa zazpigarren.

UTZITAKO ARGAZKIA

Canabal eta Aldabe munduko txapeldun

Hainbat txapel lortuak dituzte Oian Canabal eta Joseba Aldabe igantziarrek eta orain munduko txapelketako urrezko domina lortu dutela ere erran dezakete. Ez zuten eskuz binako finala jokatu, baina podiumeko goitiko koxkara igo ziren Labaka eta Merinorekin batera. *Ikus 20. orria*

AGENDA

AZAROAK 17 - ABENDUAK 1

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

DONEZTEBE **Doneztebeko feriak**

Azienda erakusketa, postuak eta herri kirolen ikuskizuna.
Azaroaren 18an.

AZOKAK

ELIZONDO
Baztango Artisauak eta Zaporeak
Plazan, azaroaren 19an, goizez.

LESAKA
Lesakako feriak
Azaroaren 23an eta 24an.

GOIZUETA
XVIII. Azienda, artisau eta nekazaritza feria
Azaroaren 26an, 10:00etatik aurrera.

ZINEMA

IRURITA
'Sans Nom Sarea' dokumentala
Gizarte Bilgunean, azaroaren 18an, 19:00etan.

LEITZA
Zinema
Herri Aretoan, azaroaren 19an eta 20an. 'Cerdita' 16:30ean eta 'Mira cómo corren' 19:00etan.

'Ertzak leuntzen' dokumentala
Herri Aretoan, azaroaren 26an, 19:00etan.

ELIZONDO
'Sasiak eta haziak' dokumentala
Arizkunenean, azaroaren 24an, 18:00etan.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE
Teresa Irastortzaren poesia emanaldia
Liburutegian, azaroaren 17an, 18:00etan.

BERA
'Presas' antzezlana
El Bardo konpainiaren eskutik.
Kultur etxean, azaroaren 19an, 19:00etan.

SARA
'Etxeko altxorra'
Pontx pailazoaren eskutik.
Lurberri gelan, azaroaren 20an, 17:00etan.

SENPERE
'Printze Ttikia'
Tximi-Txama abesbatzarekin.
Larrekon, azaroaren 26an, 17:30ean.

IRURITA
'Memoria eraikiz'
Gizarte Bilgunean, azaroaren 27an, 17:30ean, 18:30ean eta 19:30ean.

LESAKA
'Hondamendia' antzezlana
Artedrama eta Axut!-en eskutik.
Harriondoan, azaroaren 27an, 18:00etan.

MUSIKA

BERA
EZEZEZ
Katakun, azaroaren 18an, 22:00etan.

SENPERE
Gari eta Gurashow
Larrekon, azaroaren 20an, 17:00etan.

ELBETE
Mice eta Rüdiger
Zapatilleran, azaroaren 20an, 18:00etan.

AMAIUR
Baztan Kantuz
Plazan, azaroaren 20an, 12:00etan.

LESAKA
Musika Eskolaren emanaldia
Harriondoan, azaroaren 23an, 18:00etan.

GOIZUETA
Alarma Morea
Gaztetxean, azaroaren 25ean

ETXALAR
Carlos Nuñez
Elizan, azaroaren 27an, 19:30ean.

SOLASALDIAK

LESAKA
Emakumeentzako ahalduntze tailerra
Emagin elkartearen eskutik.
Koskontako Bideko aretoan, azaroaren 17an, 18:00etan.

ELIZONDO
Bittori Etxeberriari buruzko solasaldia
Josu Chuecaren eskutik
Arizkunenean, azaroaren 23an, 19:00etan.

GOIZUETA
Seme-alaben ongizate emozionalari buruzko hitzaldia
Udaletxeko ganbaran, azaroaren 28an, 17:30ean.

BERA
'Eraso matxistei lotutako egoerak ulertzen'
Beralandetan, azaroaren 26an, 11:30ean.

Nire aukera

«Jendeak eskatzen duen bitartean musikarekin segituko dut»

ANDONI MITXELENA DANBORIENA ARANTZAKO AKORDEOILARIA



«Arantzako gazte normala» da Andoni Mitxelena, «lagunekin egotea, mendian ibiltzea, pilota partidak ikustea, bizikletan ibiltzea eta tarteka besta ederren bat egitea» gustuko duena. Baina bere zaletasunen artean, musika nabarmentzen da bereziki, akordeoia jotzen baitu haurra zenetik.

Lehenengo notak

9 bat urte zituela hasi zen solfeoa ikasten eta akordeoia jotzen; «etxean beti musikarako zaletasuna izan dugu, aitaren aldetik batez ere, ttikiak ginenetik musika jotzen ikusten baikenuen. Anaia ere akordeoia ikasten hasia zen». Orduan berak ere etxeko pausoak segitzea erabaki zuen: «gure kintako hiru lagun elkartu ginen akordeoia jotzen ikasteko ilusioarekin».

Bertze instrumenturik jotzen ez badu ere, «baxuarekin eta txistuarekin saltseatzen hasi nintzen. Denbora faltagatik utzi nituen, instrumentu bat ongi jotzeko dedikazio minimo bat behar delako, baina ongi jotzen ikastea gustatuko litzaidake».

Etxetik plazara

18 urte zituela akordeoia alde batera utzi zuen, «eta 24 urte arte ez nuen ia ukitu ere. Baina anaia herriz herri zeinen ongi ibiltzen zen ikustean atentzioa eman zidan berriz ere. Gainera, aita Whatsapp bidez atautxik jotzen zituen jota eta bals zaharrak bidaltzen hasi zitzaidan, eta orduan hasi nintzen berriz ere nire kontura berrikasten». Honez gain, «inauteritan mozorro atera nintzen lehenbiziko urtean trikitixa baserriz baserri ikusteak ikaragarrizko inbidia eman zidan».

«ETXEAN BETI MUSIKARAKO ZALETASUNA IZAN DUGU»

Geroztik, hainbat herritako karrikak alaitu ditu eta «gero eta saio gehiago» egiten ditu. «Gustukoen dudan herria Arantza bada ere, joaten naizen leku guztietan hagitz gustura jotzen dut eta bikain tratatua sentitzen naiz. Deitzen nauten leku guztietako jendeari eskerrak ematea gustatuko litzaidake».

Horretarako garrantzitsua da praktikatzea; «boladaka aritzen naiz, ez naiz egunero aritzen den horietakoa. Hala ere, etxean gehien praktikatzen dudan garaia orain da, inauterietarako eta hurrengo denboraldirako kanta berriren bat ikasteko asmoarekin».

Izan ere, inauteriak ditu «dudarik gabe» bestarik gustukoenak; «aranztar bezala gehien bizitzen ditudan bestak dira eta nik uste eskualde osoko sentipena berdintsua dela. Giro berezia izaten da herrian».

Musika estiloari dagokionez, berriz, «estilo guztiak jotzea gustatzen zait. Momentuaren eta ingurukoen araberakoa izaten da eta jendeak gustuko badu edozein gauza jotzen dut!».

Bakarka naiz taldean

Familia akordeoilariz beteta izanda, aitarekin eta anaiarekin emanaldiak egiten ditu Mitxelenak; «urtean saio pare bat bederen egiten ditugu eta gustura aritzen gara hirurak». Familiarentzat ere «hagitz polita» dio, «hortxe izaten dira gu ikusten jotzen dugun tokian». Gainera, «joaten naizen herrietan atautxiren eta aitaren istorioak kontatzen dizkidate eta polita izaten da».

«INAUTERIETAN GIRO BEREZIA SORTZEN DA HERRIAN»

Hala ere, «bakarrik jotzera» dago ohituta; «bere alde onak eta txarrak ditu: nahi dudan bezala jotzen ahal dut eta nik kontrolatzen dut dena, baina aldi berean ez dut inor nire akatsak zuzentzeko. Gainera, lan gehixeago eskatzen du; gauzak kargatu, muntatu, desmuntatu… dena bakarrik egin behar da, nahiz eta beti laguntzeko prest dagoen jendea dagoen!».

Txamukos mariatxiekin ere jotzen aritu da bizpahiru urtez anaiaren ordezkapenak egiten eta Lesakako akordeoilarien bandan ere hainbat urtez aritua da. «Talde lana ere polita da eta egiten diren irteeretan edo kontzertuetan babestuago sentitzen naiz».

Erreferentzia musikalik ere ez zaizkio faltatu bere ibilbidean; «Xalbador Madariaga izan zen nire irakaslea, Enrike Zelaia aunitz gustatzen zait, eta nola ez, etxekoak: aita eta anaia».

Etorkizunera begira

Gaur egun hainbertze akordeoilari ez daudela dio; «lehen herri guztietan izaten ziren, orain trikitixak hartu du bere lekua. Akordeoia akademikoagoa da, gogorragoa, eta behin ikasita jendeari gehiago kostatzen zaio segitzea».

Horrez gain, zuzeneko musika «okerrera doala» dio, «gaur egun mugikor edo ordenagailuarekin edozeinek jarri dezake nahi duen musika, nahi duenean».

Hala ere, Mitxelenak argi du; «jendeak eskatzen duen bitartean musikarekin segituko dut dudarik gabe».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

IGANTZI. 85 m²ko pisu zaharberritua salgai: 3 logela, egongela eta sukaldea bizbat eginak, bainugela 1, balkoia, trastelekua eta garajearekin. Argitsua. Interesatuek goiz eta arratsaldez deitu. ☎649 11 06 11.

BORTZIRIAK. Borda salgai. Deitu gauez. ☎647 58 81 63.

BERA. Agerra auzoan, berritzeko dagoen pisua salgai. 75m² ditu erabilgarri, sukaldea, egongela, 3 logela, bainugela eta 2 balkoi, baita igogailua ere. ☎637 88 14 79.

DONEZTEBE. Bi logela duen 70 m²ko pisua salgai. Margotua eta saltzeko prestatua. Badu atikoa komunarekin. Hirugarren pisua, igogailurik gabe. 108.000 euro. ☎687 63 27 37.

25 m² + 10 m²-ko portxea eta 3 m-ko altuera duen egurrezko etxe modular sendoa (90 milimetroko lodiera) salgai. Sunbillako Ariztigain kanpinean kokatua. Arrazoia: Ez digutelako partzela berritzen. 18.000 eurotan salgai. Desmuntatzea eta garraioa eroslearen kontu. Partikularra. ☎679 42 36 07.

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDON ETA INGURUKO HERRIETAN 3 kideko familia bat pisu bila. Lan kontratuarekin. Jarri Whatsapp bidez harremanetan. ☎642 31 49 30.

SUNBILLA. Pisu ttiki bat errentan hartu nahi dute, gehienez bi logelakoa. ☎605 70 91 49.

IRUNen, **HONDARRIBIA**n, **OIARTZUN**en, **ERRENTERIA**n edo **TOLOSA**n pisu bila. Bikotekide bat, biak lanean eta haurrik gabe. ☎640 65 04 22 / 644 38 41 04.

DONEZTEBEn bi urte daramatzan familia batek etxea errentan hartuko luke Donezteben bertan, inguruan edo Bortzirietan. ☎682 77 06 41 / 662 50 42 98

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 · www.erran.eus

744 48 43 61 · info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

KONPARTITUAK

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan, ikasle pisu batean gela bat dute errentan emateko. ☎619 51 85 27.

DANTXARINEA. Pisu batean logela konpartitzeko dute. 250 euro hilabetean, argia eta gasa aparte. ☎678 07 66 65.

LURRAK/ORUBEAK

EROSI

LESAKA. Mendian lur eremua erosi nahi dute. Igual du zein egoeratan eta non kokatuta dagoen. ☎948 63 79 77 / 680 48 39 27.

LANA

ESKAINTZAK

ZUGARRAMURDI. Jatetxe batean aritzeko zerbitzaria behar dute. Baldintza onekin. ☎654 48 99 62 (Whatsappez idatzi).

BERA. Ubela mekanizatu tailerrean mantentze lanetan aritzeko langilea behar dute, galdaragintza eta soldadura dakiena. Bidali curriculuma: *administracion@ubela.net*.

DONEZTEBE. Ameztia ostatuan lan egiteko bi lagun behar dituzte, esperientziarekin edo ikasteko gogoarekin. Asteburuetan, besta egunetan eta udan aritzeko. ☎948 45 00 28.

BERA. 3 urteko haurra arratsaldetan zaintzeko zaintzailea behar dute, 16:00etatik aitzinera. ☎642 46 44 05.

ESKARIAK

17 urteko beratarra lan bila. Neska bat umeak zaintzen, klase partikularrak ematen, ostalaritzan... ariko litzateke. Arratsaldeetan zein asteburuetan. ☎625 59 54 60.

Emakumea lan bila. Adinekoak edo haurrak zaintzen, etxeko lanak egiten... aritzeko prest. Orduka edo interna. Esperientzia adinekoak zaintzen, atzerrian eta inguruko herrietan. ☎624 36 02 71 (Iveth).

Emakume bat adinekoak zaintzeko lan bila Bortzirietan. Esperientziaduna, externa edo interna moduan lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko moduan. ☎603 43 41 11.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

• Extra	5,03
• 1.koa	4,91
• 2.koa	4,79

Urruxak: €/kg kanal

• Extra	5,14
• 1.koa	5,00
• 2.koa	4,89

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak
• (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

• Urruxak	125,00
• Idixkoak	150,00

Aretze nabarrak

• Urruxak:	140,00
• Idixkoak	160,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

• Sortu berriak:	4,91/5,01
• Zaldi-behorrak	2,23/2,40

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

• 6-8 kilokoak:	9,50/9,60
• 8-10 kilokoak:	7,60/8,30

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 65 €
Zerri gizena 1,659 €
Zerramak 0,760€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua urriaren 28tik azaroaren 4ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

ANIMALIAK

SALGAI

Zerriak salgai, mini pig arrazakoak, hainbat neurritakoak. Barazki, fruta eta artoarekin haziak. 50 eurotik aurrera. ☎646 67 51 70.

DENETARIK

SALGAI

Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.

Zokorako sofa (*rinconera*) salgai. 4 plazetakoa eta egoera onean. 600 euro (prezio adosten ahal da). ☎649 27 44 28.

Jangelako altzariak salgai, estilo rustikoa. Mahaia (bi luzapen), sei aulki eta bi komoda. Egur trinkokoak. Egoera ezin hobean. Neurriak: Mahaia: 100 x 115/160/205; komoda bat: 198 x 56 x 98 eta bertze komoda: 157 x 52,5 x 98. Prezioa: 1.000 euro. Argazki gehiago bidaltzeko aukera. ☎629 65 65 42.

BERTZELAKOAK

DONEZTEBE. Instalazioak eta etxera gasolioa banatzeko kamioiak errentan hartzen dituzte. ☎948 45 02 72.

MOTORRAK

TAILERRAK

GANIX
Tailerra
948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

744 484 361
ttipi-ttapa

IRAGARKIAK INTERNETEN

Merkatu Ttikiko iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen ditugu hilabete batez. Ikusi iragarki guztiak Interneten: ***https://erran.eus/sailkatuak***

HILBERRIAK

- **Norberto Irureta Sarratea**, Iruritakoa, urriaren 27an, 90 urte zituela.
- **Jesus Mari Sanzberro Arburua**, Etxalarkoa, urriaren 28an, 73 urte zituela.
- **Maria Mercedes Sarratea Ibarra**, Iruritakoa, urriaren 28an.
- **Mª Teresa Oiaregi Jaunsaras**, Iruritakoa, urriaren 29an, 90 urte zituela.
- **Ezekiel Santesteban Baleztena**, Zubietakoa, urriaren 30ean, 92 urte zituela.
- **Mª Olivia Biguria Gartzia**, Elizondokoa, urriaren 31n, 86 urte zituela.
- **Mª Josefa Aizpuru Salaburu**, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 31n.
- **Matilde Irigoien Jaimerena**, Elizondokoa, azaroaren 2an, 103 urte zituela.
- **Juan Barriola Zabaleta**, Leitzakoa, azaroaren 2an, 88 urte zituela.
- **Angeles Buenetxea Franco**, Doneztebekoa, azaroaren 6an, 91 urte zituela.
- **Concepcion Etxandi Gamietea**, Oronoz-Mugairikoa, azaroaren 6an, 89 urte zituela.
- **Margarita Etxetxikia Juanbeltz**, Leitzakoa, azaroaren 7an, 66 urte zituela.
- **Mª Victoria Errandonea Txakartegi**, Donamarian, azaroaren 8an, 94 urte zituela.

URTEBETETZEAK

Unax Zelaieta Urrizak azaroaren 6an 5 urte bete ditu. Zorionak Oiztik, txapeldun! Muxu pila *maitia*.



Zorionak **Irati**! Gure etxeko bihurriak bi urtetxo beteko ditu azaroaren 29an. Bat eta bi, muxu pottolo bat masail bakoitzari!

Enaitz Ispasoiu Apezetxeak 3 urte beteko ditu azaroaren 22an. Curtea de Argeseko eta Lekuederreko familia, aitatxo-amatxo eta bereziki Naiaren partez.

Laia Loiarte Banegasek 2 urte bete ditu azaroaren 13an. Martin, ama eta aitak beste urtebetez emandako irriengatik eskerrak emanen dizkizugu. Zorionak!



Izei Etxeberria Urrizak urtea bete du azaroaren 4an. Etxeko txikienari zorionak eta muxu haundi bat.

Unax Zelaieta Urrizak 5 urte bete ditu azaroaren 6an. Zorionak etxeko txapeldunari bere borzgarren urtebetetzean Lesakako familiaren partez.

Beñat Ugartek azaroaren 28an 7 urte beteko ditu. Zorionak txirrindulari!!! Muxu haundi-haundi bat etxekoen partez, eta bereziki Haritz anaiaren partez.



Aunitz urtez, **Nahia**! **Nahia Gomez Ribeiro**k 10 urte beteko ditu azaroaren 18an. Zorionak familiaren eta Sararen partetik. Aunitz maite zaitugu.



Oinatz Ariztegik 6 urte beteko ditu azaroaren 25ean. Aunitz urte familia guztiaren eta bereziki Egoiren partez. Zorionak txapeldun!!

Leitza/Lantzeko **Izargi Mariezkurrena**k 6 urte beteko ditu azaroaren 19an. Muxu haundi bat June, Lide eta Haizederren partetik. Zorionak *printzexa*!

Zorionak *preziosa*! **Intza**k 8 urte beteko ditu azaroaren 28an. Muxu aunitz familiaren eta bereziki Pagoa zure ahizpa bihurriaren partez.

Igantziko **Haizea Aranguren Irigoien**ek 6 urte beteko ditu azaroaren 17an. Zorionak eta aunitz urtez bi amatxi, guraso eta Jonen partetik!!! Ongi pasatu zure egunean eta muxu potoloak gure partetik!!!

OROIGARRIA



Hitz gutti egin izan arren, utzitako hutsunea haundia izanen da. ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Jose
ARRAZTOA APEZETXE
Irurita, 1933/02/26 - 2021/11/04
I. urtemuga

Azaroak laua dugu gaurkoa
Urte bat pasatu da jada
Zure istorio anekdotez
Oso maiz oroitzen gara
Zutaz ahaztea aitetxi
Ezinezkoa izanen da
Nahiz eta ondoan ez egon
Gure bihotzetan egonen zara.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

USAZALEOK GURE TREPARIARI:
Zure begi bizi-erne horiekin loturik eduki gaituzu gure taldea josia izateko eman duzu behar adina su. Zure ondoan ikasia baliatuz izanen gaituzu eskertsu, aitzinerat segitzeko bidaxka zuk erakutsi baitiguzu.

ETXALARKO USAZALEEN ELKARTEAK
Jesus SANZBERRO ARBURUA *Murdene*
elkarteko lehendakariari

OROIGARRIA

Joël
MARIEZCURRENA FLORES
Donezteben, 2022ko urriaren 24an,
24 urte zituela

Indar eta adore handia izan duzu bizitzan, denok maitatzea lortuz zure irribarre bakoitzan, aurrera eginen dugu zuk erakutsitako gisan, muxu bat Joël bidaia ona izan.

ZURE FAMILIA



PLAZAN BAZAN

ITZALA

Zein da itzal zuzena?

MARGOTU

Zeinen ederki hosto artean jostetan!
Zoriona erabatekoa izan dadin, eman iezaiozu kolorea irudiari.
Erabili margo hori, laranja, berde, gorri eta marroiak.

Ilustrazioak: **Garbiñe Ubeda (Aiurri)**

INTERNETEN ERE BAI !

http://plazanbazan.eus/

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T. **948 63 54 58** | M. **744 48 43 61**
info@ttipi.eus | **erran.eus**

www.ttipitxartela.info

817 zenbakiko irabazleak >

ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Bautista Erasun Mindegia | DONEZTEBE
Buatxabal - Kamiseta bat
Garbiñe Mihura | ZUGARRAMURDI
Salting Iruña - Bi sarrera
Marta Ezkurra Oteiza | LEITZA
Ezkexa - Kamiseta bat
Elena Irigoien Irigoien | ERRATZU
Irrisarri Land- Sarrera bat
Juan Mª Grazenea Moreno | ERATSUN
Okille Tailerra - Eguzkilore bat
Mertxe Petrikorena Telletxea | IGANTZI
Izar Park - Sarrera bat
Oskar Goienetxe Ariztegi | ETXALAR
Ttarttalo - Liburu bat
Juliana Arizaleta Etxenike | ARRAIOZ

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com

Kamiseta bat

ARKUPE
www.arkupegozotegia.com

Lote bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

Sarrera bat

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

Sarrera bat

LESAKA
www.lesakakoudalkiroldegia.com

Bi sarrera

IZAR PARK
www.galaxypark.eus

Sarrera bat

LIBURUAK

Bi liburu

elkar
www.elkar.eus

LAGUNTZAILEAK

www.txalaparta.eus

www.irrisarriland.eu